# ZERGA BEREZIEI BURUZKO ARAUTEGIA

## 1/1999 ARAU DEKRETUA, PREMIA FISKALARI BURUZKOA, OTSAILAREN 16KOA

**(ALHAO, 31. zk., 99-3-17koa, gehigarria)**

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua 1999ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren bidez)

Diputatuen Kontseiluko Erabakiak Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Herriko Autonomi Elkartearekiko Kontzertu Ekonomikoa aldarazten duenak, ekarri duen aldaketa nabarmenen artean, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak ezartzea izan da. Horrela, sortzapena bere lurralde eremuan sortzean dagokion ordainerazpenerako eskumenaz gain, hura arautzeko eskumena ere gehitzen da. Hala ere, azken kasu honetan, Estatuak ezarritako eduki eta forma arauak aplikatuko dira.

Gaur egun beharrezkotzat jotzen da Arabako Lurralde Historikoaren zerga-araudiak Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzko araudia jasotzea.

Aipaturiko lan hori aurrera eraman ahal izateko, gogoan izan behar dugu urtarrilaren 18ko 13/1993ko Foru Arau Dekretua, zenbait garraiobideren gaineko Zerga Berezia arautzen duena, zeren beste Zerga Bereziak bezala, zerga berezi guztiak jasotzen duen lege-araudi baten barne sartu behar baita.

Horretaz gain, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, Neurri Fiskal Administratibo eta Gizarte-ordenari buruzkoak, Zerga Berezien artean beste berri bat ezartzen du, hain zuzen ere, Elektrizitatearen gaineko Zerga. Zerga berri hau abenduaren 28ko 38/1992 Legeak arautzen du eta horrenbestez, ezarritako figura hau honako Zerga Premiatasunaren Arau Dekretuak planteatzen duen araudiak jasotzen du eta ondorioz, gainontzeko zerga bereziak bezala, ezartzeko baldintza berdinak izango ditu.

1999ko otsailaren 4ko Zerga-araudi Zerbitzuak egindako horri buruzko txostena ikusi da.

Gaurko egunez egindako bilkuran Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatu Titularrak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, 1981eko maiatzaren 31ko Arabako Foru-Arau Orokorraren 13. artikuluak eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru-Arauak, Arabako Foru Aldundiko Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide juridikoari buruzkoak, Foru Aldundiari ematen dizkioten ahalmenak erabilita, premiazko arrazoiak direla eta,

**X E D A T Z E N D U T :**

## AURREKO TITULUA

**1. artikulua.- (21) (45) Zerga berezien izaera.**

1. (49) Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan (hemendik aurrera Araugintzako Dekretua) arautzen diren zerga bereziak kontsumo berezi batzuen gaineko zeharkako zergak dira eta fase bakarrean kargatzen dituzte zenbait ondasunen fabrikazioa (fabrikazio irregularra barne), inportazioa, sarrera irregularra eta, hala gertatuz gero, barneko lurralde eremuan sartzea, zenbait garraio ibilgailuren matrikulazioa, energia elektrikoaren hornidura eta ikatzakontsumotakojartzea, araugintzako dekretu honetako arauekin bat etorriz.

2. Zerga bereziak dira fabrikazioaren gaineko zerga bereziak, elektrizitatearen gaineko zerga berezia, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ikatzaren gaineko zerga.

**2. artikulua.- (21) Aplikazio eremua.**

**1.** Zerga bereziak araugintzako dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz eskatuko dira Arabako Lurralde Historikoan. Horrez gainera, Ekonomi Ituneko 5. artikuluko lehenengo idatz zatian xedatutakoa bete beharko da, bai eta Espainiako estatuak sinatu eta berretsitako nazioarteko hitzarmen eta itunetan edo hura atxikitzen zaienetan ezarritakoa ere.

**2.** Arabako Foru Aldundiak ondoko kasu hauetan ordainaraziko ditu zerga bereziak:

a) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak, sortzapena Arabako Lurralde Historikoan gertatuz gero.

b) Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia, garraiobideak behin betiko matrikulatzen badira Arabako Lurralde Historikoan.

Matrikulazioa gai honi buruz indarrean dagoen legerian ezarritako irizpideen arabera egin behar da. Pertsona fisikoek Araban matrikulatu behar dute garraiobidea bertan badaukate zerga egoitza.

c) Ikatzaren gaineko Zerga Berezia, sortzapena Arabako Lurralde Historikoan gertatuz gero.

d) (45) Elektrizitatearen gaineko zerga berezia: energia elektrikoaren hornidura kasuan, elektrizitatea berak kontsumitzeko eskuratzen duen pertsona edo entitatearen hornidura puntua Arabako Lurralde Historikoan egonez gero; energia elektrikoa sortzen duenak berak sortzen duen elektrizitatea kontsumitzen duenean, kontsumoa Arabako Lurralde Historikoan gertatuz gero.

## I. TITULUA
## FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK

### I. KAPITULUA
### XEDAPEN KOMUNAK

**3. artikulua.- Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak.**

Ondoren zehazten diren zergak, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak dira:

**1.** Alkohola eta Edari alkoholikoen gaineko Zerga Berezi hauek:

a) Garagardoaren gaineko Zerga.

b) Ardo eta hartzitutako Edarien gaineko Zerga.

c) Bitarteko Produktuen gaineko Zerga.

d) Alkohola eta eratorritako Edarien gaineko Zerga.

**2.** Hidrokarburoen gaineko Zerga.

**3.** Tabakoaren inguruko lanen gaineko Zerga.

**4.** (45)

**4. artikulua.- (28) (49) Kontzeptuak eta definizioak.**

Titulu honen ondorioetarako, ondokoak finkatu dira:

**1.** "Barneko lurralde eremua": fabrikazioaren gaineko zerga bereziak araugintzako dekretu honetako 2. artikuluan xedatutakoaren arabera eskatuko diren lurraldea.

**2.** "Barnekoa ez den Batasunaren lurralde eremua": barneko lurralde eremua ez den Batasuneko lurraldea.

**3.** "Autokontsumoa": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak kontsumitzea edo erabiltzea produktuok etendura araubidean dauden establezimenduetan.

**4.** "Aisialdiko hegazkineria pribatua": jabeek edo errentamenduaren edo beste titulu baten bitartez gaituta dauden pertsonek publikoak ez diren aireontziak erabiltzea merkataritzakoak ez diren xedeetarako; batik bat, ez bidaiari eta salgaien garraiorako ez kostubidezko zerbitzuak egiteko.

**5.** "Erreferentziako administrazio kodea": bidalketa gertatzen den Batasuneko estatuko agintaritzak, zirriborroko datuak ontzat eman ondoren, administrazio agiri elektronikoari ematen dion erreferentziako zenbakia. Kode honen aipuak «ARC» siglaren bidez egingo dira.

**6.** "NC kodeak": 1987ko uztailaren 23ko 2658/87 Araudiak (EEE) ezarritako nomenklatura konbinatuko kodeak. Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen diren eremu objektiboa zehazteko ondoko hauek hartuko dira kontuan: orokorrean, nomenklatura konbinatuan salgaiak sailkatzeko ezarritako irizpideak; eta bereziki, nomenklatura konbinatua interpretatzeko arau orokorrak, nomenklatura horretako atal eta kapituluetako oharrak, Aduanetako LankidetzaKontseiluaren salgaiak izendatzeko eta kodetzeko sistema harmonizatua azaltzen duten oharrak, Kontseiluak sailkapenerako finkatutako irizpideak eta Europar Batasuneko nomenklatura konbinatuei buruzko azalpen oharrak.

Hala ere, Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen gaineko Zerga Berezietan aipatzen diren NC kodeak Batzordearen 2018/1602 (EB) Betearazpen Erregelamenduan jasotako nomenklatura konbinatuaren kodeei dagozkiela ulertuko da; erregelamendu horrek aldatu egin zuen Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamenduaren I. eranskina, muga-zergen eta estatistikaren nomenklaturari eta aduana-tarifa erkideari buruzkoa. Hidrokarburoen gaineko Zergan aipatzen diren NC kodeak Batzordearen 2001eko abuztuaren 6ko 2031/2001 (EE) Erregelamendukoak dira. Erregelamendu horrek aldatu egin zuen Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamenduaren I. eranskina, muga-zergen eta estatistikaren nomenklaturari eta aduana-tarifa erkideari buruzkoa.

**7.** (46) "Gordailuzain baimendua": Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren pertsona eta erakundeak, fabrika edo gordailu fiskal baten titular direnak.

**8.** "Bidalketa jasotzen den gordailua": hartzaile erregistratu bat titularra deneko establezimendua. Bertan, bere lanbidean jardunez eta bidalketa heltzen den Batasuneko estatuko agintaritza eskudunak emandako baimena dela medio, Batasuneko beste estatu batzuetako lurraldeetatik etendura araubidean bidalitako fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak jaso ditzake.

**9.** "Gordailu fiskala": emandako baimenaren arabera eta arau bidez ezarritako baldintzak eta betekizunak betez fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak etendura araubidean biltegiratu, jaso, bidali eta, kasu batzuetan, eraldatzekoerabiltzen den establezimendua, edo oliobide edo gasbideen sarea.

**10.** "Ziurtatutako hartzailea": Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den edozein pertsona edo erakunde, zeina xede estatu kideko agintari eskudunen aurrean erregistratua dagoen zerga bereziei lotutako produktuak jasotzeko, baldin eta, pertsona horren lanbidea dela eta, estatu kide baten lurraldean kontsumorako bideratu badira eta, ondoren, beste estatu kide baten lurraldera lekualdatu badira.

**11.** "Erregistratutako hartzailea": Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren pertsona eta erakundeak, hain zuzen ere baimena daukatenak beren lanbidean jardunez eta arau bidez ezarritako baldintzei lotuta titular diren gordetegian jasotzeko Batasuneko beste estatu batzuetako lurraldeetatik etendura araubidean bidalitako fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak. Hartzaile erregistratuei baimena eman dakieke Batasuneko beste estatu kide batzuetako lurraldeetatik etendura araubidean egindako fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuen bidalketa bat jasotzeko, arau bidez ezartzen diren baldintzei eta betekizunei lotuta. Honelako kasuetan ez dauka nahitaez bidalketa jasotzen den gordetegiaren titularra izan beharrik.

**12.** "Zuzeneko entrega": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuek etendura araubidean zirkulatzea xede estatuko agintaritza eskudunak baimendutako toki bateraino, arau bidez ezarritako baldintzei lotuta, hain zuzen ere Batasuneko estatu kide horretako gordailuzain baimenduak edo erregistratutako hartzaileak izendatu duen tokiraino.

**13.** "Sarrera irregularra": 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera, produktuen zirkulazio askearen araubidean sartuta ez dauden produktuak Europar Batasunaren lurraldean sartzea, eta Erregelamendu horren 79. artikuluaren 1. apartatuaren arabera, aduana-zor bat dutenak edo ondasunak aduana eskubideen mende egon izan balira edukiko luketen zor bat.

**14.** "Bermatutako bidalketak": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuek Batasuneko lurraldearen barruan zirkulatzeko prozedura bat; prozedura honetan produktuei zerga aplikatzen zaie bidalketa egiten den Batasuneko estatu kidearen lurraldean eta beste estatu bateko hartzaile ziurtatu bati bidaltzen zaizkio, dekretu honen 63. artikuluan barneko lurralde eremuko jasoketez ezarritako murrizpenak aplikatuta, eta ezinbestekoa da produktuak ez bidaltzea ez garraiatzeabidaltzaileak, ez zuzenean ez zeharka, ez eta haren kargura ere, eta arau bidez ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzea.

**15.** "Ziurtatutako bidaltzailea": Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den edozein pertsona edo erakunde, zeina bidalketako estatu kideko agintari eskudunen aurrean erregistratua dagoen zerga bereziei lotutako produktuak bidaltzeko, baldin eta, pertsona horren lanbidea dela eta, estatu kide baten lurraldean kontsumorako bideratu badira eta, ondoren, beste estatu kide baten lurraldera lekualdatu badira.

**16.** "Erregistratutako bidaltzailea": Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren pertsona eta erakundeak, hain zuzen ere inportazioa jasotzen den Batasuneko estatuko agintaritza eskudunaren baimena daukatenak beren lanbidean jardunez eta arau bidez ezarritako baldintzei lotuta fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak bidaltzeko; bidalketa inportazio tokira heltzen denetik soilik dago etendura araubidean, aduana izapideak egiten direnean, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**17.** "Esportazioa": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak barneko lurralde eremutik irtetea Europar Batasunetik kanpoko xede batera bidalita. Hala ere, ez da esportaziotzat joko Batasuneko lurraldetik irtetea ibilgailuetako ohiko biltegietako eta edukiontzi berezietako erregaia, haien funtzionamenduraerabiltzen dena eremu horretatik kanpo ibiltzeko.

**18.** "Fabrika": emandako baimenaren arabera eta arau bidez ezarritako baldintzak eta betekizunak betez fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak etendura araubidean ateratzeko, fabrikatzeko, eraldatzeko, biltegiratzeko, jasotzeko eta bidaltzeko erabil daitekeen establezimendua.

**19.** "Fabrikazioa": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak sortzea, eta produktu horiek beste batzuen bitartez eratzeko egiten diren prozesu guztiak, eraldatzea barne, artikulu honetako 33. idatz zatian zehaztu den bezala. Honek guztiak ez du eragozten dekretu honetako 15. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa.
Araugintzako dekretu honetan eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak bete gabe fabrikatutakoa fabrikazio irregularra izango da.

**20.** "Inportazioa": produktuen zirkulazio askea, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera.

**21.** "Nazioarteko itsasoko edo aireko nabigazioa": barneko lurralde eremutik abiatu eta kanpoan amaitzen den nabigazioa, bai eta alderantzizkoa ere. Era berean, nazioarteko itsasokonabigaziotzathartzen da itsas zabaleko nabigazioko ontziek egiten dutena, baldin eta industria, merkataritza edo arrantza jarduera batean aritzen badira, garraioa ez beste batean, eta nabigazioak, eskalarik gabe, berrogeita zortzi ordu baino gehiago irauten baditu.

**22.** "Aisialdiko nabigazio pribatua": jabeek edo errentamenduaren edo beste titulu baten bitartez gaituta dauden pertsonek publikoak ez diren ontziakerabiltzeamerkataritzakoak ez diren xedeetarako; batik bat, ez bidaiari eta salgaien garraiorako ez kostubidezko zerbitzuak egiteko.

**23.** "Hornidurarako produktuak": ontziko hornidurak, erregaiak, labaingarriak eta erabilera teknikoko olio guztiak.

**24.** "Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak": zerga horietako bakoitzaren eremu objektiboan sartutako produktuak.

**25.** "Ontzi barruko hornigaiak": tripulazioaren eta bidaiarien kontsumorako soilik diren produktuak.

**26.** "Etendura araubidea": zerga berezien kargapeko produktuen fabrikazioaren, eraldaketaren, edukitzaren, biltegiratzearen eta zirkulazioaren gaineko zergen aplikazioa etetea dakarren araubide fiskala.

**27.** "Ordezkari fiskala": urruneko salmentaren sistemako bidaltzaile batek ondoren zehaztuko diren eragiketak egiteko Batasuneko beste estatu kide baten lurraldean izendatutako pertsona edo erakundea, Espainiako Zerga Administrazioak baimendutakoa eta arau bidez ezarritako baldintzakbetetzen dituena: bidaltzaileak bidalitako produktuek fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatik jasaten duten karga ordainduko dela bermatzeko eta, ondoren, ordainketa egiteko.

**28.** "Hirugarren herrialdeak": itunak aplikatzen ez zaizkion estatu edo lurralde oro.

**29.** "Hirugarren lurraldeak":

a) Europar Batasuneko aduana eremuan dauden honako lurralde hauek:

1. Espainiako Erresuman: Kanariar uharteak.

2. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. artikuluan eta 355. artikuluaren 1. idatz zatian aipatutako Frantziako lurraldeak.

3. Finlandiako Errepublikan: Aland uharteak.

b) Europar Batasuneko aduana eremuan ez dauden honako lurralde hauek:

1. Alemaniako Errepublika Federalean: Helgoland uhartea eta Büsingen-eko lurraldea.

2. Espainiako Erresuman: Ceuta eta Melilla.

3. Italiako Errepublikan: Livigno.

c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluaren 3. idatz zatiaren aplikazio eremuan sartuta dauden lurraldeak.

**30.** (46) "Estatu kide baten lurraldea": itunak aplikagarri zaizkien estatu kideen lurraldea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. eta 355. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, hirugarren lurraldeak izan ezik.

**31.** "Batasunaren lurraldea": estatu kideen lurraldeak.

**32.** "Zergarik gabeko dendak": Espainiako penintsula lurraldeko edo Balear uharteetako aireportu eta portuetako establezimenduak, bidaiariak ontziratzeko edo hegazkineratzeko, igarotzeko edo iristeko aduana-kontrolpeko eremuan kokatutakoak, segurtasun kontrola eta/edo sartzeko pasaporte kontrola gainditu ondoren; establezimendu horietan, arau bidez ezarritako baldintzei lotuta, zergarik gabeko edari alkoholdunak edo tabakogaiak ematen zaizkie hirugarren herrialde edo lurralde batera hegazkinez edo itsasontziz doazen bidaiariei, eta hauek beren bagaje moduan daramatzate.

Aurreko paragrafoan aipatutako establezimenduetan ezin zaie eman zergarik gabeko garagardorik, tarteko produkturik ez eratorritako edaririk bidaiariei, gero beren bagajean eramango badute Kanariar uharteetara.

Halaber, Kanariar uharteetako aireportu eta portuetako establezimendu hauek ere zergarik gabeko dendak dira: arau bidez ezarritako betekizunak beteta, garagardoa, tarteko produktuak eta eratorritako edariak ematen dizkietenak hegazkinez edo itsasontziz barneko lurralde eremutik kanpora doazen bidaiariei, beren bagajean eramateko.

Zergarik gabeko dendetako produktu emateekin berdinetsiko dira aurreko paragrafoetan aipatu diren hegaldietan edo nabigazio aldietan aireontziaren edo itsasontziaren barruan egiten diren emateak.

**33.** "Eraldaketa": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak osorik edo zati batean beste produktu batzuetatik (horiek ere zerga berezien kargapekoak) lortzeko erabiltzen den edozein fabrikazio prozesu, baldin eta honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Jatorrizko produktua eta lortutako produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektibo desberdinetan sartzen dira.

b) Jatorrizko produktua eta lortutako produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezi berberaren eremu objektiboan sartzen dira, baina aplikatu beharreko epigrafea edo zerga tasa desberdinak dira.

c) Jatorrizko produktua eta lortutako produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezi berberaren eremu objektiboan eta aplikatu beharreko epigrafe edo zerga tasa berean sartzen dira, baina, prozesuaren ondorioz, lortutako produktuaren kantitatea erabilitako produktuarena baino handiagoa da.

d) Trazatzaileak edo markatzaileakdesnaturalizatzeko edo gehitzeko eragiketa bada.

**34.** "Urruneko salmentak": fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuek Batasunaren barruan zirkulatzeko sistema; honen arabera, produktuaren gaineko karga jatorrizko estatu kide baten lurraldean sortzen da eta gero hura Batasuneko beste estatu bateko pertsona batek eskuratzen du, ez gordailuzain baimendua ez erregistratutako hartzailea ez hartzaile ziurtatua ez den eta produktuarekin jarduera ekonomiko lokaberik egiten ez duen batek, araugintzako dekretu honen 63. artikuluan ezarritako murrizpenekin, (ezinbesteko bi baldintza daude: produktuak jarduera ekonomiko independentea egiten duen bidaltzaileak zuzenean edo zeharka bidaltzea edo garraiatzea, edo beraren kargura, eta arau bidez ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzea).

**5. artikulua.- (28) Zerga gaia.**

**1.** (49) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean daude Batasunaren lurraldearen barruan zerga horien xede diren produktuak fabrikatzea, inportatzea edo produktu horien sarrera irregularra.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoa ez zaie aplikatuko zerga berezien barneko lurralde eremuan dauden produktuei.

**3.** Aurreko idatz zatietan ezarritakoak ez du eragozten dekretu honetako 23. eta 40. artikuluetan xedatutakoa.

**6. artikulua.- (49) Ez-zergapetze kasuak.**

Fabrikazio edo inportazio kontzeptu gisa ez dira kontuan hartuko:

**1.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatu direneko produktuen jatorriak eragindako galera partzialak, hain zuzen ere, etendura araubidean fabrikazio, transformazio, edukitze, biltegiratze eta garraio prozesuetan sortutakoak. Beti ere, eta ezarritako araubidearen arabera, jarritako ehunekoak gainditu gabe eta horretarako ezarritako baldintzak betez.

Hala ere, arauzko ehunekoak ez zaizkie aplikatuko Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargupeko produktuen jatorriak eragindako galera partzialei, baldin eta Europar Batasunaren barruko zirkulazioan etendura araubidean sortu badira eta agintari eskudunek iruzurra edo irregulartasuna dagoela frogatzen badute.

Irregulartasuntzat hartzen da zerga berezien kargupean dauden eta etendura araubidean dauden produktuak zirkulatzean gertatzen den egoera oro, idatz zati honetan eta hurrengoan aipatutakoak izan ezik; egoera horren ondorioz, zerga berezien kargupean dauden produktuen zirkulazioa edo zirkulazioaren zati bat ez da arau bidez xedatutakoaren arabera amaitzen.

**2.** Fabrikazioaren gaineko zerga Bereziak aplikatu direneko produktuak erabat suntsitzea edo modu konponezinean erabat edo partzialki galtzea, hain zuzen ere, etendura araubidean, ustekabean edo ezinbestean sortutakoak, beti ere, ezarritako ehunekoak gainditu gabe edo gaindituz gero, haren existentzia administrazioaren aurrean frogatu denean, zuzenbideko edozein froga onargarriren bidez.

**3.** (28) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak erabat suntsitzea edo modu konponezinean erabat edo partzialki galtzea hori gertatu den Batasuneko estatu kideko agintaritza eskudunak emandako baimen baten eraginez, produktuak etendura araubidean daudela. Produktuak erabat suntsitutzat edo modu konponezinean galdutzat joko dira fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargupeko produktu gisa erabili ezin direnean, baldin eta suntsipena edo galera gertatu den Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari behar bezala frogatzen bazaio

**7. artikulua.- (28) (49) Sortzapena.**

**1.** 23, 28, 37 eta 40. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, Zerga une hauetan sortuko da:

a) Fabrikazio kasuetan, Zerga Berezien kargapeko produktuak fabrikatik edo gordailu fiskaletik irteten direnean edo autokontsumoagertatzen denean.

Hala ere, produktu horiek etendura araubidean irtengo dira fabrikatik edo gordailu fiskaletik xede hauetako bat izanez gero:

1. Beste fabrika edo gordailu fiskal bat, zuzenean, edo zuzeneko entrega erregistratutako hartzailebatentzat edo esportazioa.

2. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargupekoak ez diren produktuen fabrikazioa, azken helburua esportazioa dela, baldin eta arau bidez ezartzen diren baldintzakbetetzen badira.

3. Zerga berezien araubide orokorra ezartzen duen Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentarauaren 16.1 artikuluko a) letrako iv) apartatuan aipatzen diren hartzaileetako bat.

4. Irteerako aduana, 2015/2447 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 329. artikuluaren 5. apartatuaren arabera aurreikusten denean abiapuntuko aduana ere izatea kanpo igarotzako araubiderako, hala xedatzen denean 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluaren 4. apar-tatuan. Kasu horretan, etendura araubidea produktuak kanpo igarotzako araubidean sartzen direnean amaituko da.

b) Inportazio kasuetan, aduana izapideak egiten diren unean, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera. Hala ere, inportatutako produktuak zuzenean erabiltzen badira fabrika edo gordailu fiskal batean sartzeko edo zuzeneko entrega bat egiteko, erregistratutako hartzaile batengana badoaz edo Batasuneko lurraldetik irteteko abiagunea izango den leku batera, edo hartzaileaKontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 (EB) Zuzentarauaren 16.1 artikuluko a) letrako iv) idatz zatian aipatzen direnetako bat bada, edo irteerako aduanara badoaz, 2015/2447 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 329. artikuluaren 5. apartatuaren arabera aurreikusten denean abiapuntuko aduana ere izatea kanpo igarotzako araubiderako, hala xedatzen denean 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluaren 4. apartatuan, inportazioa etendura araubidean egingo da.

c) Produktuak erregistratutako hartzaile bati bidaliz gero, hark destinoan jasotzen dituenean.

d) Zuzeneko entregetan, kargapeko produktuak jasotzen direnean entrega gertatzen den tokian.

e) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktuak etendura araubidean eduki, biltegiratu edo ibiliz gero, kargapean ez egotea eragiten duena ez beste galera bat gertatzen denean (hori noiz gertatu den jakin ezean, galera egiaztatzen denean).

f) Urruneko salmentetan, jasotzaileari produktuak ematen zaizkionean.

g) Produktuak ziurtatutako hartzaile bati bidaliz gero, hark destinoan jasotzen dituenean.

h) Etendura araubideko zirkulazioetan irregulartasunik gertatuz gero, zirkulazioa hasi den egunean. Salbuespena: noiz gertatu diren frogatzen bada, horixe izango da sortzapen unea.

i) Irregulartasunen bat gertatzen bada Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktuen Batasunaren barruko zirkulazioan, zerga Batasuneko beste estatu batean sortu dela, irregulartasuna gertatzen den unean (noiz gertatu den jakin ezean, egiaztatzen denean).

j) Destinoa dela eta salbuespena edo tasa txikitua aplikatu zaien Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktu batzuen zirkulazioan destinoa frogatzen ez bada edo produktuak gaizki erabiltzen badira, jasotzeko ahalmena daukanak eskuratzen dituenean; salbuespena: bidegabeko erabilpena noiz gertatu den frogatzen bada modu sinesgarrian, horixe izango da sortzapen unea. Produktuak ahalmenik ez daukan batek jasotzen baditu, zerga zirkulazioa hasi denean sortuko da.

k) Dekretu honetako 8. artikuluaren 2. apartatuko h) letran aipatzen diren kasuetan, sortzapena noiz gertatu den argitzeko aurreko idatz zatietan ezarritakoa aplikatuko da. Noiz izan den zehazterik ez badago, zergapekoak produktuak eskuratu dituen eguna edo produktuen jabetza hasi den eguna izango da, eta bestela produktuak haren esku daudela egiaztatzen den eguna.

l) Europar Batasunaren lurraldean modu irregularrean sartzen direnean, aduanako zorra sortzen den unean, non eta aduanako zorra ez den azkentzen 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 124. artikuluko 1. idatz zatiko e), f), g) edo k) letrei jarraikiz.

m) Europar Batasuneko beste estatu bateko lurraldetik Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko
2020/262 Zuzentarauaren 16.1 artikuluko a) letrako iv) idatz zatian aipatzen diren hartzaileei zuzendutako bidalketen kasuan, jasotzen diren unean.

n) Fabrikazio irregularraren kasuan, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargupeko produktuak lortu direla jakiten den unean.

**2.** Artikulu honetako 1. idatz zatiaren a) letran ezarritakoa gorabehera, fabrikatik edo gordailu fiskaletik irtendako produktuak (etendura araubideaz kanpo), denak edo batzuk, ezin bazaizkio eman jasotzaileari baimendutako gordailuzain bidaltzaileariegotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, produktuak berriz ere irten diren establezimenduan sartu ahal izango dira, arau bidez ezarritako baldintzak betez gero, eta irteeran zergarik sortu ez zela ulertuko da.

**3.** (35) (45) Artikulu honetako aurreko idatz zatietan ezarritakoa gorabehera, gas naturala kostu bidez hornitzeko kontratu baten esparruan fabrika edo zerga biltegitzathartzen diren instalazioetatik gas naturala irteten denean, Hidrokarburoen gaineko Zerga fakturazio aldi bakoitzean hornitutako gas naturalaren prezioaren zatia eska daitekeenean sortuko da. Aurrekoa ez da aplikatuko gas naturala beste fabrika, gordailu fiskal edo erregistratutako hartzaile bati bidaltzen bazaio, ez eta hornidurarako hodi finkoak ez diren beste baliabide bat erabiltzen denean ere.

Artikulu honetako 1. idatz zatiaren a) letran ezarritakoa aplikatzeko, aurreko paragrafoan aipatzen direnak ez beste gas natural hornidura batzuetan subjektu pasiboek hauxe hartu ahal izango dute kontuan: ondoz ondoko hirurogei egunetan, gehienez, hornitutako gas naturala aipatutako aldia amaitu ondoko egutegiko lehen hileko lehen egunean irten dela fabrikatik edo gordailu fiskaletik.

**8. artikulua.- (28) Zergapekoak.**

**1.** Araugintzako dekretu honen ondorioetarako zergapekoak dira beronen arabera zerga betebeharrak dauzkaten pertsona fisiko eta juridikoak.

**2.** (49) Ondokoak subjektu pasibo dira, zergadun baitira:

a) Baimendutako gordailuzainak, produktuak fabrika edo gordailu fiskal batetik irtetean edo autokontsumoagertatzeansortzen bada zerga.

b) Deklaratzailea, 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluko 15. puntuan definitzen den bezala, edo erregelamendu horren 77. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den beste edozein pertsona, zerga inportazio baten ondorioz sortzen bada.

c) Erregistratutako hartzaileak, produktuak jasotzeansortzen den zergarekiko.

d) Ziurtatutako hartzaileak, produktuak jasotzen dituztenean sortzen den zergarekiko.

e) Baimendutako gordailuzainak eta erregistratutako hartzaileak, zuzeneko entregetan.

f) Batasunaren lurraldean salgaiak modu irregularrean sartzen dituen edo horretan parte hartzen duen edozein pertsona.

g) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuen fabrikazio irregularra egiten duen edo horretan parte hartzen duen edozein pertsona.

h) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuak eduki, biltegiratu, erabili, merkaturatu edo garraiatzen dituztenak, araugintzako dekretu honen 16. artikuluan xedatutako kasuak alde batera utzita, baldin eta ez badute egiaztatzen zerga horiek Europar Batasuneko zuzenbidearen eta legeria nazionalaren xedapen aplikagarrien arabera ordaindu direla.

**3.** (35) (49) Dekretu honetako 4. artikuluko 27. idatz zatian aipatzen diren ordezkari fiskalak subjektu pasiboak dira, zergadunen ordezkoak diren aldetik.

Halaber, zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadunen ordezkoak diren aldetik, araugintzako dekretu honetako 7. artikuluko 3. idatz zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako kasuan gas naturala kostu bidez hornitzen dutenak.

**4.** (49) Baimendutako gordailuzainek etendura araubidean Batasuneko estatu batera bidali eta jasotzaileak hartu ez dituen produktuei dagokien zerga zorra ordaindu behar dute. Horretarako bermea jarri behar dute (arau bidez ezarriko da zenbatekoa izan behar den eta nola jarri behar den), Europar Batasun osoan baliozkoa dena. Era berean, Batasuneko beste estatu kide bateko zergapeko batek bertan jartzen badu hizpide dugun bermea, Espainian ordaindu behar du bidalitako ondasunen Batasunaren barruko zirkulazioan barneko lurralde eremuan gertatzen diren irregulartasunei dagokien zerga zorra.

Baimendutako gordailuzain batek eta garraiolari batek idatz zati honetan aipatzen den erantzukizunahainbanatzeahitzartzen badute, Zerga Administrazioak garraiolariaren kontra jo ahal izango du erantzulesolidariotzat hartuta.

Erantzukizuna bertan behera geratuko da produktuak hartzailearen esku daudela edo esportazioa egin dela frogatutakoan

**5.** Inportazioetan, zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira arloko indarreko arautegiaren arabera aduanako zerga modu solidarioan ordaindu behar dituzten pertsona fisikoek edo juridikoak eta erakundeak.

**6.** Dekretu honetako 17. artikuluan aipatzen diren irregulartasunak gertatuz gero, zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira irregulartasunak gertatu diren Batasunaren barruko zirkulazio motaren arabera hura bermatu behar duten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak.

**7.** Destinoa dela eta salbuespena edo tasa txikitua aplikatu zaien fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktu batzuen zirkulazioan irregulartasunen bat gertatzen bada edo destinoa frogatzen ez bada edo produktuak gaizki erabiltzen badira, bidaltzaileak ordaindu behar ditu zerga eta bidezko zehapenak; hala ere, jasotzeko ahalmena daukanak hartu dituela frogatuz gero, jasotzaileak ordaindu behar ditu.

**8.** (49) Zerga berezien zor bererako zordun bat baino gehiago dagoenean, zor hori solidarioki ordaindu beharko dute.

**9.** Erregistratutako bidaltzaileek etendura araubidean bidali eta jasotzaileak hartu ez dituen produktuei dagokien zerga zorra ordaindu behar dute. Erantzukizuna bertan behera geratuko da produktuak jasotzailearen esku daudela edo esportazioa egin dela frogatutakoan.

**9. artikulua.- Salbuespenak.**

**1.** Honako Arau Dekretuaren 21,. 42., 51., 61. eta 68, artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe, salbuetsita geldituko dira, ezartzen diren araudiaren baldintzen arabera, Fabrikazioaren gaineko zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuen fabrikazioa eta inportazioa, beti ere, ondoko gauzetara destinatzen badira:

a) Harreman diplomatiko edo kontsularraren eremurako.

b) Nazioarteko erakundeetarako, izen horrekin ezagutzen direnak Espainian eta baita erakunde horietako kideei zuzendu ere. Beti ere, eremuen barne, eta erakundeen

nazioarteko hitzarmen eratzaileek zehazten dituzten baldintzen edo egoitzaren akordioen arabera.

c) Espainia ez den eta Iparraldeko Atlantikoaren Hitzarmenaren kide den edozein estaturen Indar Armatuetarako, eta 90/6407/EEE Erabakiak jasotzen duen 1. artikuluak aipatzen dituen indar armatuetarako ere. Artikuluaren horren arabera, aipaturiko indarrek edo pertsonal zibilak bere zerbitzuan jardutzeko edo jantoki eta kantinak hornitzeko denean.

d) Beste herrialdeekin edo nazioarteko erakundeekin egindako hitzarmenaren barneko kontsumorako zuzentzen denean, beti ere, hitzarmen horrek balio erantsiari buruzko Zerga salbuespena onartu edo baimentzen duen bitartean.

e) Ondoren aipatzen diren itsasuntzien horniketarako, jolaserako nabigazio pribatua zerrendatik kanpo gelditzen direla:

   1. Nazioarteko itsas nabigazioa egiten dutenak.

   2. Itsas salbamendu edo laguntza eskaintzen dutenak, baina horniketa, nabigazioak, eskalarik egin gabe, berrogeita zortzi ordu baino gehiago irauten ez duenean.

f) Ondoren aipatzen diren nazioarteko nabigazioa egiten duten aireontzien horniketarako, zerrenda honetan ez da jolaserako hegazkintza pribatua sartzen.

g) (48) Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuak, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko, betiere indar horiek Batasunaren jarduera bat gauzatzeko segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan egindako defentsa ahalegin bati lotuta badaude

**2.** Araudiak aurreko ataleko salbuespenei buruz ezarritakoari jarraituz, honezkero ordaindutako zergak itzuli daitezke, eta baita, itzuli beharreko kuotaren prezioa, eskuraketa-prezio gisako portzentaian zehaztu daiteke, beti ere, aurreko epealditan kuota eta prezio horiek lorturiko baloreen arabera.

**10. artikulua.- Itzulketak.**

**1.** Arau Dekretu honen 9., 17., 22., 23., 40., 43., 52. eta 62. artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe, eta araudiak ezarritako baldintzak betez, ondokoek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien itzulketarako eskubidea izango dute:

a) Honako produktuak esportatzen dituztenek: aipaturiko zergak aplikatzen direneko produktuak, edo bestelako produktuak, hain zuzen, aipaturiko zergak aplikatzen direneko produktuak barne dituztenek. Izan ere, aurretik ordaindutako produktu esportatuen gaineko zergari dagokiona itzuliko zaie.

b) Aipaturiko zergak aplikatzen ez direneko produktuak eta ezta, euren barne dituzten bestelako produktuak ere, baina produzitzeko zuzenean edo zeharbidez, zerga horiek aplikatu diren kontsumitutako produktuak esportatzen dituztenek. Itzulketa, aurretik ordaindutako kuotak ordaindu direla egiaztatzean emango da, kontuan hartu gabe edo erabilitako produktuen prezioarekin batera, hain zuzen, esportatutako produktuei

dagokiena. Ez dute itzulketarako eskubiderik izango, erregai edo karburante gisa erabilitako produktuek.

c) (49) Barneko lurralde esparruan zerga sortarazi duten fabrikazioaren gaineko zerga bereziei lotutako produktuak fabrika batean edo gordailu fiskal batean sartzen dituzten enpresariek, geroago Europar Batasuneko beste estatu kide batera bidaliak izateko asmoz. Itzulketak sartutako produktuei dagokien kuota bere baitan hartzen du eta estatu hartzaileak jaso izanaren egiaztatzearen arabera baldintzatua dago, beti ere, etendura araubidean elkarteen arteko zirkulazioa arautzen duen araudiari jarraituz.

d) (49) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargupeko produktuak Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dauden hartzaile ziurtatuei entregatzen dizkieten enpresariek, beti ere, zerga barneko lurralde eremuan sortu bada. Itzulketak entregatutako produktuei dagokien kuotak hartzen ditu barne eta estatu hartzailean zerga ordaindu beharko da.

e) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuak, Europako Ekonomi Elkartearen Espainia ez den beste estatu kide baten helbideratua dauden pertsonei bidali edo garraiatu dizkien enpresarioek, haiek eurak edo agindutako norbaitek zuzenean edo zeharbidez., beti ere, zerga barneko lurralde eremuan sortu bada eta urruneko salmenten elkarteen arteko zirkulazio sistemaren barruan. Itzulketak, bidali edo garraiaturiko produktuei dagokien kuotak hartzen ditu bere barne eta estatu jasotzailean zerga ordaindu beharko da. Produktuak lantegi edo zerga gordailu batetik bidaliko balira, itzulketa araudiak ezarritako konpentsazio automatikoaren bidez egingo litzateke.

**2.** Arau dekretu honek jasotzen dituen itzulketa kasu guztietan, itzulitako kuoten zenbatekoa ordaindutakoen berdinak izango dira. Hala ere, zenbatekoa zehaztea posiblez ez balitz, itzulketarako eskubidea lortzeko operazioa egin baino hiru hilabete arinago indarrean zegoen tipoa aplikatuko litzateke, eta horrela kuoten zenbatekoa zehaztuko litzateke.

**3.** Arau dekretu honek jasotzen dituen itzulketa kasu guztietan, Zergaren behin-behineko itzulketak egingo dira. Behin-behineko kitapenak, behi-betikoak bihurtuko dira, ikuskatzailetzak egindako egiaztapenaren ondorioz edo itzulketarako eskubidea lortzeko operazioa egin eta bost urteko epean egiaztatzen ez badira.

**11. artikulua.- (28) Etendura araubidea azkentzea.**

23, 28 eta 37. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, etendura araubidea ondoko kasuetan azkenduko da, arau bidez ezarritako baldintzak betez gero:

a) Zergaren sortzapena eragiten duen zerbait gertatuz gero.

b) Produktuak esportatzen direnean.

**12. artikulua.- Oinarrien zehaztapena.**

**1.** Arau Dekretu honen 40. artikuluak ezarritakoari kalterik egin gabe, oinarri zergagarriak zuzeneko estimazio-araubidearen bidez egingo da.

**2.** (13) Zerga-oinarrien zeharkako zenbatespena Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean adierazitako kasuetan eta moduan aplikatu ahal izango da.

**13. artikulua.- Tipo ezargarriak.**

**1.** Zerga sortutako unean indarrean dauden tipo ezargarriak aplikatuko dira.

**2.** (28) Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, dekretu honetako 17.A).2 artikuluan aipatzen diren kasuetan produktuak bidaltzen direnean indarrean dagoen tasa aplikatuko da.

**14. artikulua.- Oihartzuna.**

**1.** (40) Subjektu pasiboek sortutako kuoten zenbatekoa jasanaraziko diete fabrikazioaren gaineko zerga bereziak dituzten gaien erosleei, eta azken horiek jasatera behartuta daude.

(43) Araugintzako dekretu honen 50.4 artikuluan azaltzen den bezala egiten diren gas naturalaren hornikuntzetan, sortutako kuoten zenbatekoa azken kontsumitzaileak adierazitako behin-behineko ehuneko baten arabera jasanarazten duten subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute gas naturalaren helburuko behin betiko ehunekoaren arabera, horren berri jakin eta gero. Horretarako prozedura arautegian ezarriko da.

**2.** Esekipen araubidean, fabrikazioa, transformazioa edo biltegiraketa inoren aginduz egiten badira, subjektu pasiboek sortutako kuoten zenbatekoaren oihartzuna izan beharko dute operazioak egiten dituenaren gainean.

**3.** Ikuskaritzak egindako akten ondorioz sortutako kitapenetan eta oinarrien zuzeneko estimazioetan, ez da kuoten oihartzunik egin beharko.

**4.** (13) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien subjektu pasiboek, dagozkien zerga-kuotak ordainduz gero, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 75 eta 77. artikuluetan Herri Ogasunari ematen zaizkion eskubide eta berme berberak izango dituzte zerga-kuota horien jasanarazpena pairatu beharra dutenekiko, eta mugaeguneratutako baina jasanarazpena pairatu beharra dutenek ordaindu gabeko kredituetan sartutako zenbatekoari dagokionez.

**15. artikulua.- Fabrikazioa, transformazioa eta ukantza.**

**1.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuak lantegietan fabrikatuko dira, beti ere, esekipen araubidean.

**2.** Aurreko atalak ezarritakoaz gain, desnaturalizazioa edo marratzaile eta markatzaileak gehitzeko operazioak, zerga gordailuen barnean ere egin ahal izango dira. Halaber, araudiak ezarritako transformazio-operazioak ere egin ahal izango dira.

**3.** Aurreko atal biek ezarritakoaz gain, Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak aplikatzen direneko produktuak lantegi eta zerga gordailuetatik kanpo ere transformatu ahal izango dira, Arau Dekretu honen arabera fabrikazioren kontsiderazioa izan gabe. Hau guztia, produktuei aplikatuko zaien zerga sortu eta gero egingo da eta beti ere, erabilitako produktuetako kuoten zenbateko lortutakoena baino txikiagoa ez bada.

**4.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuen fabrikazioa, transformazioa, manipulazioa, biltegiraketa edo salmenta, eta era berean, operazio guzti horiek egiten diren establezimenduak, etengabeko eskuhartze baten pean egon ahal dira.

**5.** (10) 10.1.c) artikuluan, 22.c) artikuluan eta 40.3 artikuluan, 52.d) artikuluan eta 62.b) artikuluan ezarritakoaz gain, bidaltzaile izateko baimena duen gordailuzainari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hartzaileari entregatu ezin izan zaizkion produktuak jatorrizko establezimendura berriz sartzen badira eta salbuespena aplikatzen zaien produktuak dauden establezimenduaren jarduera bertan behera uzten bada, ezin izango dira fabrikazioaren gaineko zerga berezien menpe dauden produktuak lantegietan eta zerga-gordailuetan sartu, aurretik zerga ordaindu beharra sortu bada.

**6.** Lantegi eta zerga gordailuetan sortzen diren diferentziek, lehengai zein amaituriko produktuetan, araudiak ezarritako portzentaiak gainditzen badituzte, honako Arau Dekretuaren arabera, eta aurkako frogarik izan ezean, fabrikatutako eta lantegitik edo zerga gordailutik irtendako produktuen kontsiderazioa izango dute, eta baita, aipaturiko establezimenduetan autokontsumituak izan direla kontsideratuko da ere.

**7.** (10) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien menpe dauden produktuak zirkulazioan jartzea eta edukitzea, merkataritzako helburuekin bada, Zerga Espainian ordaindu dela edo etenda dagoela (salbuespen baten babespean edo sorrarazitako zerga duen komunitate arteko edo barneko zirkulazio sistema baten babespean) egiaztatzeko arauz ezarritako agiriekin frogatuta egon beharko da, 44. artikuluaren 3. paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita.

(51) Zerga Espainian ordaindu dela egiaztatzeari dagokionez, aurreko baldintza ez da betetzat joko zerga administrazioak dagokion zerga Ogasun Publikoan ordaindu ez dela egiaztatzen duenean.

**8.** (49) Artikulu honen 7. atalak eta 16. artikuluaren 1. atalak ezarritako produktuek jasotzen dituzten produktuak, merkataritzako helburura zuzenduta daudela zehazteko, besteak beste, ondoko elementuak hartuko dira kontuan:

a) Zerga Berezien kargupean dauden produktuen edukitzailearen merkataritza izaera eta zergatik dituen bere esku;

b) Zerga Berezien kargupean dauden aipaturiko produktuak non dauden edo, hala badagokio, erabilitako garraiobidea;

c) Zerga Berezien kargupean dauden produktuei buruzko agiri guztiak;

d) Zerga Berezien kargupeko produktuen izaera;

e) Zerga bereziei lotutako produktu kopurua.

**9.** Aurreko ataleko e) letra aplikatu ahal izateko, produktuek merkatal helburua dutela kontsideratuko da, aurkako froga izan ezean, baldin eta kopurua ondokoak baino handiagoak direnean:

a) Tabakoaren inguruko lanak:

1. Zigarroak, 800 unitate.

2. Zigarroak, 400 unitate.

3. Zigarroak, 200 unitate.

4. Tabakoaren inguruko gainontzeko lanak, kilogramo 1.

b) Edari alkoholikoak:

1. Eratorritako edariak, 10 litro.

2. Bitarteko produktuak, 20 litro.

3. Ardo eta hartzitutako edariak, 90 litro.

4. Garagardoak, 110 litro.

**10.** (49) Hidrokarburoen gaineko Zerga aplikatzen direneko produktuei dagokienez, merkatal helburua dutela kontsideratuko da, berorien garraiobidea ezohikoa denean partikular batek edo haren aginduz egindakoa. Garraiobide atipikoak, besteak beste, ondoren aipatzen direnak dira: karburagaiak ibilgailuaren depositutik kanpo garraiatzea edo horretarako egokiak diren larrialdi-bidoietan ez garraiatzea, eta era berean, erregai likidoak behargin ekonomikoek garraiaturiko kamioi zisternetan ez egitea.

**11.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuen erabilera edo norakoa zehazten ez denean, zeintzuren eraginez eta norakoa kontuan izanik salbuespen edo tipo zergagarri murriztua aplikatu den, produktu horiek honako Arau Dekretuak inolako zerga-onura ezartzen ez duen helburuarekin erabili direla kontsideratuko da.

**16. artikulua.- (28) (49) Batasunaren barruko zirkulazioa.**

**1.** Norbanakoek Batasuneko beste estatu kide baten lurraldean fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak eskuratzen badituzte beren beharrizanak asetzeko, kasuan kasuko indarreko zerga ordainduta, eta gero beraiek garraiatzen badituzte, ez dute barneko lurralde eremuan indarrean dagoen zerga ordaindu behar, eta produktuen zirkulazioak ez dauka inolako baldintzarik eremu horretan, ez eta haien ukantzak ere, merkataritzako xederik tartean izan ezean.

**2.** Zerga berezien kargupeko produktuak erabat suntsitzeak edo modu konponezinean erabat edo partzialkigaltzeak, zerga sortu den estatu kidea ez den estatu kide baten lurraldean garraiatzean, ustekabeko edo ezinbesteko kasu batengatik, edo estatu kide horretako agintari eskudunek produktu horiek suntsitzeko emandako baimenaren ondorioz, ez du zerga berezirik sorraraziko estatu kide horretan.

Produktuak erabat suntsitutzat edo modu konponezinean galdutzat joko dira baldin eta jada ezin badira erabili zerga berezien kargupeko produktu gisa.

Zerga sortu den estatu kidea ez den beste estatu kide bateko lurraldean produktuak garraiatzean horien izaeraren ondorioz galera partziala gertatzen bada, estatu kide horretan ez da zerga berezirik eskatuko galeraren zenbatekoa arauz ezarritako

ehunekoaren azpitik dagoenean, estatu kideko agintari eskudunek iruzurra edo irregulartasuna dagoela frogatzen dutenean izan ezik.

**3.** Aurreko 1. idatz zatian ezarritako kasuak gorabehera, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktuak Batasuneko beste estatu kide bateko lurraldetik heltzen badira edo beste batera badoaz, barneko lurralde eremuko zirkulazioan arau bidez ezarritakoa bete behar da eta ondoko prozedura bati lotu behar zaio:

a) Fabrika edo gordailu fiskalen artean, etendura araubidea.

b) Erregistratutako hartzailebatentzat badira, etendura araubidea.

c) Baimendutako gordailuzain baten titulartasuneko establezimendu batetik Batasunaren lurraldetik irteteko toki batera (dekretu honetako 4. artikuluko 31. idatz zatian zehaztu den bezala), etendura araubidea.

d) Onuradunaren egoitza ez den beste estatu kide baten lurraldeko egoiliarra den gordailuzain baimendu baten establezimendutik Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko 2020/262 Zuzentarauaren (zerga berezien araubide orokorra ezartzen duena) 11.1 artikuluan aipatzen diren helmugetara, etendura araubidea.

e) Baimendutako gordailuzain bat titularra den establezimendutik irteerako aduanara, 2015/2447 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 329. artikuluaren 5. apartatuaren arabera aurreikusten denean abiapuntuko aduana ere izatea kanpo igarotzako araubiderako, hala xedatzen denean 2015/2446 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 189. artikuluaren 4. apartatuan, etendura araubidea. Kasu horretan, etendura araubidea produktuak kanpo igarotzako araubidean sartzen direnean amaituko da.

f) Inportazio tokitik, bidaltzailea erregistratuta dagoela, produktuak jasotzeko baimena eman zaion toki batera, etendura araubidea. Artikulu honen ondorioetarako, «inportazio tokitzat» hartuko da 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikuluaren arabera produktuak zirkulazio askean uzten diren gunea.

g) Baimendutako gordailuzainen zuzeneko entrega gertatzen den tokira, etendura araubidea.

h) Hartzaile ziurtatu batentzat, etendura araubidetik kanpo.

i) Urruneko salmenten sisteman, etendura araubidetik kanpo.

**4.** Batasunaren barruko zirkulazioa kasu batean bakarrik egingo da etendura araubidean, hain zuzen ere arau bidez ezarritakoaren arabera izapidetutako administrazio agiri elektroniko baten itzalpean. Nolanahi ere, halako kasuetan zirkulazioari larrialdiko laguntza-agiriarekin ekin dakioke sistema informatikoa ez badabil, beti ere arauzko baldintzei lotuta.

**17. artikulua.- (28) (49) Irregulartasunak Batasunaren barruko zirkulazioan.**

Batasuneko bi estatu kideren arteko zirkulazio batean, edo Batasuneko estatu kide baten eta hirugarren herrialde edo lurralde baten artekoan (produktuak Batasuneko beste estatu kide batean zehar pasatzen direla), bidalketako fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktu batzuk, edo denak, ez badira heltzen hartzailearen eskuetara

(Batasuneko lurraldean) edo (esportazioetan) ez badira irteten Batasuneko lurraldetik, eta arrazoia, dekretu honetako 6. artikuluan edo 16. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoaren arabera, ez bada zerga berezien kargapean ez egotea eragiten dutenetako bat, irregulartasuna gertatu dela pentsatuko da.

**A)** Zirkulazioa etendura araubidean.

**1.** Baldin eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktuen Batasunaren barruko zirkulazio batean, etendura araubidea aplikatzen dela:

a) Irregulartasun bat gertatzen bada barneko lurralde eremuan eta horrek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien sortzapena eragiten badu, zerga zorra Espainiako Zerga Administrazioak eskatuko du.

b) Irregulartasun bat gertatzen bada, horrek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien sortzapena eragiten badu eta ezin bada zehaztu Batasuneko zein estatutan gertatu den irregulartasuna, eta gainera barneko lurralde eremuan gertatu dela detektatzen bada, irregulartasuna bertan eta ikusi den unean gertatutzat joko da, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu.

**2.** Barneko lurralde eremutik etendura araubidean zirkulatzen duten zerga berezien kargupeko produktuak helmugara iritsi ez badira eta zirkulazioan ez bada antzematen zerga berezien sortzapena eragiten duen irregulartasunik, bidalketako estatu kidean irregulartasuna gertatu dela joko da, eta zerga bereziak Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahalko ditu, ondoko kasuan izan ezik: zirkulazioa hasten denetik lau hilabeteko epean, Administrazio horri behar bezala frogatzen bazaio produktuak hartzaileari entregatu zaizkiola edo irregulartasuna barneko lurralde eremutik kanpo gertatu dela.

**3.** Aurreko 1. idatz zatiko a) eta b) letretako kasuetan, Espainiako Zerga Administrazioak bidalketa egin den Batasuneko estatuko agintaritza eskudunari emango dio irregulartasunaren berri.

**4.** Hala ere, 1. idatz zatiko b) letran edo 2. idatz zatian ezarritako kasuetan, baldin eta zirkulazioa hasten denetik hiru urte pasatu baino lehen zehazten bada Batasuneko zein estatutan (Espainia ez beste bat) gertatu den benetan irregulartasuna, Zerga Bereziak estatu kide horrek eskatu ahal izango ditu. Hala gertatzen denean, Espainiako Zerga Administrazioak Zerga Bereziengatik jasotako kopuruak itzuliko ditu, irregulartasuna gertatu den Batasuneko estatuak jaso dituela frogatuz gero.

**5.** Aurreko 1. idatz zatiko b) letran edo 2. idatz zatian ezarritakoen antzeko kasuetan, baldin eta irregulartasuna Batasunaren lurraldean baina barneko lurralde eremutik kanpo gertatu dela uste bada zirkulazioa hasi denetik hiru urte pasatu baino lehen eta gero egiaztatzen bada barneko lurralde eremuan gertatu dela, Zerga Bereziak Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango ditu, eta honek horren berri emango dio zerga horiek ordaindu diren estatu kideko agintaritza eskudunari.

**B)** Zirkulazio etendura araubidetik kanpo.

**1.** Baldin eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktu batzuen Batasunaren barruko zirkulazioan, bidalketa gertatu den Batasuneko estatu kidean (barneko lurralde eremutik kanpo), zerga zorra ordaindu dela:

a) Irregulartasun bat gertatzen bada barneko lurralde eremuan eta horrek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien sortzapena eragiten badu, zerga zorra Espainiako Zerga Administrazioak eskatuko du.

b) Irregulartasun bat gertatzen bada, horrek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien sortzapena eragiten badu eta ezin bada zehaztu Batasuneko zein estatu kidetan sortu den irregulartasuna, eta gainera barneko lurralde eremuan sortu dela ikusten bada, irregulartasuna bertan gertatutzat joko da, eta zerga zorra Espainiako Zerga Administrazioak eskatu ahal izango du.

**2.** Hala ere, aurreko 1. idatz zatiko b) letran ezarritako kasuan, baldin eta produktuak eskuratu direnetik hiru urte pasatu baino lehen zehazten bada Batasuneko zein estatu kidetan (Espainia ez beste bat) gertatu den benetan irregulartasuna, Zerga Bereziak estatu kide horrek eskatu ahal izango ditu. Hala gertatzen denean, Espainiako Zerga Administrazioak Zerga Bereziengatik jasotako kopuruak itzuliko ditu, irregulartasuna gertatu den Batasuneko estatuak jaso dituela frogatuz gero.

**3.** Baldin eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktu batzuek barneko lurralde eremuan zerga zorra sortu badute, handik Batasuneko beste lurralde batera (barneko lurralde eremutik kanpo) bidaltzen badira, bidalketan irregulartasun bat gertatzen bada barneko lurralde eremutik kanpo eta ondorioz Zerga Bereziak irregulartasuna gertatu edo egiaztatu den estatu kideari ordaindu behar bazaizkio, Espainiako Zerga Administrazioak Zerga Bereziengatik jasotako kopuruak itzuliko ditu, irregulartasuna gertatu den Batasuneko estatu kideak jaso dituela frogatuz gero.

**18. artikulua.- Kudeaketarako arau orokorrak.**

**1.** (45) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien subjektu pasiboek eta zerga horiek ordaindu behar dituzten gainerako pertsonek bidezko zerga aitorpenak aurkeztu beharko dituzte eta, behar denean, bidezko autolikidazioak egin beharko dituzte. Gainera, bermeak jarri beharko dituzte zerga beharrei erantzuteko.

**2.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Diputatu Foralak, Arau Dekretu honen testuko NK kodeei buruz egindako aipamenak gaurkotuko ditu, beti ere nomenklatura konbinatuaren egituran aldaketak egonez gero.

**3.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktu suntsikorrak, zeintzuen zergak tipo ezartzaile desberdinak aplikatuta ordaindu diren, batera biltegiratzen direnean, aurkakoa frogatzen ez den bitartean, establezimendura lehenengo sartzen diren produktuak irtetzen lehenengoak izango direla kontsideratuko da.

**4.** (45) Hurrengo idatz zatian xedatzen den salbuespenarekin, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du fabrikazioaren gaineko zerga berezien subjektu pasiboek eta zerga horiek ordaindu behar dituzten gainerako pertsonek zerga zorra non, nola, noiz eta zer inprimakitan zehaztu eta sartu behar duten.

**5.** (49) Inportazioetan edo sarrera irregularretan, aduanetako araudiak xedatutakoari jarraituz zerga aduanetako zorra likidatzen den eran likidatuko da honako zerga hau ere.

**6.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuak saltzen direnean, soilik produktu horiekin merkataritzan jarduteko legalki gai den pertsona bati esleituko zaio, araudiak ezarritako baldintzak betez.

**7.** Araudiak ondokoak ezarriko ditu:

a) Subjektu pasiboek bermeak eman behar dituzteneko era eta zenbatekoak.

b) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak aplikatzen direneko produktuak fabrikatu,, transformatu, hartu, biltegiratu, merkaturatu eta bidali egiten diren establezimenduen kontrola, etengabeko ikuskaritza barne, nola egingo den.

c) (45) Produktu hauen zirkulaziorako eskakizunak eta, bereziki, Batasunaren barruko zirkulaziorako agiriak erabiltzeko baldintzak.

d) Fabrikazio eta transformazio prozesuetan eta baita, biltegiraketa eta garraiotze prozesuetan ere, galeren portzentaia onargarriak, beti ere, esekipen araubidean.

e) (31) Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak itzultzeko eskabideak aurkezteko epeak.

**19. artikulua.- (13) Arau-hausteak eta zehapenak.**

**1.** Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien arloko arau-hausteen eta zehapenen erregimenean aginduzko izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa, zerga-presako dekretu arauemaile honetan zerga bakoitzari buruz ezarritako arau bereziak, eta hurrengo idatz-zatietan dauden arauak.

Bereziki, zerga-presako dekretu arauemaile honetan xedatutakoaren arabera ezartzen diren zehapenak norbaiten zerga-egoeraren erregularizazioaren ondorio direnean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan aipatzen den murrizketa aplikatu ahal izango da.

**2.** (45) Hauexek dira zerga berezien arloko arau hausteak:

a) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak fabrikatzea eta inportatzea zerga premiazko araugintzako dekretu honetan eta beraren arautegian ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete gabe.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak Batasunaren barruan zirkulatzea saltzeko asmoarekin, baldin eta, agiri elektroniko baten itzalpean egin behar dela, agintaritza eskudunak emandako erreferentziazko kode administratiboa falta bada.

c) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuak edukitzea saltzeko asmoarekin, baldin eta ez bada frogatzen sortutako karga ordaindu dela, etendura araubidea aplikatzen dela edo salbuetsita dagoela.

**3.** (45) Aurreko zenbakiko a), b) eta c) letretan aipatzen diren arau hausteengatik produktuen kopuruari dagokion kuotaren ehuneko 100eko isuna ezarriko da; kuotak kalkulatzeko, arau haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen tasa aplikatuko da. Isuna 1.200 eurokoa izango da gutxienez.

Zergen arloko arau hausteak behin eta berriro egiten badira, aurreko paragrafoetan ezartzen denaren araberako isunari ehuneko 25 gehituko zaio. Arau hausteak behin eta berriro egitea izango da aurreko 2. zenbakian ezartzen diren debekuetako bat

hausteagatik administrazio bidean irmoa den ebazpenaren bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

**4.** Gainera, ondoko zehapen hauek ezarri ahal izango dira zergen arloko arau-hausteengatik:

a) Arau-hausleak titular diren establezimenduak aldi baterako, sei hilabeterako, ixtea (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabaki behar du) edo behin betiko ixtea (erabaki hau Foru Aldundiak hartu behar du). Establezimendu bat behin betiko ixtea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari establezimendua aldi baterako ixtea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez, izaera bereko arau-hauste batengatik.

b) Arau-haustea salmenta automatikorako aparatuen bidez egiten bada, haiek sei hilabetez prezintatzea edota behin betiko inkautatzea. Salmenta automatikorako aparatu bat behin betiko inkautatzea erabaki daiteke aurreko bi urteetan arau-hausleari hura prezintatzea ekarri duen zehapena ezarri bazaio administrazio-bideko ebazpen irmo bidez, aparatu horrekin izaera bereko arau-hauste bat egiteagatik.

   Letra honetan aipatutako zehapenak ezartzeko, arau-hausletzat hartuko dira bai salmenta automatikorako aparatuaren titularra bai hura jarrita dagoen establezimenduaren titularra.

   Ondoko c) letran ezarritako kasuetan salbu, zehapen hauek zehapen nagusia jartzeko eskumena izan duen organo berak ezarriko ditu.

c) Hala ere, b) letrako zehapenak aurreko a) letran ezarritakoei pilatzen zaizkienean, salmenta automatikorako aparatua behin betiko inkautatuko da, baldin eta establezimendua behin betiko ixtea erabakitzen bada. Pilaketa hau gertatzen den kasuetan, a) letran aipatutako organoek ezarriko dituzte zehapenak.

**5.** (36) (45) Zergen arloko arau haustea da fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden produktuak saltzeko asmoarekin zirkulatzea Batasunaren barruan, zirkulaziorako behar diren arauzko dokumentuetan funtsezko daturen bat falta dela edo oker dagoela. Arau hauste hau egiteagatik diru zehapena ezarriko da: zirkulazioan dauden produktuei dagokien kuotaren ehuneko 10 (600 euro gutxienez).

Honako hauek dira zirkulazio dokumentuetako funtsezko datuak:

1. Garraiatzen ari den salgaia behar bezala identifikatzeko (zer den eta zenbat dagoen) behar diren datuak.

2. Bidaltzailea, hartzailea eta produktuak zuzen identifikatzeko behar diren datuak, zirkulazio dokumentuaren zenbakia barne.

3. Zirkulazio zigilurik egonez gero, bakoitzaren zenbakia edo edukiera, eta ezarrita dagoen ontziarekiko korrespondentzia.

4. Bidalketa noiz hasi den (data).

**6.** (36) (45) Zergen arloko araua haustea izango da zerga markarik edo ezagutzekorik ez daukaten edariak edo tabako laboreak edukitzea saltzeko asmoarekin, baldin eta marka hori araudiaren arabera beharrezkoa bada, honako kasu honetan izan ezik: jokabide horri 2. idatz zatian ezartzen dena aplikatu behar bazaio. Arau hauste egiteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) 150 euroko isuna arau hausleak saltzeko asmoarekin dauzkan markarik gabeko 1.000 zigarretako; arau hauste bakoitzaren isuna 600 eurokoa izango da gutxienez.

b) 10 euroko isuna arau hausleak saltzeko asmoarekin daukan markarik gabeko edari eratorri litroko; arau hauste bakoitzaren isuna 600 eurokoa izango da gutxienez.

Aurreko a) eta b) letretan ezartzen diren zehapenak ehuneko 25 gehituko dira arau haustea behin baino gehiagotan eginez gero. Arau haustea behin baino gehiagotan egitea izango da zenbaki honetan ezartzen diren arau hausteak egiteagatik administrazio bidean irmoa den ebazpenaren bidez zehapena ezarri eta hurrengo bi urteetan beste bat egitea.

**7.** (45) Zergen arloko arau haustea da zerga marka faltsuak, konponduak edo berreskuratuak edukitzea. Arau hauste hau egiteagatik diru zehapen finkoa ezarriko da: 10 euro zerga marka faltsu, konpondu edo berreskuratu bakoitzeko.

## II. KAPITULUA
## ALKOHOLA ETA EDARI ALKOHOLIKOEN GAINEKO ZERGA BEREZIEN AMANKOMUNEKO XEDAPENAK

### 20. artikulua.- Kontzeptuak eta definizioak.

Alkohola eta edari alkoholikoen gaineko Zerga Berezien eraginetarako, ondoko definizioak ematen dira:

**1.** "Alkohola". Alkohol etilikoa edo etanol, eta sailkatua dago 2207 edo 2208 kodeen bitartez.

**2.** "Guztiz desnaturalizatutako alkohola". Alor horretan onesten diren substantzia desnaturalizanteak dituen alkohola, gutxienez zehazten den proportzioan, eta somagarri den modu batez, usainmenaren, kolorearen era dastamenaren ezaugarri organoleptikoak aldatzen dituenak. Ondorioz, irensketaren bitartez giza-kontsumorako desegokia bihurtzen da.

**3.** "Zatika desnaturalizatutako alkohola". Alor horretan onesten diren substantzia desnaturalizanteak dituen alkohola, gutxienez zehazten den proportzioan, irensketaren bitartez giza-kontsumorako desegokia bihurtuz. Era berean, bere erabilera industri prozesu zehatz batetan, araudiak ezarritako era eta baldintzak betez, baimendua izan denean.

**4.** "Edari alkoholikoa". %1,2-ko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoa ez duen edaria.

**5.** "Uztagina". Bere kabuz, ardoa egiteko jarduera duen pertsona fisikoa eta aldiberean, mahatsak izanik, mahats-lapetatik eratortzen den alkohola edo eratorritako edaria egiteko mahaztiaren jabea dena.

**6.** "Esku-langile distiladorea". Etenka zuzeneko distilazioaren bidez egindako edari eratorriak egiten dituena. Prozesu hau, alanbike eta pareko beste distilatzeko tresnen bidez egiten da eta urteko alkohol gordinaren produkzioa 10 hektolitro baino txikiagoa izan behar da.

**7.** "Garagardoan jatorria duen aintzineko muztioaren aterakin lehorra". Maltaren eta beste baimendutako produktuen ehotaldiaren ondorioz sortzen den materia natural lehorra eta enzimen irensketa dela medio, muztioan lortzen den azukredun kontzentratua lortzen da, eta alkoholaren hartziduraren bidez garagardoa sortzen da.

**8.** "Alkohol gradu bolumetrikoa". Produktuaren 100 bolumenetan 20ºCko tenperaturan dagoen alkohol gordin kopurua.

**9.** "Platu gradua". 10 gramo muztioan 20ºCtako tenperaturan dagoen garagardoan jatorria duen aintzineko muztioaren aterakin lehor kopurua gramotan.

**21. artikulua.- Salbuespenak.**

9. artikuluak aipaturiko operazioez gain, eta beti ere, araudiak ezarritako baldintzak betez, ondoko hauek ere salbuetsita gelditiko dira:

**1.** (7) Ozpina egiteko alkoholaren eta edari alkoholdunen fabrikazio eta esportazioa. Ozpintzat hartuko da NC 2209 kodean sailkatutako produktua.

Salbuespena aplikatzeko, nekazaritza jatorria duen alkohol destilatua erabiltzen den kasuetan, alkohol horrek, marka moduan, alkohol ozpina izan beharko du, araudian ezarritako baldintzak eta portzentajeak betez.

**2.** (49) Ondoko edari alkoholikoen inportazioa:

a) (24) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariek aldean darama-tzatenak, ondoko muga hauekin:

   1. Litro bat alkohol edo edari eratorri; edo

   2. Bi litro tarteko produktu edo ardo apardun eta edari hartzitu; eta

   3. Lau litro ardo arrunt eta hamasei litro garagardo.

b) Hirugarren herrialde batetik partikular batek beste partikular bati igortzen dizkion bidalketa txikiak, inolako ordainketarik egon gabe eta aipatzen diren honako muga hauekin:

   1. Alkohol edo eratorritako edari alkoholikoa duen litro bateko botila; edo

   2. Bitarteko produktu edo ardo edo hartzitutako bisdun edaria duen litro bateko botila, eta

3. Bi litro ardo arrunt eta bi litro hartzitutako edari arrunt

**3.** (28) Zergarik gabeko dendetan saltzeko diren edari alkoholdunak, hain zuzen ere hegazkinez edo itsasontziz beste herrialde edo lurralde batera (Kanaria uharteak ez beste batera) doazen bidaiariek beren bagajean eramango dituztenak.

**22. artikulua.- Itzulketak.**

Zergaren itzulketa araudiak ezarritako baldintzen arabera egingo da, 10. artikuluak jasotzen dituen kasuetaz gain, ondoko kasuetan ere:

a) Alkohola eta edari alkoholikoak jaki eta edari alkoholikoak egiteko, lurrina emateko prestakuntzan erabiltzen direnean.

b) Alkohola eta edari alkoholikoak zuzenean edo erdilandutako produktuen osagai bezala erabiltzen direnean, produktu beteak edo bestelakoak egiteko. Beti ere, bonboien kasuan, alkohol kopurua, 100 kilogramo produktuan alkohol gordineko 8,5 litrokoa baino handiagoa ez denean eta 100 kilogramo produktuan berriz, 5 litrokoa baino handiagoa ez denean.

c) Giza-kontsumorako egoki ziren edari alkoholikoak desegokiak bilakatzen direnean, lantegi edo zerga-gordailura itzultzen dira, eta era berean, beroriek suntsitu egiten dira.

**23. artikulua.- Kanariekin loturiko xedapen partikularrak.**

**1.** Garagardo, Bitarteko Produktu eta Alkohola eta Eratorritako Edarien gaineko Zergak aplikatzen direneko produktuak Penintsulan edo Baleareetako irletan sartzen direnean, eta Kanarietan produktu zerga sortuta, sartzeko unean lurralde horietako tipo zergagarriak aplikatu ondoren lorturiko kuotak kitatu eta sartuko dira.

**2.** (49) 10. eta 43. artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe, Penintsula eta Balear uharteetatik Kanarietara bidalitako Garagardo, Bitarteko Produktu eta Alkohola eta Eratorritako Edarien gaineko Zergak aplikatzen direneko produktuak bidaltzen dituztenek zatikako edo itzulketa osoa egiteko eskubidea izango dute; beti ere, araudiak ezarritako baldintzak betez. Horrenbestez, bidalketa hasi zen unean lurralde horietako tipo zergagarriak aplikatu ondoren lorturiko kuotak itzuliko dira.

**3.** Garagardoaren gaineko Zerga Kanarietan eskatu ahal izango da, Arau Dekretu honen 26. artikuluak ezarritako tipoen arabera.

**4.** (41) Tarteko produktuen gaineko zergan tasa hauek eskatuko dira Kanarietan:

a) Tarteko produktuak, alkohol gradu bolumetriko bereganatua ehuneko 15 baino handiagoa ez dutenak 100 bolumeneko: 30,14 euro hektolitroko.

b) Gainerako tarteko produktuak: 50,21 euro hektolitroko.

**5.** (41) Alkoholaren eta hortik eratorritako edarien gaineko zergan 750,36 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko tasa eskatuko da Kanarietan; edonola ere, bete egin beharko da zerga premiazko araugintzako dekretu honek 40. eta 41. artikuluetan xedatzen duena.

**6.** Aurreko hiru atalek jasotzen dituzten tipoak, era berdinean aplikatuko zaie, esekipen araubidetik kanpo, Penintsula eta Baleareetako uharteetako lantegi edo zerga-gordailuetatik, Kanarietara bidaltzen diren : garagardoari, bitarteko produktuei eta alkohol eta edari alkoholikoei.

**7.** Zerga-urraketa larriak dira:

a) Artikulu honen 6. atalean aipatzen diren produktuak Kanarietan sartzea, Arau dekretu eta bere araudiaren baldintza eta eskakizunak bete gabe. Zigorra sartutako produktu kopuruari dagokion kuoten hirukoitzeko isuna izango da, eta kuotak, artikulu honen 4., 5. eta 6. ataletan jasotzen diren zigorra aurkitzen denean indarrean dauden tipo zergagarriak aplikatuta kalkulatuko dira.

b) Artikulu honen 1. atalean aipatzen diren produktuak Penintsula eta Baleareetako uharteetan sartzea, Arau dekretu eta bere araudiaren baldintza eta eskakizunak bete gabe. Zigorra sartutako produktu kopuruari dagokion kuoten hirukoitzeko isuna izango da, eta kuotak, produktuak bidaltzean aipaturiko lurraldeen arteko tipo zergagarrien diferentzia aplikatuta kalkulatuko dira.

## III. KAPITULUA
## GARAGARDOAREN GAINEKO ZERGA

### 24. artikulua.- Eremu objektiboa.

**1.** Garagardoaren gaineko Zergaren eremu objektiboa, garagardoak eta garagardoa eta 2206 NK duten beste edari alkoholikoekin nahastutako produktuek osatzen dute. Beti ere, kasu bietan, alkohol gradu bolumetrikoa % 0,5 baino handiagoa izanik.

**2.** Arau Dekretu honen arabera, garagardoa 2203 NK duen produktua da.

### 25. artikulua.- Oinarri zergagarria.

Oinarria, zergaren eremu objektiboaren barne dagoen produktu-bolumena da eta 20º Ctako tenperaturan produktu amaituaren hektolitrotan adierazten da.

### 26. artikulua.- (14) Zerga-tasak.

**1.** Zerga honen menpe dauden produktuei ondorengo epigrafeetan azaltzen diren zerga-tasak aplikatuko zaizkie:

| | |
|---|---|
| 1.a) epigrafea | Gehienez % 1,2ko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 0 euro hektolitro bakoitzeko. |
| 1.b) epigrafea | % 1,2 eta % 2,8 bitarteko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 2,75 euro hektolitro bakoitzeko. |

| | |
|---|---|
| 2 epigrafea | % 2,8 baino gehiagoko alkohol-gradu bolumetrikoa eta 11 baino gutxiagoko Plato-gradua duten produktuak: 7,48 euro hektolitro bakoitzeko. |
| 3 epigrafea | 11 eta 15 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 9,96 euro hektolitro bakoitzeko. |
| 4 epigrafea | 15 eta 19 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 13,56 euro hektolitro bakoitzeko. |
| 5 epigrafea | 19 baino gehiagoko Plato-gradua duten produktuak: 0,91 euro hektolitro bakoitzeko eta Plato-gradu bakoitzeko. |

**2.** Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, Plato-gradua zehazterakoan 0,2 graduko tolerantzia ere onartuko da.

## IV. KAPITULUA
## ARDO ETA HARTZITUTAKO EDARIEN GAINEKO ZERGA

### 27. artikulua.- Eremu objektiboa.

**1.** Zergaren eremu objektiboa ondoko hauen osatzen dute: ardo lasaia, bisduna, hartzitutako edari lasaiak eta hartzitutako edari bisdunak.

**2.** Arau Dekretu honen eraginetarako, ardo lasaiak 2204 eta 2205 NK kodeak dituzten produktu guztiak kontsideratuko dira, salbu ondoko graduazioa duten ardo bisdunak:

a) % 1,2ko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoa eta %15ekoa edo txikiagoa, beti ere, amaitutako produktuaren alkohol edukia hartziduratik eratorria bada.

b) %15eko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoa eta % 18koa edo txikiagoa, beti ere, graduazio artifizialik izan gabe eta amaitutako produktuaren alkohol edukia hartziduratik eratorria bada.

**3.** (49) Araugintzako Dekretu honen eraginetarako, ardo bisdunak 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09 eta 2205 NK kodeak dituzten produktu guztiak kontsideratuko dira, beti ere:

a) Txanpinoi erako lotuta dauden tapoidun botiletan enbasatuta daudenean edo 3 tabernetako anhidrido karboniko kopuruak eragindako gainpresioa dutenean, eta

b) % 1,2ko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoko graduazioa dutenean eta%15ekoa edo txikiagoa, beti ere, amaitutako produktuaren alkohol edukia hartziduratik eratorria bada.

**4.** Arau Dekretu honen eraginetarako, hartzitutako edari lasaiak 2204 eta 2205 NK kodeak dituzten produktuak kontsideratuko dira, eta era berean 2. eta 3. ataletan jasotzen ez direnak eta 2206 NK kodea dutenak ere. Talde horretatik kanpo, ondoko graduazioa duten hartzitutako edari bisdunak eta Garagardoaren gaineko Zergaren eremu objektiboak daude:

a) % 1,2ko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoa eta % 5,5ekoa edo txikiagoa, edo

b) % 5,5eko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoa eta % 15ekoa edo txikiagoa, beti ere, produktuaren alkohol edukia hartziduratik eratorria bada.

**5.** (49) Araugintzako Dekretu honen eraginetarako, hartzitutako edari bisdunak 2206.00.31 eta 2206.00.39 NK kodeak dituzten produktuak kontsideratuko dira, eta era berean 2. eta 3. ataletan jasotzen ez direnak eta 2204.10, 2204.21.06, 2204.21.07, 2204.21.08, 2204.21.09, 2204.29.10 eta 2205 NK kodeak dituztenak ere, beti ere:

a) Txanpinoi erako lotuta dauden tapoidun botiletan enbasatuta daudenean edo 3 tabernetako anhidrido karboniko kopuruak eragindako gainpresioa dutenean, eta

b) % 1,2ko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoko graduazioa dutenean eta % 8,5ekoa edo txikiagoa, edo

c) % 8,5eko alkohol gradu bolumetrikoa baino handiagoko graduazioa eta % 15ekoa edo txikiagoa, beti ere, produktuaren alkohol edukia hartziduratik eratorria bada.

**28. artikulua.- Sortzapena.**

Arau dekretu honen 7. eta 11. artikuluek ezarritakoaz gain, Ardo eta Hartzitutako Edarien gaineko Zergaren sortzapena, bitarteko produktuen lantegietan esekipen araubidean jasotako eta honako Dekretu Arauaren 32. artikuluak aipatzen duen produktuen fabrikazioan erabilitako ardoarekiko, aipaturiko bitarteko produktu horiek irtetzen direnean. Guztia, barneko lurralde eremuko lantegi edo zerga gordailuetan sartuz, esekipen araubidea jarraitu gabe.

**29. artikulua.- Oinarri zergagarria.**

Oinarria, zergaren eremu objektiboaren barne dagoen produktu-bolumena da eta 20º Ctako tenperaturan produktu amaituaren hektolitrotan adierazia.

**30. artikulua.- Tipo ezargarriak.**

Zerga eremu objektiboaren produktuen arabera eskatuko da, ondoko epigrafeak kontuan hartuz:

1. epigrafea. Ardo lasaiak. 0 pta hektolitroko.

2. epigrafea. Ardo apardunak. 0 pta hektolitroko.

3. epigrafea. Edari hartzitu lasaiak. 0 pta hektolitroko.

4. epigrafea. Edari hartzitu apardunak. 0 pta hektolitroko.

## V. KAPITULUA
## TARTEKO PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA

**31. artikulua.- Esparru objektiboa.**

Arau Dekretu honen ondorioetarako, tarteko produktutzat hartuko dira % 1,2 bol. baino gehiago eta % 22 bol. edo gradu alkoholiko bolumetriko bereganatu gutxiago duten produktu guztiak, NC 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkatuak badira eta ez badaude Garagardoaren gaineko Zergaren esparru objetiboaren barruan, ezta Ardoa eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren barruan ere.

**32. artikulua.- Zergapetu gabeko kasuak.**

Arau dekretu honetako 6. artikuluan jasotako kasuez gain, ez da Tarteko Produktuen gaineko Zergari lotuta egongo, Moriles-Montilla, Tarragona, Priorato eta Terra Alta jatorri deituraz produktu horiek fabrikatzea ere, gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua%1 bol. baino gehiago ez handitzeko moduan alkohola gehitzen denean, baldin eta erregalamenduz ezarritako baldintzak beteta fabrikatzen bada.

**33. artikulua.- Oinarri ezargarria.**

Oinarri ezargarria Zerga honen esparru objetiboaren barruko produktuen bolumenaz egongo da osatua, produktu amaitua 20º C-ko tenperaturan hektolitrotan adierazita.

**34. artikulua.- (41) Zerga tasa.**

23. artikuluak xedatzen duena gorabehera, tasa hauek ordaindu beharko dira zergan:

a) Tarteko produktuak, alkohol gradu bolumetriko bereganatua ehuneko 15 baino handiagoa ez dutenak 100 bolumeneko: 38,48 euro hektolitroko.

b) Gainerako tarteko produktuak: 64,13 euro hektolitroko.

**35. artikulua.- (13) Arau-hausteak eta zehapenak.**

Zergen arloko arau-hausteak izango dira:

a) Tarteko produktuen fabriketako ardoen edo hartzitutako edarien edo haietan erabilitako produktuen bolumeneko alkohol-gradua behar baino handiagoa izatea.

   Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna. Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

b) Fabrikazio-prozesuan dauden tarteko produktuek, fabrikako izakinek edo handik irtendako produktuek hartutako bolumeneko alkohol-gradua behar baino txikiagoa izatea.

   Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, diferentziari, hektolitro alkohol purutan emanda, dagokion kuotaren %100eko isuna. Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko Zergarako ezarritako zerga-tasa aplikatuko da.

c) Tarteko produktuen fabriketan, alkohola zein eratorritako edariak ez beste lehengaietan arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea.

Zehapena isuna izango da; hain zuzen ere, lehengaiekin egingo ziren tarteko produktuei dagokien kuotaren %100eko isuna. Kontrakoa frogatu ezean, uste izango da lehengaiekin egingo ziren tarteko produktuen hartutako bolumeneko alkohol-gradua %15 baino gehiago izango zela.

## VI. KAPITULUA
## ALKOHOLAREN ETA EDARI DERIBATUEN GAINEKO ZERGA

### 36. artikulua.- Esparru objektiboa.

Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren esparru objetiboa hauxe da:

a) % 1,2 bol.etik gorako gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua duten produktu guztiak, NC 2106.90.20 kodean eta NC 2207 eta 2208 kodeetan sailkatuak badira, produktu horiek 22-a ez den izendapen konbinatuaren kapitulu batean sailkatutako produktu baten parte badira ere.

b) % 22 bol.etik gorako gradu alkoholiko bolumetriko bereganatua duten eta NC 2204, 2205 eta 2206 kodeetan sailkatuak dauden produktuak.

c) Disoluzioan produktu solidorik edo beste landare produkturik daukan alkohola.

### 37. artikulua.- Zerga sortzea.

Foru dekretu honetako 7. eta 11. artikuluetan xedatutakoa xedatua ere, Alkoholaren eta Edari deribatuen gaineko Zerga sortuko da, tarteko produktuen fabriketan suspentsio errejimenean jaso den eta Arau Dekretu honetako 32. artikuluan aipatutako produktuen fabrikazioa erabili den alkoholari dagokionean, tarteko produktu horiek fabrikatik ateratzen diren unean. Suspentsio errejimenarekin ezin izango da jarraitu estatuaren lurralde esparruan kokatutako beste fabriketan edo gordailu fiskaletan produktu horiek sartzen badira.

### 38. artikulua.- Oinarri ezargarria.

Oinarri ezargarria zergari lotutako produktuek daukaten alkohol hutsaren bolumena izango da, 20º C-ko tenperaturan, helektrolitrotan adierazita.

### 39. artikulua.- (41) Zerga tasa.

Zergan 958,94 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko tasa eskatuko da; edonola ere, 23., 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

### 40. artikulua.- Artisau destilazioaren errejimena.

**1.** Artisau destilazioaren errejimena Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zergaren bidezko zerga sistema erraztua da, non artisau destilatzaileak sar baitaitezke, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Errejimen honi aplikatuko zaizkio, artikulu

honetan ezarritakoari aurka egiten ez dioten guztian, Arau Dekretu honetako I. Tituluaren I., II. eta VI. Kapituluetako xedapenak.

**2.** Edari lortuen zerga ordaintzea.

Artisau destilazioaren errejimenean egiten diren edariei tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

a) Artisau destilazioaren errejimenaren lehenengo tarifa.

1. Zergagaia. Destilatzeko tresnen edukiera dago atxikia tarifa honi.

2. Zerga sortzea. Zerga Administrazioari destilatzeko baimena eskatzen zaion unean sortuko da zerga.

3. Subjektu pasiboa. Sujetu pasiboa, zergadun gisa, artisau destilatzailea izango da.

4. Oinarri ezargarria. Oinarri ezargarria, hektolitro alkohol hutsetan adierazia, honela lortuko da: destilatzeko tresna duen galdararen edukierak adierazten duen litro kopurua 0,016 koefizientearekin, destilatzekoa den lehengaitik lortutako gradu alkoholiko bolumetroarekin, bateko hainbestetan adierazita, eta destilatzeko baimena zenbat egunetarako eskatu, kopuru horrexekin biderkatuko da.

5. (41) Zerga tasa. Zergan 839,15 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko tasa eskatuko da. Zerga Kanarietan eskatu behar denean, 653,34 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da zerga tasa. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du eragozten 41. artikuluan ezarritakoa.

b) Artisau destilazioaren errejimenari dagokion bigarren tarifa.

1. Zergagaia. Zuzeneko destilazio etenaren bidez edari deribatuen fabrikazioa egongo da tarifa horri atxikia, artisau destilatzaile batek errejimen honen babesean eginda, lehenengo tarifako oinarri ezargarria baino handiagoa diren zenbatekoetan.

2. Zerga sortzea. Tarifa honi lotutako edari deribatuak fabrikatzen diren unean sortuko da zerga.

3. Subjektu pasiboa. Sujetu pasiboa, zergadun gisa, artisau destilatzailea izango da.

4. Oinarri ezargarria. Errejimen honetako lehenengo tarifako zerga oinarria baino handiagoa duen hektolitro alkohol hutsen kopurua izango da.

5. (41) Zerga tasa. Zergan 839,15 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko tasa eskatuko da. Zerga Kanarietan eskatu behar denean, 653,34 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da zerga tasa. Zenbaki honetan xedatutakoak ez du eragozten 41. artikuluan ezarritakoa.

**3.** Zerga itzultzea.

Arau Dekretu honetako 15.artikuluaren 5 atalean ezarritakoa galerazi gabe, artisau destilatzaileek ekoiztutako edariak, edari deribatuak egiten dituzten beste fabrika batzuetarako egin ahal izango dituzte edariak, eta kasu horietan eskubidea izango dute ordaindutako kuotak itzul dakizkien, erregalamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**4.** (41) Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetandestilatzaile txikiek egindako edari eratorriak sartzea.

Tasa 839,15 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da, Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan dauden ekoizle independenteek egindako edari eratorrien kasuan, baldin eta urteko ekoizpena ez bada alkohol puruko 10 hektolitro baino gehiago. Zerga Kanarietan eskatu behar denean, 653,34 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da zerga tasa.

**5.** (13) Arau-hausteak eta zehapenak:

a) Destilazioan erabiltzen diren lehengaien alkohol-gradua destilatzeko baimenaren eskabidean adierazitakoa baino handiagoa izatea zergen arloko arau-haustetzat joko da. Arau-hauste horrengatik isuna ezarriko da. Horren zenbatekoa zehazteko 35. artikuluko a) letran ezarritako prozedura erabiliko da.

b) Behin eta berriro egiten badira zergen arloko arau-hauste berdintsuak edo dekretu arauemaile honetako 45. artikuluan aipatutako zehapen bereziak dituzten arau-hausteak, honako zehapen hau ezarri ahal izango da, gainera: artisau-destilazioaren erregimena izateko debekua, aldi baterako edo behin betiko.

**41. artikulua.- (41) Urteko ardoen erregimena.**

Artisau destilazioaren erregimenean eskuratu diren edari eratorriak zuzenean fabrikatik eramaten badira urteko ardoak kontsumitzeko, arauek ezartzen duten moduan eta beren baldintzekin, 226,36 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da zerga tasa. Zerga Kanarietan eskatu behar denean, 175,40 euro alkohol puruko hektolitro bakoitzeko izango da zerga tasa. Urteko ardoko alkohol puruko 16 litrori urtean dagokion edari kopuruari baino ez zaizkio aplikatuko zerga tasa horiek.

**42. artikulua.- Salbuespenak.**

Salbuetsiak izango dira, erregalamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, 9. eta 21. artikuluetan aipatzen diren eragiketak ez ezik, honako hauek ere:

**1.** (49) Erabat desnaturalizatua izateko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta erabat desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren bidez, edo, Batasun barneko zirkulazioaren kasuetan, Europako Batasuneko beste estatu kide bateko xedapenekin bat eginez.

**2.** Zati batean desnaturalizatua izateko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea, bai eta zati batean desnaturalizatutako alkohola inportatzea ere, erregalamendu bidez ezartzen den prozeduraren bidez, ondoren gizakiak hartzeko ez beste xedeetarako erabilia izateko.

**3.** Aurreko ataletan aurreikusitako kasuetan, salbuespenaren onura izateko zirkulazioari buruzko obligazioak bete eta alkohol desnaturalizatuen erabilpen edo xedea frogatu egin beharko da.

**4.** (49) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko azaroaren 6ko 2001/82/EE Zuzentarauan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko azaroaren 6ko 2001/83/EE Zuzentarauan aipatutako sendagaiak fabrikatzeko erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea (2001/82/EE Zuzentaraua, albaitaritzako sendagaiei buruzko erkidego kode bat ezarri zuena; 2001/83/EE Zuzentaraua, gizakientzako sendagaietarako erkidego kode bat ezarri zuena).

**5.** Osasun zentruetan erabilia izateko alkohola fabrikatzea eta inportatzea.

**6.** 22-a ez den izendapen konbinatuaren kapitulu batean sailkatuta dauden eta zergari lotuta dauden produktuak inportatzea, barruko lurralde esparruko fabrikazioari Arau Dekretu honetan jasotako salbuespen edo itzulketa kasuetako bat aplikagarria zaionean.

**7.** Alkohola ofizialki onartutako zentruetan fabrikatzea, irakaskuntza eta zientzia ez beste xedeetarako, horietatik kanpo ateratzen ez bada.

**8.** Behar den baimena jasota, zientzia ikerketarako erabiltzen den alkohola fabrikatzea eta inportatzea.

**43. artikulua.- Kuotak itzultzea.**

10. eta 22. artikuluetan jasotako kasuez gain, erregalamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, Zergaren kuota itzultzeko eskubidea onartuko da alkohol desnaturalizatua ezin erabil daitekeen fabrikazio prozesuetan alkohola erabiltzen denean ere, baldin eta alkohola prozesutik ateratzen den produktuari gaineratzen ez bazaio.

**44. artikulua.- Kudeatzeko arau bereziak.**

**1.** Debekatu egiten da alkohola fabrikatzeko tresna mugikorrak erabiltzea.

**2.** Abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoak, kontrabandoa zapaltzeari buruzkoa, 1. artikuluaren 7. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, tresna debekatuak izango dira alkohola destilatzeko edo zuzentzeko tresnak, erregalamendu bidez horiek ekoiztu, salerosi, mugitu eta edukitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean.

**3.** 15. artikuluaren 7. atalean ezarritakoa galerazi gabe, farmaziako espezialitateak eta izen konbinatuen 22-a ez den kapitulu batean sailkatuta dauden eta alkohol erabat edo zati batean desnaturalizatua nahiz 22. eta 42. artikuluetan jasotako salbuespen edo itzulketa kasuetako bat aplikatuz sartu zaien alkohola daukaten produktuak zirkulatzea eta edukitzea, zergari dagokionean, ez daude atxikirik betebehar formal bakar bati ere.

**45. artikulua.- (13) Arau-hausteak eta zehapenak.**

**1.** Ondoren azalduko direnak zergen arloko arau-hausteak izango dira eta bakoitzari berariazko zehapena ezarriko zaio:

a) Arau bidez ezarritako izapideak bete gabe edo aitortutako lan-aldia bukatuta alkohola produzitzen duten aparatuak abian jartzea; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko

da: arau-haustea agerian geratzen den unean indarrean dagoen zerga-oinarria azken lan-aitorpena iraungi denetik aurkikuntza egin arte (3 hilabete gehienez) eten gabe lan eginez produzi daitekeen bolumenari (20 ºC-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) aplikatzearen emaitzako kuotaren %150eko isuna.

b) Alkohola sortzeko aparatu baten prezintua apurtzea, abian jartzeko, edo biltegiko prezintua apurtzea alkohola ateratzeko. Arau-hauste honengatik aurreko idatz-zatiaren arabera kalkulatutako kuotaren %100eko isuna ezarriko da aparatuaren prezintua apurtzen bada eta biltegiaren guztirako edukierari dagokion kuotaren %100eko isuna biltegiaren prezintua apurtzen bada. Horretatik salbu daude Administrazioari aurkikuntza egin aurretik prezintu-apurtzearen berri jakinarazten zaion kasuak.

c) Alkohol-fabriketan, lehengaiek arauz ezarritako alkohol-portzentajeak gainditzea; arau-hauste honen zehapena lehengai horiez fabrika daitekeen alkohol puruaren kopuruari dagokion kuotaren %100eko isuna izango da.

d) Edari eratorriak botilaratzeko baimena duten establezimenduetan botilen 1.000ko 0,5 baino gehiagotan zerga-markarik edo ezagutzeko markarik ez egotea; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da: marka horiekin merkaturatuko ziren edarien alkohol puruaren bolumenari arau-haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzako kuoten %150eko isuna. Kalkuluak egiteko, edarien bolumeneko alhokol-gradua %40 dela suposatuko da eta baliagarri dauden ontzikirik handienak erabili direla.

**2.** Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortzea arau-haustea da; arau-hauste honengatik isun hau ezarriko da, zerga-kuota eskatzea eragotzi gabe: birsortu den alkohol bolumenari (20 ºC-tan dagoen hektolitro alkohol purutan adierazita) arau-haustea agerian geratzen denean indarrean dagoen zerga-tasa aplikatzearen emaitzakoa halako hiru den zenbatekoa. Gainera, zerga-presako dekretu arauemaile honetako 19. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, alkohola birsortu den establezimendua itxi ahal izango da. Erabat edota partzialki desnaturalizatutako alkohola birsortu dela uste izango da beraren erabilera edo destinoa frogatzen ez denean.

## VII. KAPITULUA
## HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGA

### 46. artikulua.- (15) Zergaren helburu-eremua.

**1.** Araugintzako dekretu honen arabera, Hidrokarburoen gaineko Zergaren helburu-eremuak ondoko gaiak hartzen ditu:

a) NC 2705, 2706, 2707, 2709, 2710, 2711, 2712 eta 2715 kodearekin sailkatutako gaiak.

b) NC 2901 eta 2902 kodearekin sailkatutako gaiak.

c) NC 3403 kodearekin sailkatutako gaiak.

d) NC 3811 kodearekin sailkatutako gaiak.

e) NC 3817 kodearekin sailkatutako gaiak.

f) Nekazaritza gaietatik edo landareetatik eratorritako alkohol etilikoa (NC 2207.20.00 kodeduna), baldin eta, bere horretan edo aldaketa edo eraldatze kimiko baten bidez, erregai zereginetan erabiltzen bada.

g) Ondoren aipatzen diren gaiak, baldin eta erregai zereginetan erabiltzen badira:

1. Nekazaritza gaietatik edo landareetatik eratorritako alkohol metilikoa (NC 2905.11.00 kodeduna), baldin eta bere horretan edo aldaketa edo eraldatze kimiko baten bidez erabiltzen bada.

2. (33) NC 1507tik 1518ra arteko kodeetan sailkatutako produktuak, bere horretan erabilita edo kimikoki aldatuta zein transformatuta, baita haietatik abiatuta lorturiko NC 2710.20, 3826.00.10 eta 3826.00.90 kodeetan sailkatutako produktuak ere.

**2.** Zergaren helburu-eremuak ondokoak ere hartzen ditu bere barnean: aurreko paragrafoan jaso ez eta erregai, erregai gehigarri edo zenbait erregairen azken bolumena handitzeko gai gisa erabilitakoak.

**3.** Halaber, Zergaren helburu-eremuak ondokoak ere hartuko ditu bere barnean: erregai gisa erabiliko diren eta 1. paragrafoan adierazten diren hidrokarburoak, ikatza, lignitoa, zohikatza edo beste hidrokarburo solido batzuk izan ezik.

**47. artikulua.- Zergapekoak ez diren kasuak.**

**1.** Zerga ez da ezarriko honako inplikazio hauek dituzten autokontsumo operazioetan:

a) Esekidura erregimenean dauden hidrokarburoen erabilera, karburante edo erregai gisa erabiltzen ez direnean.

b) Esekidura erregimenean hidrokarburoak fabrikatzeko prozesuan hidrokarburoak erregai gisa erabiltzea.

**2.** Elkarte mailako lurralde eremuan, ez barrukoan, kontsumitzeko prest dauden hidrokarburoei, merkatal ibilgailuen depositu normaletan sartuta dauden eta ibilgailu horietarako karburante gisa erabiltzeko helburua dutenei, alde batetik, eta edukinontzi berezietan daudelarik garraioan zehar edukinontzi horietako ekipamendu diren sistemak funtzionatu arazteko helburua dutenei, bestetik, ez zaie Hidrokarburoen gaineko Zerga ezarriko, barruko lurralde eremuan.

Agindu honi eta 51. artikuluaren 5. eta 6. atalei dagokienez, honako definizio hauek ematen dira:

a) "Ohizko deposituak":

- Kontutan hartu den garraiabidearen mota berberakoak diren garraiabide guztietan egileak era iraunkorrean finkatu dituen deposituak, antolaera iraunkorrak karburantea zuzenean erabiltzen uzten duenean, bai ibilgailuen trakziorako, bai, hala balegokio,

garraioan zehar hozte sistemak edo beste sistemak funtzionatzeko. Era berean, depositu normaltzat hartuko dira garraiabideei egokitutako gas depositauk, gasa karburante gisa zuzenean erabiltzen uzten dutenean, eta garraiabideak izan ditzakeen bestelako sistemei egokitutako depositauk.

- Kontutan hartu den edukinontziaren mota berberakoak diren edukinontzi guztietan, egileak era iraunkorrean finkatu dituen depositauk, antolaera iraunkorrak karburantea garraiabidean zehar zuzenean erabiltzen uzten dutenean, hozte sistemek edo erabilera berezietarako edukinontziek dituzten beste sistemek funtziona dezaten.

b) "Edukinontzi bereziak": Hozte-sistema, oxigenazio, isolamendu termikoa edo beste sistema batzuei bereziki egokituta dauden tresnez ekipatutako edukinontziak.

**48. artikulua.- Zerga-oinarria.**

**1.** Zergaren helburu izanik, 15ºZ tenperaturan litro milatan adierazitako produktuen bolumenak osatuko du Zerga-oinarria. Hala ere, pisu edo energia unitateak erreferentziatzat hartuz ezarritako zerga-mota duten produktuen kasuan, oinarria zehazteko produktuaren pisua tona metrikoetan adierazia- edo energia indarra gigajuliotan (GJ) adierazia- hartuko dira kontutan.

**2.** Bolumena tenperaturaren arabera zehazteko, Nomenklaturaren Nazioarteko Erakundearen taulak erabiliko dira, ISO 91/1-1982 erreferentzia hartuz.

**49. artikulua.- Kontzeptua eta definizioak.**

**1.** (15) Zerga honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

a) (33) Berundun gasolina: NC 2710.12.31, 2710.12.51 eta 2710.12.59. kodeetan sailkatutako produktuak, berdin du zertarako erabiltzen diren.

b) (33) Berunik gabeko gasolina: NC 2710.12.41, 2710.12.45 eta 2710.12.49. kodeetan sailkatutako produktuak, berdin du zertarako erabiltzen diren.

c) (33) Gainerako olio arinak: NC 2710.12.11 eta 2710.12.90 bitarteko kodeetan sailkatutako produktuak, ez badira berundun gasolina edo berunik gabeko gasolina. NC 2710.12.21 eta 2710.12.25 kodeetan sail-katutako produktuak direnean, paragrafo honen barruan sartzearen ondoriozko xedapenak handizkako merkataritza eragiketei bakarrik aplikatuko zaizkie.

d) Kerosenoa: NC 2710.19.21 eta 2710.19.25 kodearekin sailkatutako gaiak.

e) Gainerako olio ertainak: kerosenoa izan ez eta NC 2710.19.11tik 2710.19.29ra kodearekin sailkatutako gaiak. NC 2710.19.29 kodearekin sailkatutako gaiak badira, paragrafo honetan sartzeak berekin dakartzan manuak handizkako salmentei baino ez zaizkie aplikatuko.

f) (33) Gasolioa: NC 2710.19.31tik 2710.19.48ra eta 2710.20.11tik 2710.20.19ra bitarteko kodeetan sailkatutako produktuak.

g) (33) Fuel-olioa: NC 2710.19.51tik 2710.19.68ra eta 2710.20.31tik 2710.20.39ra bitarteko kodeetan sailkatutako produktuak.

h) Petroliozko gas likidotua (PGL): NC 2711.12.11tik 2711.19.00ra kodearekin sailkatutako gaiak.

i) Gas naturala: NC 2711.11.00 eta 2711.21.00 kodearekin sailkatutako gaiak.

j) Bioetanola: 46.1.f) artikuluan adierazitako gaiak.

k) Biometanola: 46.1.g).1 artikuluan adierazitako gaiak.

l) Biodiesela: 46.1.g).2 artikuluan adierazitako gaiak.

m) Biokarburanteak: biometanola eta biodiesela, karburante edo erregai gisa erabiltzen direnean, eta bioetanola.

n) Bioerregaiak: biometanola eta biodiesela, erregai gisa erabiltzen direnean.

ñ) Kontrolpeko beste zenbait hidrokarburo: NC 2707.10, 2707.20, 2707.30, 2707.50, 2901.10, 2902.20, 2902.30, 2902.41, 2902.42, 2902.43 eta 2902.44 kodearekin sailkatutako gaiak.

o) (28) Artikulu honetan definitutzat jotzen dira ondoko ekoizkin hauek ere: Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauko 20.2. artikuluan xedatutakoaren arabera (horren bidez ekoizkin energetikoen eta elektrizitatearen gaineko Batasuneko araubidea berregituratu da) Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/CE Zuzentarauan (zerga berezien araubide orokorrari buruzkoa eta 92/12/CEE Zuzentaraua indargabetu zuena) ezarritako kontrol eta zirkulazio xedapenak aplikatu ahal zaizkienak.

**2.** Zerga honi dagokionez honako definizio hauek ematen dira:

a) Karburante gisa erabiltzea: hidrokarburoen gaineko Zergaren helburu-eremuan sartzen den produktu bat, edozein motore motatan, erretzeko xedez erabiltzea.

b) Uso como combustible: karburante gisa erabiltzen ez den hidrokarburo bat, errekuntzaren bidez, berotzeko erabiltzea.

**50. artikulua.- Ezarpen motak.**

**1.** (15) Zerga ondoko tarifa eta epigrafeen arabera eskatuko da:

**1. tarifa: (35) (44) (43)**

| | |
|---|---|
| 1.1. epigrafea. | Berundun gasolinak: tasa orokorra, 433,79 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |
| 1.2.1. epigrafea. | Berun gabeko gasolinak, 98. O. I edo oktanaje handiagokoak: tasa orokorra, 431.92 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |
| 1.2.2 epigrafea. | Berunik gabeko gainerako gasolinak: tasa orokorra, 400,69 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |

| | |
|---|---|
| 1.3 epigrafea. | Erabilera orokorrerako gasoleoak: tasa orokorra, 307 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |
| 1.4 epigrafea: | 54. artikuluaren 2. idatz zatian ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko gasolioak: tasa orokorra, 78,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 18 euro 1.000 litroko. |
| 1.5. epigrafea | Fuelolioak: tasa orokorra, 14 euro tonako, eta tasa berezia, 3 euro tonako. |
| 1.6 epigrafea. | Erabilera orokorreko PGL: 57,47 euro tonako. |
| 1.8 epigrafea. | Karburantez besteko erabileretarako PGLa: 15 euro tonako. |
| 1.9 epigrafea. | Erabilera orokorrerako gas naturala: 1,15 euro giga-jouleko. |
| 1.10.1 epigrafea. | Erregaitarako erabiltzen ez den gas naturala eta motor geldikorretako erregai gisa erabilitako gas naturala: 0,65 euro gigajulioko. |
| 1.10.2 epigrafea. | Helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturala, baldin eta energia elektrikoaren zuzeneko nahiz zeharkako generazioko edo kogeneraziozko prozesuetan ez bada erabiltzen: 0,15 euro giga-jouleko.<br><br>Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturaltzathartzen dira industria lantegi eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren gas naturalaren hornikuntzak, salbu eta energia termiko baliagarria sortzekoerabiltzen dena, energia horren azkeneko aprobetxamendua industria lantegi edo instalazioen izaera ez duten establezimendu edo lokaletan egiten bada. Halaber, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturaltzat joko da nekazaritza lanetan erabiltzen den gas naturala. |
| 1.11. epigrafea. | Erabilera orokorreko kerosenoa: tasa orokorra, 306 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |
| 1.12 epigrafea. | Karburantez besteko erabileretarako kerosenoa: 78,71 euro 1.000 litroko. |
| 1.13 epigrafea. | Erregai gisa erabiltzen diren bioetanola eta biometanola:<br><br>a) Bioetanola eta biometanola berunik gabeko 97 O. I. edo oktano gehiagoko gasolinekin nahasita: tasa orokorra, 431,92 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.<br><br>b) Bioetanola eta biometanola berunik gabeko gainerako gasolinekin nahasita, edo nahasi gabe: tasa orokorra, 400,69 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko. |

1.14 epigrafea. Karburante gisa erabiltzeko biodiesela: tasa orokorra, 307 euro 1.000 litroko; tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.15 epigrafea: 54. artikuluaren 2. idatz zatian ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko biodieselak, eta erregai gisa erabiltzeko biometanola: tasa orokorra, 78,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 18 euro 1.000 litroko.

1.16 epigrafea. (43)

1.17 epigrafea. (43)

**2 tarifa:**

2.1 epigrafea. Harrikatz-mundruna eta NC 2706 kodearekin sailkatutako gainerako gaiak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.2 epigrafea. Bentzola eta NC 2707.10, 2707.20, 2707.30 edo 2707.50 kodearekin sailkatutako gainerako gaiak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa.

2.3 epigrafea. NC 2707.91.00 kodearekin sailkatutako kreosota olioak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.4 epigrafea. Olio gordinak eta NC 2707 kodearekin sailkatuta egon eta 2.2 eta 2.3 epigrafeetan ez jasotako gainerako gaiak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.5 epigrafea. Gas naturaletiko olio gordin kondentsatuak, NC 2709 kodearekin sailkatuak: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.6 epigrafea. Gas naturaletiko olio gordin kondentsatuak, NC 2709 kodearekin sailkatuak, erregaiz bestelako erabileretarako: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

2.7 epigrafea. NC 2709 kodearekin sailkatutako gainerako gaiak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa.

2.8 epigrafea. (33) Gasolina bereziak eta, beren helburua gorabehera, NC 2710.12.11, 2710.12.15, 2710.12.21, 2710.12.25, 2710.12.70 eta 2710.12.90 kodeetan sailkatutako gainerako produktuak: 1.1. epigraferako ezarritako tasa.

2.9 epigrafea. Kerosenoa ez diren NC 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodearekin sailkatutako olio ertainak, erabilera orokorrerako: 1.11 epigraferako ezarritako tasa.

2.10 epigrafea. Kerosenoa ez diren NC 2710.19.11, 2710.19.15 eta 2710.19.29 kodearekin sailkatutako eta erregaiz bestelako erabileratarako olio ertainak: 1.12 epigraferako ezarritako tasa.

| | |
|---|---|
| 2.11 epigrafea. | (40) 2.11 epigrafea. NC 2710.19.71, 2710.19.75, 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 eta 2710.20.90 kodearekin sailkatutako olio astunak eta prestaketak, erabilera gorabehera: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.12 epigrafea. | NC 2711.29.00 kodearekin sailkatutako gas hidrokarburoak eta NC 2705 kodearekin sailkatutako gaiak, erabilera orokorrerako: 1.9 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.13.1 epigrafea | (40) 2711.29.00 kodean sailkatutako hidrokarburo gaseosoak, eta NC 2705 kodearekin sailkatutako gaiak, bai eta biogasa ere, erregaiaz bestelako erabileretarako, edota motor estatikoetako erregai moduan erabiltzeko: 1.10.1 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.13.2 epigrafea | (40) 2711.29.00 kodeko hidrokarburo gaseosoak, eta NC 2705 kodearekin sailkatutako gaiak, bai eta erabilera profesionaletarako biogasa ere, baldin eta elektrizitate sorkuntza eta baterako sorkuntzako prozesuetan ez bada erabiltzen: 1.10.2 epigraferako ezarritako tasa. |
| | Azken bi epigrafe horiek aplikatzeko, "biogastzat" joko da biomasatik edo hondakinen frakzio biodegradagarritik sortutako erregai gaseosoa eta gas naturalaren pareko kalitatea izan arte araztu daitekeena, bioerregai gisa erabiltzeko, edo egurretik sortutako gasa. |
| 2.14 epigrafea | Baselina eta NC 2712 kodearekin sailkatutako gainerako gaiak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.15 epigrafea | NC 2715 kodearekin sailkatutako nahasketa asfaltikoak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.16 epigrafea | Osaera kimiko mugatuko hidrokarburoak, zergaren helburu-eremuaren barnekoak eta NC 2901 eta 2902 kodearekin sailkatutakoak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.17 epigrafea | NC 3403 kodearekin sailkatutako prestaketak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.18 epigrafea | NC 3811 kodearekin sailkatutako detonazio-kontrakoak eta gehigarriak: 1.1 epigraferako ezarritako tasa. |
| 2.19 epigrafea | NC 3817 kodearekin sailkatutako alkilbenzeno nahasteak eta alkilnaftaleno nahasteak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |
| 20.20 epigrafea. | (40) NC 2710.91.00 eta 2710.99.00 kodeekin sailkatutako olio hondakinak: 1.5 epigraferako ezarritako tasa. |

**2**. 46. artikuluaren 2. eta 3. ataletan zehazten diren produktuei ezarriko zaizkien zerga-motak, honako hauek izango dira: erabilera-ahalmena parekoa izanik, Zergaren 1. Tarifan sartzen diren hidrokarburoei dagozkienak, alegia, Arau-Dekretu honen 54. artikuluaren 1.

atalean ezartzen den erabilera baimena emateko espedientek adierazten duenaren arabera.

**3.** (35) (44) Alde batera utzi gabe 8. artikuluaren 7. apartatuan ezarritakoa, artikulu honetan ezartzen diren zerga tasak aplikatzeko baldintza izango da arautegiz ezarritako betebeharrak betetzea, eta, horien artean, hala balegokio, trazatzaileak eta markagailuak eranstea, produktuei egiaz zer erabilera eman zaien edo ordainketa bitarteko jakin batzuk erabiltzea.

**4.** (40) (44) (43) Hornikuntza puntu bakarra duten instalazioei gas naturala hornitzen zaienean erregai modura erabiltzeko, erabilera profesionaletarako zein beste erabilera batzuetarako, artikulu honetako 1. idatz zatiko 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan arautzen diren zerga tasak aplikatuko dira, kasuan kasukoa erabilera bakoitzaren ehunekoaren arabera. Horretarako prozedura arautegian ezarriko da.

**50.bis artikulua.- (15) Biokarburante eta bioerregaietarako zerga-tasak.**

**1.** Biokarburanteek eta bioerregaiek zerga hau ordainduko dute eta, ordaindu ere, araugintzako dekretu honen 50.1 artikuluan araututako 1. tarifaren 1.13 eta 1.15 epigrafeetan jasotako zerga-tasak ordainduko dira. Tasa horiek biokarburante edo bioerregaiaren bolumenari besterik ez zaio ezarriko, baina ez zaio aplikatuko bestelako produktuekin nahastuta erabiltzen bada.

**2.** Petrolio produktuen eta biokarburante eta bioerregaien ekoizpen-kostuen konparaziozko bilakaerak hala gomendatzen duenean, aipatutako egoerak kontuan hartuta, 1.13tik 1.15erainoko epigrafeetan aurreikusitako zerga-tasen zenbatekoak zehaztu ahal izango dira foru arau bidez, eta hala badagokio, zenbateko positiboko karga tasak ezarri ahal izango dira.

**51. artikulua.- Salbuespenak.**

Arau-Dekretu honen 9. artikuluan ezarritako eragiketez gain, araudian ezartzen diren baldintzetan eta 53. artikuluaren 4. atalean ezarritakoari utzi gabe, honako eragiketa hauek salbuetsita egongo dira:

**1.** (15) Gas naturala eta zergaren helburu-eremuan eta haren 2. tarifan sartutako produktuak, karburante edo erregai gisa erabiltzeko ez direnak, fabrikatu eta inportatzea.

**2.** Zergaren helburu-eremuan sartzen diren produktuak fabrikatu edo inportatzea, honako erabilera hauetariko bat izanez gero:

a) Aire-nabigaziorako karburante gisa erabiltzea, olgetarako hegazkintza pribatua izan ezik.

b) Itsasgintzarako karburante gisa erabiltzea, arrantza barne, olgetarako itsasgintza pribatua izan ezik.

c) (35) (43) Elektrizitatea zentral elektrikoetan ekoiztea, edo sorkuntza konbinatuko zentraletan elektrizitatea edo elektrizitatea eta beroa batera sortzea.

Salbuespen hau aplikatzeko honako hauek hartu behar dira kontuan: "Zentral elektrikoa": Energia elektrikoa ekoizteko instalazioa da. Jarduera hori Sektore

elektrikoaren azaroaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuan dago; ezartzeko eta jarduteko Legeak IV. tituluan arautzen dituen baimenak behar dira.

“Sorkuntza konbinatuko zentrala": Energia elektrikoaren ekoizpenerako edo energia elektrikoa eta gero aprobetxatu ahal izateko bero erabilgarria biak batera sortzeko instalazioa da. Jarduera hori Sektore elektrikoaren azaroaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuan dago; ezartzeko eta jarduteko Legeak IV. tituluan arautzen dituen baimenak behar dira.

Salbuespenaren aplikazioa bulego kudeatzaileari eskatu behar dio elektrizitatea ekoizteko zentralaren edo sorkuntza konbinatuko zentralaren titularrak, eta bulego horrek baimena eman behar du.

d) Trenbide-garraioan karburante gisa erabilia izatea.

e) Aireuntzi eta itsasuntziak egin, aldatu, probatu eta mantentzeko erabiltzea.

f) Bide nabigagarri eta portuak dragatzeko erabiltzea.

g) Labe garaietan, murriztapen kimikoa lortzeko eta erregai nagusi gisa erabiltzen den ikatzi gehituta injektatzea, injekzio horretatik, bigarren maila batean, berotzeko helburuz aprobetxatzen den erreketa bat sortzen bada ere.

2. atal honetan ezartzen diren kasuetan gas-olioaren erabilerari dagokion salbuespena ezartzeko, murriztutako motaren ezarpenerako araudian exigitzen diren trazatzaile eta markatzaileak erantsita izan beharko ditu, autokontsumo-eragiketen kasuan izan ezik.

**3.** (15) Biokarburanteak edo bioerregaiak fabrikatu edo inportatzea, gutxiago kutsatzen duten produktuen garapen teknologikorako proiektu pilotuen eremuan. Salbuespena biokarburanteek edo bioerregaiek baino ez dute izango, baina bestelako produktuei ez zaie aplikatuko nahastuta erabiltzen badira.

Paragrafo honen eta araugintzako dekretu honen 52.c) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, honakoak hartuko dira "gutxiago kutsatzen duen produktuen garapen teknologikorako proiektu pilotutzat": izaera esperimentala eta denbora mugatuko proiektuak, bere ekoizpenaren eta erabileraren bideragarritasun tekniko edo teknologikoa frogatzera bideratutako produktuen ekoizpen eta erabilerari buruzkoak, lortutako emaitzen ustiatze industriala baztertuz. Baldintza hauek bete direla egiaztatutzat jo ahal izango da, arau bidez zehaztutakoa baino handiagoa ez den produktu kopuru murriztuari eragiten dioten proiektuei dagokienez.

**4.** (35) (44) NC 2705 kodean sailkatutako produktuak eta biogasa fabrikatzea eta inportatzea, elektrizitatea produzitzeko edo elektrizitatea eta beroa kogenerazioz sortzeko edo sortu diren instalazioetan bertan autokontsumorako baliatu badira.

Salbuespen hau aplikatzeko, elektrizitatea produzitzeko edo elektrizitatea eta beroa kogenerazioz sortzeko instalazioak izan behar du jarduera, energia elektrikoa nahiz kogeneraziozko energia elektrikoa eta bero erabilgarria ondoren probetxu energetikoa emateko produzitzekoa, 24/2013 Legearen aplikazio eremuaren barruan duenetakoa (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, sektore elektrikokoa), eta ezartzeko eta jarduera hasteko baimena lege horren IV. tituluan ezarritako eran baimendu izan zaiona.

**5.** Turismo ibilgailuen ohizko depositetan dauden karburanteak eta, ibilgailuko gehienez 10 litro onartzen delarik, depositu mugikorretan daudena inportatzea, karburantea eduki eta garraiatzearen arloan indarrean dagoen araudiaren ezarpenari utzi gabe.

**6.** Merkatal ibilgailu eta edukinontzi berezien ohizko depositetan dauden karburanteak inportatzea, gehienez 200 litro onartzen direlarik.

**52. artikulua.- Itzulketak.**

Zergaren ondorioz ordaindutako kuotak itzultzeko eskubidea onartuko da, araudian ezarritako baldintzen arabera, 10. artikuluan ezarritako kasuekin batera, honako hauetan:

a) (15) Zergaren helburu izanik, 1. tarifan zehaztutako tasak ezarri behar zaizkien produktuen kontsumo zuzena ala zeharkakoa, gas naturalarena salbu, industri ustiategien titularrek erregai eta karburante gisa erabiltzen ez dituztenean.

b) Olgetarako ez den itsasgintzan erabiltzen diren untzietarako gas-olioaren horniketa. Itzulketa baldintzatuta egongo da, hornitutako gas-olioan, murriztutako mota ezartzeko, araudian exigitzen diren trazatzaile eta markatzaileek sartuta egon behar dutelako.

c) Zergaren helburu diren produktuak, kutsadura txikiagoa sortzen duten produktuak -batez ere, errekurtso berriztagarrietatik lortutako erregai eta karburanteak teknologikoki garatzeko ereduzko egitasmoetan erabiltzea.

d) Zergaren helburu izanik, beste produktu batzuekin nahastu edo kutsatu diren produktuak lantegi edo zerga-gordailura itzultzea.

**52 bis artikulua.- (18) Erabilera profesionaleko gasolioaren eraginezko itzulketa partziala.**

**1.** Bigarren atalean aipaturiko ibilgailuen titularrek, bertako baldintzak betetzen dituztenek, Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partzialerako eskubidea izango dute (ibilgailu horien motorrean erabilitako gasolioari dagokionez ordaindutako edo jasandako zerga).

**2.** Bestalde, 1. atalean aipaturiko ibilgailuak honako hauek dira:

a) Merkantziak errepidez garraiatzeko soilik erabiltzen diren motordun ibilgailuak edo akoplaturiko ibilgailu multzoak, garraio hori inoren edo norberaren kontura egiten denean eta ibilgailuen gehieneko pisu baimendua 7,5 tonakoa edo hortik gorakoa denean.

b) Bidaiarien garraio erregularrean edo noizean behingoan erabiltzen diren motordun ibilgailuak, Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauan ezarritako M2 edo M3 kategorietan sartzen direnak; zuzentarau hori estatu kideen legeriak hurbiltzeari buruzkoa da, motordun ibilgailuen eta horien atoien homologazioari dagokionez.

c) Taxiak. Horri dagokionez, taxia bidaiarien zerbitzu publikorako udal lizentzia eta taximetroa dituen ibilgailua da.

**3.** Aurreko atalean aipaturiko ibilgailuen titularrek administrazio titulu egokia eduki beharko dute, euren jarduera garatzeko, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean eta berori garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Era berean, titular horiek euren jarduera garatzeko bidezko baimen eta lizentzia guztiak eduki beharko dituzte, eta baimenok agintari autonomikoek edo udal agintariek emango dituzte.

Espainiako lurraldean bizi ez direnean eta Europar Batasuneko gainerako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra dutenean, kasuan kasuko estatu kideko araudiak jarduera garatzeko ezartzen dituen administrazio baimenak eduki beharko dituzte titularrek.

**4.** (35) Itzulketaren oinarria hauxe izango da: interesdunak erosi eta aurreko 2. idatz zatian aipatutako ibilgailuetan erregai gisa erabilitako gasolioaren bolumena. Oinarria milaka litrotan adieraziko da.

**5.** (35)

**6.**

a) (32) (44) Itzulketako tasa, 1.000 litroko eurotan adierazita, 1.3 epigrafeko zerga tasari (itzulketa eskubidea sortzen den garaian indarrean dagoenari) 306 euro kenduta ateratzen den zenbateko positiboa izango da, eta tasa bereziari 48 euro kenduta ateratzen dena.

b) Foru Arau mailako xedapenak aldatu egin dezake itzulketa tasa.

c) Jaso beharreko itzulketaren gehieneko zenbatekoa ibilgailu eta urte bakoitzeko 50.000 litrokoa izango da, taxien kasuan izan ezik, eta kasu horretan itzulketaren gehieneko zenbatekoa taxi eta urte bakoitzeko 5.000 litrokoa izango da. Ekonomia eta Ogasuneko ministroak muga horiek zatikatu ahal izango ditu, horiek urtebetetik beherako aldiei dagokienez aplikatzeko.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak muga horiek zatikatu ahal izango ditu, horiek urtebetetik beherako aldiei dagokienez aplikatzeko.

**7.** Itzulketarako prozedura Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak ezarriko du, eta horren barruan, besteak beste, honako alderdi hauek sar daitezke:

a) Interesatuak erregistro egokian inskribatzea eta euren jardueraren datuak jasotzen dituzten zerga-aitorpenak egitea, datu horiek itzulketa kudeatzeko eta egiztatzeko garrantzitsuak direnean.

b) Interesatuek ordainketa bide bereziak erabiltzea, gasolioa lortzeko, gero horri dagokion itzulketa eskatuko dutenean. Ezartzen diren kasuetan, gero itzulketa eskubidea sortuko duen gasolioa lortzeko ordainketa-bide bereziak erabili behar izatea zerga-aitorpentzat hartuko da, eta itzulketa horren bidez eskatuko da.

c) Ordainketa-bide berezi horiek eskaintzen dituzten erakundeek eta ordainketok onartzen dituzten gas-olio saltzaileek halako bideak erabiltzeari (itzulketa-eskatzaileak) buruzko informazioa eman behar izatea Zerga Administrazioari.

**8.** Aurreko 7. atalean aipaturiko ordainketa-bide bereziak erabili izanaren itxura egitea (artikulu honetan arauturiko itzulketa eskubidea lortzeko) zerga-urratze larria izango da; hori egiten duenari, itxurazko eskuratzearen zenbatekoa baino hiru aldiz handiagoa den isuna ezarriko zaio (gutxienez, 3.000 euro). Halako urratzeak egitearen erantzukizuna leporatzearen ondoreetarako, ordainketa-bide horien titularrak egiletzat hartuko dira, lapurreta gertatu eta hori salatu egiten denean izan ezik.

**9.** Artikulu honetan arauturiko itzulketa eragiten duen gasolioa 2. atalean aipatzen ez diren ibilgailuetan erabiltzea debekaturik dago. Debeku horri kasurik ez egitea zerga-urratze larria izango da, eta horri 55. artikuluan ezarritakoaren araberako zehapena ezarriko zaio.

**10.** Aurreko atalean ezarritakoaz gain, itzulketa-eskubidea sortzen duen gas-olioa berori jasotzeko baimenik gabeko pertsonei ematen dietenek ere erantzukizuna izango dute.

Gainera, Araugintza Dekretu honetako 8.6 eta 15.11 artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, itzulketa eragiten duen gasolioa bere helburuaren eraginez tasa murriztua aplikatuta duen gasoliotzat hartuko da.

**52 ter artikulua.- (27) Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioarengatiko itzulketa partziala.**

**Bat.** (42)

a) Nekazariei eskubidea aitortzen zaie gasolio eskuraketetan hidrokarburoen gaineko zerga dela eta ordaindu edo jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, baldin araugintza dekretu honen 50.1 artikuluaren 1. idatz zatiaren 1.4 epigrafeko tasan zergak ordaindu badituzte aurreko urte naturalean.

b) Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa kalkulatzeko 1.000 litroko 63,71 euroko tasa aplikatu behar zaio adierazitako aldian nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) benetan erabilitako gasolio bolumenari (mila litrotan adierazita).

**Bi.** Itzulketa honi begira, nekazaritzat hartuko dira adierazitako epean Araugintzako Dekretu honen 50. artikuluko 1. idatz zatiko 1.4 epigrafean ezarritako tasan zergapetutako gasolioa erabiltzeko eskubidea izan duten pertsona edo erakundeak, gasolio hori nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erregai moduan erabili badute eta, horrez gainera, errolda egokian inskribaturik egon badira aipatutako jarduerak egiteari dagokionez.

**Hiru.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarritako prozedurari jarraituz egingo da itzulketa. Interesdunek zerga aitorpenak -are errolda izaerakoak ere-aurkezteko betebeharra jaso dezake prozedura horrek.

**53. artikulua.- (28) Kudeaketako arau bereziak.**

**1.** Dekretu honetako 4. artikuluko 17. idatz zatian ezarritakoa eragotzi gabe, fabrikatzat hartuko dira:

a) Dekretuko honetako 49. artikuluko 1. idatz zatian zehaztutako zergapeko produktuei behin betiko tratamendua emateko erabiltzen diren establezimenduak, nomenklatura konbinatuaren 27. kapituluko 5. ohar gehigarrian ezarritako kontzeptua aplikatuta.

b) Zergapeko 1. tarifako produktuen eraldakuntza kimikorako erabiltzen diren establezimenduak, titularrak eskatuz gero. Hori dela eta, “eraldakuntza kimiko” dira produktu baten egitura molekularra aldatzeko egiten diren eragiketa guztiak.

**2.** Dekretu honetako 4. artikuluko 18. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, zergapeko produktuen erabiltzaileek haiek establezimendu berean berrerabiltzeko egiten dituzten eragiketak ez dira fabrikaziotzat hartuko, baldin eta ordaindutako zerga ez bada berrerabilitako produktuaren gaineko karga baino gutxiago.

**3.** Dekretu honetako 4. artikuluko 17. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, zergapeko produktu baten kopuru txikiak sortzeko erabiltzen diren establezimenduak ez dira fabrikatzat hartuko. Kasu hauetan zerga likidatzeko eta ordaintzeko prozedura erraztua finkatuko da arau bidez.

**4.** Hidrokarburoen gaineko Zergaren objektu eremuaren barruan egon eta Araugintzako Dekretu honen 49.1 artikuluko definizioen barruan sartzen ez diren produktuen eta gas naturalaren zirkulazioa, edukitza eta erabilera ez dira egongo zerga horrekin loturiko betebehar formal berezien pean. Horrek ez du kentzen 6. artikuluan xedatutakoa, ez eta haien jatorria Zuzenbidean onargarri diren bideetatik frogatu beharra ere.

**5.** Araugintzako dekretu honetako 51.1. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzen zaien gas naturalari eta 2. tarifaren barruko produktuei dagokienez, honako arau partikular hauei jarraituko zaie:

a) Artikulu honetako 1.a) idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, ez da fabrikaziotzat hartuko 2. tarifaren barruko produktuak tarifa horren barruko beste batzuetatik abiatuz lortzea, azken horiengatik etendura araubidea burutu bada. Horrek ez du kentzen dekretu honetako 51.1. artikuluan ezarritako salbuespenaren aplikazioarekin loturik eskatu beharreko baldintzak -holakorik izanez gero- bete beharra.

b) Baldin eta gas naturala edo idatz zati honetan aipatutako 2. tarifa aplikatu behar zaien ekoizkinak erregai gisa erabiltzen badira, zerga horretarako xedematen edo merkaturatzen dituenari eskatuko zaio arau bidez ezartzen den prozedurarekin bat etorriz.

**6.** Batasunaren barruko gas natural trukeetan honako erregela hauek aplikatuko dira:

a) Araugintzako dekretu honetako 16. artikuluko 2, 3 eta 4. idatz zatietan aipatzen diren prozedurak ez dira aplikatuko.

b) Batasunaren gainerako lurralde eremutik datorren gas naturala barruko lurralde eremuan jasotzea zuzenean zerga gordetegi batean egiten denean, gasbideak eta gasbide sareak barne direla, 4.10 artikuluan ezarritakoaren arabera, jasotze hori etendura araubidean egindakotzat joko da eta, oro har, aplikatzekoak izango dira fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko izanik araubide horren babespean dauden produktuetarako dekretu honetan ezarritako arauak.

c) Barneko lurralde eremuan gas naturala Batasunaren gainerako lurralde batetik jasotzen den kasuetan (aurreko letran adierazitakoak ez besteak), jasotzaileen araubidea 4. artikuluko 11. artikuluan aipatutako erregistratutako jasotzaileena bera izango da. Honek ez du eragozten artikulu honetako 4. idatz zatian ezarritakoa.

d) Barneko lurralde eremutik Batasunaren gainerako lurralde eremura gas naturala bidaltzen denean, bidaltzaileek egiaztatu beharko dute, horrela agintzen zaienean, hartzailea helburuko estatu kidean horretarako erregistratutako enpresa dela, estatu horrek ezarrita daukan arautegiaren arabera, eta gas naturala hartzaileak jaso duela.

**7.** (51) Dekretu arauemaile honen 8. artikuluaren 2. apartatuko h) letraren ondorioetarako, hidrokarburoak banaketarako edo salgaiak edo bidaiariak garraiatzeko ibilgailuak hornitzeko direnean, zergaren jasanarazpena jasotzen duen faktura edo agiri baliokidea edo dagokion zirkulazio agiria ez da nahikoa izango Hidrokarburoen gaineko Zergaren ordainketa egiaztatzeko, honako kasu hauetan:

a) Hidrokarburo horietan behar bezala baimendutako markatzaile edo trazatzaileez eta zehaztapen teknikoetan onartutako osagaiez bestelako produktuak atzemateen direnean.

b) Energiaren Batzorde Nazionalak argitaratutako zerrendan agertzen ez diren operadoreei erosi zaizkienean, hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 42. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

**54. artikulua.- (15) Erabiltzeko debekuak eta mugak.**

**1.** Debekatuta dago araugintzako dekretu honen 46.2 artikuluan aipatzen diren produktuak karburante gisa erabiltzea edo artikulu berberaren 3. paragrafoan aipatzen diren hidrokarburoak erregai gisa erabiltzea. Salbuespena izango da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak berariaz emandako baimen adierazia ematen duenean interesatuak eskaturik abiarazitako espediente bati buruzko ebazpenaren ondorioz. Ebazpen horretan, zehaztu egingo da zein den zergaren 1. tarifan jasotako hidrokarburoen artetik espedientearen helburu den produktuaren erabilera baliokidea duena.

**2.** Zergaren 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako tasa aplikaturik, gasolioa karburante gisa erabiltzea baimenduta dago motor guztietan, honakoetan izan ezik:

a) Bide eta lursail publikoetatik zirkulatzeko baimendu diren tresnaren edo aparatuen propultsioan erabilitako motorrak, nahiz eta ibilgailu bereziak izan.

   Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ondorengoetan gasolioa erabili ahal izango da, zergaren 1. tarifaren 1.4 epigrafean ezarritako tasa aplikatuta: bide eta lursail publikoetan zirkulatzeko baimena duten eta nekazaritzan (baratzezaintzan, abeltzaintza eta basogintzan barne) erabiltzen diren traktoreen eta nekazaritzarako makinen motorretan.

b) Tresnen edo aparatuen propultsioan erabilitako motorrak, baldin eta ezaugarriengatik eta konfigurazio objektiboarengatik ibilgailu bereziak ez diren ibilgailu gisa bide eta lursail publikoetatik zirkulatzeko baimena izan badezakete, nahiz eta baimen hori benetan ez lortu.

c) Aisialdirako ontzi eta itsasontzien propultsioan erabilitako motorrak.

   eta b) idatz-zatietan arautako egoerak aplikatzeko, "ibilgailu" eta "ibilgailu berezitzat" hartuko dira abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartu zuen Ibilgailuen Arautegi Orokorrak II. eranskinean horrelaxe definitutakoak. Ondorio berberetarako, bide eta lursail publikotzat hartuko dira martxoaren 2ko 339/1990

Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko testu artikulatuaren 2. artikuluak aipatzen dituen bide edo lursailak.

51.2 eta 52.b) artikuluetan aurreikusitako egoerez at eta paragrafo honen arabera baimendutako egoerez at, debekaturik egongo da gasolioa karburante gisa erabiltzea, arauz ezarritakoari jarraituz dagozkion trazatzaileak eta markatzaileak sartuta izango lituzkeena.

**3.** Motor finkoetan eta ontzi eta trenen motorretan besterik ezingo dira fuel-olioak karburante gisa erabili.

**4.** Debekatuta geratzen da araugintzako dekretu honen 50.1 artikuluan aurreikusitako 1. tarifako 1.12 epigrafeari eta 2. tarifako 2.10 epigrafeari dagozkien tasa murriztuak ezartzearren araudian aplikatzen diren trazatzaile eta markatzaileak dituzten kerosenoak karburante gisa erabiltzea.

**5.** (35) (43).

**6.** (35) Artikulu honetan ezarritako debekuak eta mugapenak Zergaren 1. tarifan sartzen diren olio mineralen pareko erabilera duten produktuei ere aplikatuko zaizkie, aurreko 1. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

**55. artikulua.- Arau hausteak eta zehapenak.**

**1.** (13) Zerga-presako dekretu arauemaile honetako 54. artikuluan ezarritako debekuak eta erabilera-mugak ez betetzea zergen arloko arau-haustea izango da. Arau-hauste horien zehapenak artikulu honetan xedatutakoaren arabera ezarriko dira; hori gorabehera, zergen arloko beste arau-hauste batzuengatik ere ezarri ahal izango dira zehapenak, zerga-presako dekretu arauemaile honetako 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**2.** Arau-hauste hauengatik erantzukizun errespontsabilitatea egozteko, honako hauek hartuko dira egiletzat:

a) Arau-Dekretu honen 46. artikuluaren 3. atalean aipatutako hidrokarburoak, beharrezkoa den baimenik gabe, erregai gisa erabiltzen dituztenak.

b) Funtzionamendurako espreski emandako baimenik ez duten karburanteak erabili edo depositueten dituzten autopropultsatutako ibilgailu, untzi eta tresnerien jabeak, jabea bera gidari edo untzi-buru ez bada ere, atal honen hurrengo letran eta 3. atalean aipatutako kasuetan izan ezik.

c) Aurreko letran aipatzen diren ibilgailu eta untzien maizterrek, gidari edo patroirik gabeko alokairu-kontratua dagoenean, kontratua izenpetu zen egunetik tresneria, ibilgailu edo untzia bere jabeari itzultzen zaion egunera bitarteko epean arau-haustea aurkituko balitz.

d) (35) (43).

**3.** Lapurreta gertatzen denean, ibilgailu edo untzien jabeei ez zaizkie egotziko salaketaren egunetik berreskuratzen den egunera bitarteko epean aurkitzen diren arau-hausteak.

**4.** (40) Arau-hausleei zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Arau haustea egitean erabili den ibilgailuaren, artefaktuaren edo ontziaren motorrak 10 CV arteko zerga potentzia badu, eta ontzien kasuan, motorrak 220 kW arteko potentzia badu, 1.200 euroko isun finkoa.

b) Motorrek 10 CV-tik gora eta 25 CV-ra bitarteko zerga potentzia badute, eta ontzien kasuan, motorrek 220 kW-tik gora eta 550 kW-ra bitarteko potentzia badute, 3.600 euroko isun finkoa.

c) Motorrek 25 CV-tik gora eta 50 CV-ra bitarteko zerga potentzia badute, eta ontzien kasuan, motorrek 550 kW-tik gora eta 1.100 kW-ra bitarteko potentzia badute, 7.200 euroko isun finkoa.

d) Motorrek 10 CV-tik gora eta 25 CV-ra bitarteko zerga potentzia badute, eta ontzien kasuan, motorrek 220 kW-tik gora eta 550 kW-ra bitarteko potentzia badute, 3.600 euroko isun finkoa.

e) 2. idatz zatiko a) idatz zatian aipatutako kasuetan, zehapena 1.200 euroko isun finkoa izango da.

**5.** (40) Horrelako hau hausteak behin eta berriro eginez gero, bikoiztu egingo dira aurreko idatz zatian ezarritako zenbatekoak.

Egoera hori aintzat hartuko da arau hauslea, beste arau hauste bat egin aurreko bi urteetan, administrazio bideko ebazpen irmo bidez zehatua izan bada aurreko artikuluan xedatutako debekuren bat hausteagatik.

**6.** (40) 1. tarifako 1.10.2 epigrafean ezarritako zerga tasa aplikatuz egiten diren gas naturalaren hornikuntzetan, zerga arloko arau haustea larria da gezurrezko edo okerreko datuak jakinaraztea subjektu pasiboei, horrek bidezkoak direnak baino kuota txikiagoak jasanaraztea badakar berekin.

Zehapenaren oinarria, jasanarazi beharko ziren kuoten eta benetan jasanarazi direnen arteko aldea izango da.

Zehapena ehuneko 50eko isun proportzionala izango da.

**7.** (40)

## VIII. KAPITULUA
## TABAKO LABOREEN GAINEKO ZERGA

### 56. artikulua.- Helburu eremua.

Zerga honi dagokionez, tabako laboretzat honako produktu hauek hartuko dira:

**1.** Zigarro eta zigarrotxoak.

**2.** Zigarretak.

**3.** Biltzeko tabako xehea.

**4.** Erretzeko beste tabakoak.

**57. artikulua.- Zergapekoak ez diren kasuak.**

6. artikuluan ezarritako kasuez gain, Zerga ez zaie ezarriko Zerga Administrazioaren kontrol-pean, fabrika eta zerga gordailuen barruan deusezten diren tabako laboreen fabrikazio eta inportazioei, araudian ezartzen diren era eta baldintzetan.

**58. artikulua.- Zerga-oinarria.**

**1.** Oinarria xede hauetarako eratuko da:

a) Laboreen balioarengatik, mota proportzionalak ezartzeko, penintsula edo Balear Irletan kokatutako tabako eta seilu saltokietan, Zerga guztiak barne, salmenta publikoaren gehienezko salneurriaren arabera kalkulatua.

b) Unitate kopuruaren araberako mota bereziak ezartzeko.

**2.** Aurreko atalaren a) letra ezarritakoak ondorioak izan ditzan, egile eta inportatzaileek, araudian zehazten den eran eta saltzen hasi baino lehen, tabako labore desberdinetarako finkatu dituzten jendearentzako gehienezko salneurriak eta prezioetan sartzen dituzten aldaketak jakin arazi beharko dituzte.

**59. artikulua.- Kontzeptuak eta definizioak.**

**1.** (30) Zerga honi dagokionez, ondoko hauek zigarro edo zigarrotxotzat hartuko dira, baldin eta, dituzten ezaugarriak eta kontsumitzaileen ohiko usteak kontuan izanik, aurkezten diren moduan, eraldatu gabe, erre ahal badira eta horrexetarako badira:

a) Kanpoko geruza tabako naturalezkoa duten tabako bilkariak.

b) Tripa irabiatua nahastuta duten tabako bilkariak, kanpoko geruzan zigarroen ohiko kolorea duen tabako geruza dutenak. Iragazkia egonez gero, hori ere bai, baina ahokoa ez, ale bakoitzaren masa, iragazkia eta ahokoa zenbatu gabe, 2,3 - 10 gramo bitartekoa bada eta perimetroa, gutxienez luzeraren heren batean, 34 milimetrokoa bada gutxienez.

   Horrelakoak, ale bakoitzaren pisua 3 gramo baino gehiago ez bada, zigarroak dira, eta hortik beherakoak zigarrotxoak.

**2.** (30) Halaber, aurreko idatz zatiko irizpideekin bat etorriz gero, zigarro edo zigarrotxotzat hartuko dira tabakoa osaeraren elementuetako bat duten produktuak ere.

**3.** (30) Zerga honi dagokionez, jatorrizko forman erre daitezkeen tabako bilkariak, aurreko idatz zatietan ezarritakoaren arabera ez zigarro ez zigarrotxo ez direnak, zigarretatzat hartuko dira.

Orobat, zigarretatzat hartuko dira industriala ez den manipulazio sinple baten bidez zigarreta zorroetan sartu edo erretzeko paper orrietan biltzen diren tabako bilkariak.

Aurreko paragrafoan aipatutako tabako bilkaria Zergaren aplikaziorako bi zigarretatzat hartuko da 9 zentimetro baino luzeagoa eta 11 zentimetro baino laburragoa izanez gero, hiru zigarretatzat 11 zentimetro baino luzeagoa baina 14 zentimetro baino laburragoa bada, eta hortik aurrera progresio bera aplikatuko da.

Luzeran ez dira zenbatu iragazkia eta ahokoa.

**4.** (30) Zerga honi dagokionez, erretzeko tabako edo tabako xehetzat hartuko dira:

Moztutako edo beste era batera txikitutako tabakoa, irundakoa, eta plantxa batean prentsatua, aurreko idatz zatietan sartzen ez dena, inolako industria eraldaketarik gabe erre daitekeena.

Txikizkako salmentarako egokitutako tabako soberakinak, ez direnak ez zigarro, ez zigarrotxo, ez zigarreta, eta erre daitezkeenak. Honen ondorioetarako, tabakoaren soberakinak dira tabako orrien hondarrak eta tabakoaren tratamenduaren edo tabakogaien fabrikazioaren ondoriozko azpiproduktuak.

**5.** (33) Zerga honen ondorioetarako erretzeko eta biltzeko tabako xehetzat joko da aurreko paragrafoan definitzen dena, baldin eta tabako partikulen ehuneko 25 baino gehiagok, pisua kontuan hartuta, 1,5 milimetro baino gutxiagoko mozketa zabalera badute.

Berdin joko da erretzeko eta biltzeko tabako xehetzat baldin tabako partikulen ehuneko 25 baino gehiagok, pisua kontuan hartuta, 1,5 milimetro edo gehiagoko mozketa zabalera badu, eta tabako hori biltzeko saldu bada edo horretarako saltzen bada.

**6.** Era berean, zigarreta eta erretzeko tabakotzat hartuko dira, debekatuta ez dagoen trafikorako substantziez partzialki edo osorik osatutako produktuak, tabakoa ez direnak baina aurreko 3. eta 4. ataletan ezarritako gainontzeko irizpideen araberakoak direnak. Hala ere, tabakorik ez duten produktuek ez dute kontsiderazio hau izango, bakarrik medikuntzarako erabiltzen direla frogatzen denean.

**7.** Zerga honi dagokionez, egiletzat hartuko da tabakoa jendeari saltzeko egokitutako tabako labore bihurtzen duen pertsona.

**60. artikulua.- (35) Zerga tasak.**

**1.** (37) Tarifa honen arabera eskatuko da zerga:

1 epigrafea. (38) Puruak eta purutxoak: puruek eta purutxoek ehuneko 15,8ko karga jasango dute, hurrengo paragrafoan ezarritakoa aplikatu behar denean izan ezik.

Zergaren karga ezin da izan 41,5 euroko tasa bakarra baino gutxiago 1000 unitateko, eta 44,5 euroraino igoko da, baldin eta puruak eta purutxoak jendeari saltzeko prezioa 1000 unitateko 215 euro baino gutxiago bada.

2 epigrafea. (41) Zigarretak: hurrengo paragrafoan ezarritakoa aplikatu behar den kasuetan izan ezik, zigarretei karga tasa hauek aplikatuko zaizkie aldi berean:

a) Tasa proportzionala: ehuneko 51.

b) Tasa espezifikoa: 24,7 euro 1.000 zigarretako.

Zergaren karga ezin da izan 131,5 euroko tasa bakarra baino gutxiago 1.000 zigarretako, eta 141 euroraino igoko da, baldin eta zigarretak jendeari saltzeko prezioa 1.000 zigarretako 196 euro baino gutxiago bada.

3 epigrafea. (41) Tabako xehea: hurrengo paragrafoan ezarritakoa aplikatu behar den kasuetan izan ezik, tabako xeheari karga tasa hauek aplikatuko zaizkio aldi berean:

a) Tasa proportzionala: ehuneko 41,5.

b) Tasa espezifikoa: 23,5 euro kilogramoko.

Zergaren karga ezin da izan 98,75 euroko tasa bakarra baino gutxiago kilogramoko, eta 102,75 euroraino igoko da, baldin eta tabako xehea jendeari saltzeko prezioa kilogramoko 165 euro baino gutxiago bada.

4 epigrafea. (38) Gainerako tabakogaiak: ehuneko 28,4.

Gainerako tabakogaiak 22 euro kilogramoko tasa bakarrean kargatuko dira, baldin eta aurreko paragrafoan ezarritako tasa aplikatzearen ondoriozko kuota txikiagoa bada tasa bakar horren zenbatekoa baino.

**2.** Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, epigrafe bakoitzeko produktuak jendeari saltzeko prezioa Penintsulako eta Balear uharteetako tabako dendetako gehieneko prezioa da, zerga guztiak sartuta.

**61. artikulua.- Salbuespenak.**

**1.** Zerga-eremutik kanpo geratuko dira, araudian ezarritako baldintzapean, Arau-Dekretu honen 9. artikuluan aipatzen diren operazioez gain, helburu hauek dituzten tabako laboreak fabrikatu eta inportatzea:

a) Fabrika eta zerga gordailuetan desnaturalizatzea, ondoren industria edo nekazal helburuekin erabiltzeko.

b) Zientzia azterketak edo laboreen kalitatearekin zerikusia dutenak egitea, bai fabriketan bai zerga biltegietan.

**2.** (49) Era berean, tabako labore hauen inportazioak kanpo geratuko dira:

a) Hirugarren herrialdeetatik datozen hamazazpi urtetik gorako bidaiariek aldean daramatzatenak, ondoko muga hauekin:

1. 200 zigarreta, edo

2. 100 zigarrotxo, edo

3. 50 zigarro, edo

4. Gainontzeko laboreen 250 gramo.

b) Hirugarren herrialde batetik partikular batek beste partikular bati igortzen dizkion bidalketa txikiak, inolako ordainketarik egon gabe eta ondoko muga hauekin:

1. 50 zigarreta, edo

2. 25 zigarrotxo, edo

3. 10 zigarro, edo

4. Gainontzeko laboreen 50 gramo.

**3.** (28) Zergarik gabeko dendetan saltzeko diren tabakogaiak, hain zuzen ere hegazkinez edo itsasontziz beste herrialde edo lurralde batera doazen bidaiariek beren bagajean eramango dituztenak.

**62. artikulua.- Itzulketak.**

Tabako Laboreen gaineko Zergaren ondorioz aurretik ordaindutako kuotak itzultzeko eskubidea onartuko da, araudian zehaztutako eran eta baldintzapean eta, Arau Dekretu honen 10. artikuluan aipatzen diren kasuez gain, honako kasu hauetan:

a) Zerga-Administrazioren kontrolpean tabako laboreak deuseztatzen direnean.

b) Tabako laboreak fabrikara itzultzen direnean, bertan birziklatzeko.

**63. artikulua.- (28) (49) Kudeaketa arau bereziak.**

Batasuneko beste estatu kide batzuetatik datozen tabakogaiak baimendutako gordailuzainek, erregistratutako hartzaileek, ziurtatutako hartzaileek eta urruneko salmentako sisteman dauden hartzaileek soilik jaso ditzakete, baldin eta tabakoaren merkatua arautzen duen araudian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

## IX. KAPITULUA
## ARGINDARRARI BURUZKO ZERGA

**64 artikulua.- (45) Eremu objektiboa.**

**65. artikulua.- (28) (45) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien inguruko definizioak eta haiei guztiei buruzko xedapenen egokitzapena.**

**66. artikulua.- (45) Zerga-oinarria.**

**67. artikulua.- (15) (45) Zerga-tasa.**

**68. artikulua.- (45) Salbuespenak.**

**69. artikulua.- (28) (45) Xedapen bereziak Batasunaren barruko energia elektrikoaren trukeei dagokienez.**

## II. TITULUA
## GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GAINEKO ZERGA BEREZIA

**70. artikulua.- Zerga egitatea.**

**1.** (22) Ondokoak izango dira zergapean:

a) Berez mugitzeko motorea duten ibilgailu beri edo erabilien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, ondokoak izan ezik:

1.- Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauan ezarritako N1, N2 eta N3 kategorietako ibilgailuak (zuzentarau hori estatu kideen legeriak motordun ibilgailuen eta horien atoien homologazioari dagokionez hurbiltzeari buruzkoa da), kargapean ez egoteko inguruabarretan ez daudenak. Gainera, N1 kategoriakoek baldintza hau bete behar dute: jarduera ekonomiko baterako izan behar dira. Kasu honetan joko da esanguratsutzat ibilgailua jarduera ekonomiko bati atxikita egotea: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 95. artikuluan ezarritakoaren arabera subjektu pasiboak ibilgailuaren eskuraketa edo inportazioa dela eta jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergako kuoten % 50eko kenkaria gutxienez egiteko eskubidea duenean. Horretarako, berdin izango da aipatutako dekretuan jasotzen diren arauen ondorioz kenkarirako eskubidean beste edozein murrizketa aplikatzea. (30)

Dena den, zergapekoa izango da ibilgailu horien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, etxebizitza izateko egokitzen direnean.

2.- Testu berean (aurreko 1 zenbakiko paragrafoan) ezarritako M2 eta M3 kategorietara bildutako ibilgailuak eta tranbiak.

3.- Objektiboki, industri, merkataritza, nekazaritza, osasun edo zientzia erabilera baino ez dutenak, baldin eta zerga Administrazioak homologatu baditu serie modeloak edo ibilgailuak, banan-banan. Ondore horietarako, erabilera horiek bakarrik dituzte eserleku bi dauzkaten ibilgailuek (gidaria eta laguntzailea), eta ezingo dute eserleku gehigarririk eduki, ez eta beroriek instalatzeko finkagailurik ere, eta kargarako lekuan ez da alboetako leihorik egongo eta leku hori barneko bolumenaren %50 baino gehiago izan behar da.

4.- (24) Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak eta kuadriziklo arinak.

5.- Motozikletak eta kuatrizikloak ez diren hiru gurpileko ibilgailuak, baldin eta, kasu biotan, zilindrada 250 zentimetro kubikotik gorakoa ez bada, barne errekuntzako motoreak direnean, eta 16 kW edo hortik beherako gehienezko potentzia badute, gainerako motoreetan.

6.- Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ibilgailuak.

7.- Ibilgailu bereziak, 75.1. artikuluko 4. epigrafean definitutako "quad" motako ibilgailuak ez badira.

8.- Ibilgailu misto moldagarriak, baldin eta karrozeriako sabaiaren egitura zatitik behegainera arteko guztizko garaiera 1.800 milimetrotik gorakoa bada, lur orotarako ibilgailuak ez badira eta eragina badute ekonomi jardueran. Ekonomi jardueran eragina handia izango da, noiz eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 95. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, subjektu pasiboak eskubidea duenean ibilgailua eskuratu edo inportatzeagatik jasaniko edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten %50 gutxienez kentzeko, eta ondore horietarako, kenketarako eskubidea ezingo da murriztu, arau horretara bildutako arauen ondorioz.

Dena den, zergapekoa izango da ibilgailu horien behin betiko matrikulazio lehenengoa Espainian, etxebizitza izateko egokitzen direnean.

9.- Indar armatuek, Estatuko, autonomi erkidegoetako eta udaletako segurtasun indar eta gorputzek, eta defentsa, zaintza eta segurtasunerako aduana zaintzaileek erabili behar dituztenak.

10.- Anbulantziak eta autobideak eta errepideak zaintzeko eta bertan sorospen lanak egiteko baino ezin diren ibilgailuak.

b) Aisiarako edo itsas kirolerako ontzi eta itsasontzi berri edo erabiliak itsasontzien matrikulazio erregistro ohiko edo berezian lehenengoz matrikulatzea, baldin eta luzera 8 metrokoa baino handiagoa bada, edo, erregistro horretan ezin badira matrikulatu, kasuan kasuko kirol federazioaren erregistroan eginiko lehenengo matrikulazioa.

Luzera edozein izanda ere, zergapekoa izango da 75.1. artikuluko 4. epigrafean definitutako itsas motorren lehenengo matrikulazioa.

Luzera 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen apirilaren 27ko 544/2007 Errege Dekretuaren bertsioan definitutakoa izango da. Dekretu hori itsasontzien matrikulazio erregistroko zazpigarren zerrendan aisiarako ontziak estatu baten banderapean jartzea eta matrikulatzea arautzen duena da.

Ondokoak dira aisiarako edo itsas kirolerako ontzi eta itsasontziak:

1.- Itsasontzien matrikulazio erregistro ohikoaren edo bereziaren seigarren edo zazpigarren zerrendan edo kasuan kasuko kirol federazioaren erregistroan inskribatzen diren itsasontziak.

2.- Aurreko 1 zenbakiko paragrafoan aipatutakoak ez diren itsasontziak, aisiarako nabigazio pribaturakoak, araugintzazko dekretu honen 4. artikuluko 13. paragrafoan definitu legez.

c) Hegazkinak, turismo hegazkinak eta aireontzi berri eta erabiliak aireontzien erregistroan lehenengoz matrikulatzea, baldin eta motore mekanikoak badituzte, jarraian aipatutakoak izan ezik:

1.- Ezaugarri teknikoak direla eta, nekazaritza edo basogintzarako zein gaixoak eta zaurituak garraiatzeko baino ez diren aireontziak.

2.- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako ziurtagiriaren arabera, aireratzean, gehieneko pisua 1.550 kilogramokoa baino handiagoa ez bada.

d) (40) Zirkulazio zergari lotuta egongo da aurreko idatz zatietan aipatu diren garraiobideak Espainian zirkulatzea edo erabiltzea, araugintzako dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera Espainian behin betiko matrikulatuak izateko eskatu ez bada Espainian erabiltzen hasi eta hurrengo 30 egunen barruan. Epe hori 60 egunera luzatuko da, garraiobide horiek erabiltzen badira titularra ohiko bizitokia Espainiara lekualdatzearen ondorioz, baldin eta araugintzazko dekretu honen 71. artikuluko 1.n) idatz zatian jasotako salbuespena aplika badaiteke.

Horren ondorioetarako, honakoak hartuko dira garraiobide horiek Espainian zirkulatzen edo erabiltzen hasitako datatzat:

1 Aldi baterako inportazioaren edo turismo matrikulazioaren gaineko araubidepean egon diren garraiobideak badira, araubide horiek uzteko edo amaitzeko data.

2 Gainerako kasuetan, garraiobidea Espainian sartu den data. Data hori frogatzeko moduan jasota ez badago, erabileraren hasiera datatzat bi hauetako berriena hartuko da:

- Garraiobidearen erosi zen eguna.

- Interesduna Espainian egoiliarra edo Espainian dagoen establezimendu baten titularra izaten hasi den data.

**2.** (22) a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Arautegi Orokorraren II. eranskinaren 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen bertsioan jasotako definizio eta kategorien arabera zehaztu eta mugatuko dira Goiko 1.a) idatz-zatian eta 75. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako ibilgailuak.

b) Araugintzazko dekretu honen ondoreetarako, berritzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera halakotzat jotzen direnak.

c) (30) Aurreko 1.a) idatz zatiko 9. eta 10. zenbakietan aipatutakoa aplikatzeko, hau da, zergapean ez egoteko, ezinbestekoa da aldez aurretik Zerga Administrazioak arauz ezartzen den moduan onartzea. Zerga egitatea garraiogailuak Espainian erabiltzea edo zirkulatzea bada, zergapean ez egoteko ezinbestekoa da, gainera, aldez aurreko onarpenerako eskaera 70.1.d) artikuluan ezarritako epealdian aurkeztea.

Gainerako kasuetan, zergapean ez egoteko Zerga Administrazioari aitorpena aurkeztu behar zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituen tokian, moduan, aldian eta inprimakian. Paragrafo honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko Zerga Administrazioak homologatutako ibilgailuei.

**3.** Zerga egitatea gertatu zenetik lau urte pasatu baino lehen araugintzako dekretu honen arabera kargapean ez egoteko edo salbuetsita egoteko inguruabarrak edo baldintzak aldatzen badira, aldaketa egiten denean zerga berezia autolikidatu eta ordainduko da, aldaketaren ostean araugintzako dekretu honetan kargapean ez egoteko edo salbuetsita egoteko jasotzen diren kasuetako bat gertatzen ez bada. Garraiogailuaren eskualdaketa matrikulazioaren eskumena duen organoan eraginkorra izan dadin, ondokoetako bat egin behar da, kasuan kasukoa: organo horretan Zerga ordaindu dela frogatu; bertan aurkeztu norbera kargapean ez dagoelako edo salbuetsita dagoelako aitorpena, organo kudeatzaileak behar bezala izapidetuta, edo Zerga Administrazioaren aldez aurreko onarpena. (30)

Aurreko lerroaldean aipatzen den epe hori bi urtez laburtuko da baldin eta, Araugintzako Dekretu honetako 71. artikuluaren 1 idatz-zatiaren b) eta c) Letretan xedatutakoari jarraituz, garraoibidea lehenbiziko behin betiko matrikulazioa egin beharretik salbuetsi bada.

Era berean, baldintzetan gertatutako aldaketa garraiobidea zergaren aplikazio-eremuko lurraldetik kanpora behin betiko bidaltzea izan bada, ez dira eskatutako goian aipatu diren autolikidazioa eta ordainketa; horretarako, egoera hori egiaztatu egin beharko da matrikulazioaren arloan eskudun den organoak emandako erregistroko bajaren bitartez.

Zerga honen ondorioetarako, lehenbiziko behin betiko matrikulaziotzat hartuko da matrikulazioaren arloan eskudun den organo batek ondoren aipatzen den garraiobide baten gisakoarendako emandako zirkulazio- edo erabilpen-baimena: behin betiko kanpora bidali eta berriro ere zergaren aplikazio-eremuko lurraldera ekarri, eta Araugintzako Dekretu honetako 71 artikuluaren 3 idatz-zatian xedatutakoaren pean edo aurreko lerroaldean xedatutakoaren pean dagoen garraiobide batendako, alegia.

**4.** (30) Barneko lurralde eremutik kanpoko Batasuneko lurralde batera bidaltzen bada etendura araubidean dagoen energia elektrikoa, eragiketa Zergatik salbuetsita egongo da. Energia elektrikoa barneko lurralde eremutik irtendakoan araubide hori azkendutzat joko da.

a) Zergaren karga autolikidatzea edo sartzea.

b) Zergaren karga Zerga Administrazioak likidatzea eta likidazioaren emaitzako kopurua sartzea.

c) Zerga Administrazioak aldez aurretik onartzea egitatea ez dagoela kargapean edo kargatik salbuetsita dagoela, ezarritako kasuetan.

d) Zerga Administrazioari Zergaren salbuespenari buruzko aitorpena aurkeztea, ezarritako kasuetan.

**71. artikulua.- (3) Salbuespenak, itzulketak eta murrizketak.**

**1.** (30) Ondoko garraiogailuen behin betiko lehen matrikulazioa Zergaren kargatik salbuetsita dago, bai eta haiek Espainian erabiltzea eta zirkulatzea ere:

a) Indarrean dagoen legerik taxi, autotaxi edo autoturismotzat jotzen dituen ibilgailu automobilak.

b) Kontraprestazio truke gidariak trebatzeko ez beste ezertarako erabiltzen ez diren ibilgailu automobilak.

c) Alokatzeko ez beste ezertarako erabiltzen ez diren ibilgailu automobilak.

Hori dela eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 79. artikuluan ezarritakoaren arabera lotuta dauden pertsonen artean ibilgailu automobilak lagatzea ez da ibilgailuak alokatzea izango, eta pertsona edo erakunde berari hiru hilabete baino aldi luzeagorako edo hamabi hilabeteko jarraiko aldi baterako lagatzea ere ez.

Ildo honetatik, ez dira automobil alokairutzat hartuko errentamendu-salmentako kontratuak eta haiekin berdinetsiak, ez eta erosketa aukerako errentamendu kontratuak ere.

d) Urrituen izenean matrikulatutako ibilgailu automobilak, haien erabilera esklusiborako badira eta betekizun hauek betetzen badira:

1) Gutxienez lau urte pasatuta egotea beste ibilgailu bat antzeko baldintzetan matrikulatu zenetik. Nolanahi ere, betekizun hori ez da bete beharko ibilgailuak erabateko ezbeharra izan badu (behar bezala frogatu beharko da).

2) Ez egitea inter vivos eskualdaketarik hurrengo lau urteetan, ibilgailua matrikulatu den egunetik aurrera.

e) Matrikula diplomatikoen araubidean ondokoen izenean matrikulatzen diren ibilgailuak, arauz ezarritako mugekin eta betekizunekin.

1. Akreditatutako misio diplomatikoak, Espainian egoitza iraunkorra dutenak, eta agente diplomatikoak.

2. Espainiako Estatuarekin egoitza akordioa sinatu duten nazioarteko erakundeak, eta estatutu diplomatikoa duten erakunde horietako funtzionarioak.

3. Karrerako kontsuletxe bulegoak eta atzerriko karrerako kontsulatuetako funtzionarioak.

4. Misio diplomatikoetako eta nazioarteko erakundeetako langile teknikoak eta administraziokoak, eta karrerako kontsuletxe bulegoetako langileak, baldin eta ez badute ez Espainiako nazionalitatea, ez egoitza iraunkorra Espainian.

Aurreko 2. eta 4. zenbakietan ezarritakoa gorabehera, halako erakundeak sortzen dituzten nazioarteko itunetan edo egoitza akordioetan bestelako muga edo betekizun batzuk ezarriz gero, horiexek aplikatuko zaizkie erakundeei, estatutu diplomatikoa duten haien funtzionarioei eta beraien zerbitzuko langile teknikoei eta administraziokoei.

f) (35) Batasuneko beste estatu batean matrikulatutako automobilak, Batasuneko beste estatu bateko pertsonek edo erakundeek Espainian egoiliartutako pertsona fisikoen eskueran jartzen dituztenak, ondokoak betez gero:

1) Automobila Espainian egoiliartutako pertsona fisikoaren eskueran jartzea harekiko lan harreman baten ondorioz gertatzea (soldatapean zein soldatarik gabe).

2) Ibilgailuaren xedea ez izatea batez ere Zergaren aplikazio lurraldean erabiltzea modu iraunkorrean.

Ondoko kasuan ibilgailuaren xedea ez da batez ere Zergaren aplikazio lurraldean erabiltzea modu iraunkorrean: ibilgailua Espainiako egoiliar baten eskueran jarri eta honek egunero estatu mugakide batean dagoen lan zentrorako joan-etorrietarako erabiltzen duenean, oporretako osterak gorabehera.

g) (40) Laketontziak edo itsas kiroletako ontziak, alokairu jardueretarako baino ez badira.

Salbuespen hau ibilgailuen alokairurako ezarritako mugei eta baldintzak betetzeari lotuta geldituko da. Nolanahi ere, alokairu jarduerarik ez dagoela ulertuko da titularrak ontzia lagatzen duenean alokatua izan dadin, baldin eta titular horrek edo berorren hurbilekoren batek kasuan kasuko ontziaren edo beste ontziren baten (horren titularra lagatzailea edo berorri loturiko pertsonaren bat denean) gaineko erabilera osoko nahiz partzialeko eskubidea jasotzen badu edozein tituluren bidez. Paragrafo hau aplikatzeari dagokionez, loturiko pertsonak dira urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

h) (40) Laketontzien edo itsas kiroletako ontziak, horien titulartasuna Merkataritzako Nabigazioren Zuzendaritza Nagusiak ofizialki onartutako kirol nautikoen eskolak badira eta irakaskuntza jarduerarako baino ez badira erabiltzen, horiek gobernatze aldera.

Hala ere, laketontziek edo itsas kiroletako ontziek ez dute galduko salbuespenerako eskubide hori, salbuespen hori izanda irakaskuntzarako zein alokairurako erabiltzen direnean, baldin eta artikulu honetako 1. idatz zatiaren g) letraren bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

i) (35) (40) Konfigurazioa dela eta arraunez edo palaz soilik ibil daitezkeen diren ontziak, eta kategoria olinpikoko belaontziak.

j) (35) (40) Estatuak, autonomia erkidegoek, toki korporazioek eta enpresa zein erakunde publikoek matrikulatutako aireontziak.

k) (35) (40) Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak modu ofizialean onartutako eskolen aireontziak, pilotuen heziketan eta trebakuntza aeronautikoan edo haien lanbide birziklapenean soilik erabiltzen badira.

l) (35) (40) Aire nabigazioan ari diren enpresen aireontziak, baldin eta, araugintzako dekretu honetako 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, haien erabilpena ezin bada hartu aisialdiko abiazio pribatutzat.

Aire nabigazioko enpresei errentatutako aireontzien kasuan, salbuespena ezin izango da aplikatu errentatzaileak edo berari lotutako pertsonek, oro har, aireontziaren jarraiko hamabi hiletako hegaldi orduen % 5 baino gehiago erabili badituzte. Paragrafo hau aplikatzeari dagokionez, loturiko pertsonak dira urtarrilaren 19ko 12/1993

Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

m) (35) (40) Aire nabigazioan ari diren enpresei errentatzeko ez beste ezertarako matrikulatutako aireontziak, baldin eta, araugintzako dekretu honetako 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, haien erabilpena ezin bada hartu aisialdiko abiazio pribatutzat.

Salbuespena ezin izango da aplikatu aireontziaren matrikulazioan agertzen den pertsonak edo berari lotutakoek, oro har, aireontziaren jarraiko hamabi hiletako hegaldi orduen % 5 baino gehiago erabili badituzte. Paragrafo hau aplikatzeari dagokionez, loturiko pertsonak dira urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 79. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

n) (35) (40) Titularrak bere ohiko bizilekua atzerritik Espainiara aldatzen duelako matrikulatzen edo erabiltzen diren garraiogailuak. Salbuespena aplikatzeko betekizun hauek bete behar dira:

1. Interesdunak Espainiako lurraldetik kanpo eduki behar izan du ohiko egoitza lekualdaketaren aurreko hamabi hiletan.

2. Garraiogailuak ohi bezala zergapetuta eskuratu behar dira jatorrizko herrialdean, edo handik inportatu, eta bertatik irtetean ezin zaie aplikatu inolako onurarik, ez ordaindutako kuotarik itzuli.

Aurrekoa betetzat joko da garraiogailua araubide diplomatikoan edo kontsularrean eskuratu edo inportatzen denean, bai eta egoitza jatorrizko estatuan duten nazioarteko erakunde onartuetako kideentzat eskuratu edo inportatzen direnean ere (kasu hauetan erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo egoitza akordioetan ezarritako mugak eta baldintzak bete behar dira).

3. Interesdunak gutxienez sei hilabetez erabili behar du garraiogailua lekualdatu aurretik.

4. Matrikulazioa araugintzako dekretu honetako 70.1.d) artikuluan ezarritako epealdian aurkeztu behar da.

5. Salbuespen hau aplikatzen zaien garraiogailuak matrikulatu ondoko hamabi hiletan eskualdatu behar dira. Hau betetzen ez bada, Zerga ordainaraziko da erreferentzia datatzat ez-betetzea gertatzen den eguna hartuta.

ñ) (40) Beste estatu kide batean matrikulatutako garraiobideak izan eta Espainian egoiliarrak diren pertsona edo erakundeek beste estatu kide bateko hornitzaile bati gehienez ere hiru hilabeterako alokatutakoak, salbu eta idatz zati honetako c) letran aurreikusitako salbuespena aplikatu behar ez bazaie.

**2.** (30) Aurreko idatz zatiko a), b), c), d), f), g), h), k), m) eta ñ) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatzeko, ezinbestekoa da aldez aurretik zerga administrazioak onartzea arauz ezarritako moduan. Hain zuzen ere, d) letran aipatutako salbuespena aplikatzeko, aurretik ezintasunari edo baliaezintasunari buruzko ziurtagiria eman behar du Gizarte Zerbitzuen Erakunde Nazionalak edo erakunde kudeatzaile eskudunak. (40)

Aurreko idatz zatiko e) letrako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da Atzerri Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioak bidezkotasunaren inguruko ziurtagiria ematea.

Gainerako kasuetan, salbuespena aplikatzeko Zerga Administrazioari aitorpena aurkeztu behar zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituen tokian, moduan, aldian eta inprimakian.

Zerga egitatea garraiogailuak Espainian erabiltzea edo zirkulatzea bada, aurreko idatz zatian ezarritako salbuespenetako bat aplikatzeko ezinbestekoa da aldez aurreko onarpenerako eskaera edo aitorpena aurkeztea araugintzako dekretu honetako 70.1.d) artikuluan ezarritako epealdian.

**3.** (30) Garraiogailuak birsaltzen dituzten enpresaburuek honetarako eskubidea dute: zerga egitatea amaitu denetik lau urte pasatu baino lehen garraiogailu bat Zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaliz gero behin betiko, garraiogailuak bidalketa gertatzen denean daukan merkatuko batez besteko balioari dagokion kuotaren zatia itzulketa bidez jasotzeko eskubide. Garraiogailua Zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali dela frogatzeko haren erregistroko bajaren ziurtagiria, matrikulazioaren arloko organo eskudunak emana, aurkeztu behar da.

Aurreko paragrafoan aipatutako itzulketarako erregela hauek aplikatuko dira:

a) Garraiogailua Zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaltzeko arrazoia salmenta irmoa izan behar da.

b) Itzulketaren oinarria garraiogailuak bidalketa egunean daukan merkatuko balioa izango da; ezin da izan araugintzako dekretu honetako 74. artikuluko b) idatz zatiko balorazio taulen aplikazioaren emaitzako zenbatekoa baino gehiago.

c) Itzulketa tasa Zergaren likidaziorako aplikatzen dena izango da.

d) Inolaz ere ezin da itzuli ordaindutako kuota baino gehiago.

e) Enpresaburu birsaltzaileak itzulketa non, nola, zein inprimakitan eta zein epealditan eskatu behar duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztuko du.

**4.** Zerga-oinarriaren zenbatekoa, 74 artikuluak ezarritako eran zehaztua, %50 murriztuko da honako ibilgailuen kasuan: gidari eta guzti bost jarleku baino gehiagoko eta bederatzi jarleku baino gutxiagoko edukiera homologatua duten auto-ibilgailuak, indarreko araudiaren arabera kide anitzeko familiek ez bestek erabiltzeko direnean, beti ere betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Ibilgailuak aipatutako familia horietako aita edo amaren izenean egon beharko du lehenbiziko aldiz behin betiko matrikulatuta, edo bien izenean.

b) Lau urte igarota egon beharko dute aurreko a) letra horretan aipatutako pertsonetako edozeinen izenean eta murrizketa horren babesean beste ibilgailu bat matrikulatu zenez geroztik. Hala ere, ez da horrelakorik eskatuko beste auto horren erabateko ezbeharra behar bezala egiaztatzen denean.

c) Murriztapen honekin matrikulatzen den auto-ibilgailua ezingo da ondoren "intervivos" egintzaren bitartez eskualdatu, matrikulatu ondoren lau urtez.

d) Murriztapen hau aplikatzeko, aldez aurretik, erregelamenduak zehazten duen eran, Zerga Administrazioak aitortu beharko du hori egiteko eskubidea. Edozelan ere, beharrezkoa izango da Zerga Administrazioari kide anitzeko familia izatearen egiaztagiria aurkeztea, Administrazioaren dagokion organoak emandakoa.

**5.** (24) Ondoren azalduko diren ibilgailuen zerga oinarria, 74. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu ondoren, % 30 txikituko da:

a) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskinean "autokarabana" definitutako ibilgailuak (2007ko ekainaren 30ean indarrean zegoen testua).

b) Etxebizitza modura erabiltzeko moldatutako ibilgailuak, 70. artikuluko 70. artikuluko 1.a) idatz zatiko 1. zenbakiko azken paragrafoan eta 8. zenbakiko azken paragrafoan aipatzen direnak.

**72. artikulua.- Subjektu pasiboak.**

Zergaren subjektu pasibo izango dira:

a) Garraiabidearen lehen behin-betiko matrikulazioa bere izenean egina duten pertsona eta entitateak.

b) Honako Dekretu Arautzaile honetako 70 artikuluko 1 ataleko d) letran jasotako kasuetan, aipatu dekretu honen Lehen Xedapen Gehigarriak aipatutako pertsona edo entitateak.

c) Honako Dekretu Arautzaile honetako 70 artikuluko 3 atalean jasotako kasuetan, garraiabidea bere izenean matrikulatua duten pertsona eta entitateak.

**73. artikulua.- Sortzapena.**

**1.** Zerga subjektu pasiboak garraiabidearen behin-betiko lehen matrikulazioaren eskaera aurkezten duen une berean sortzen da.

**2.** Honako Dekretu Arautzailea honen 70 artikuluko 1 ataleko d) letran jasotako kasuetan, zerga c) letrak aipatu epea amaitu eta hurrengo egunean sortuko da.

**3.** Honako Dekretu Arautzaile honen 70 artikuluko 3 ataleko kasuetan, zerga zergagarritasun eza edo zerga-salbuespena eragin zuen inguruabar edo ukanbeharren aldaketa gertatzen den une berean sortuko da.

**74. artikulua.- Oinarri zergagarria.**

Oinarri zergagarria honela eratuko da:

a) Garraiabidea berria bada zenbatekoa izango da: garraiabidea eskuratzean, Balio Erantsiaren Zergarako erabili den oinarri zergagarria, edo bestela, zerga baliokideren batean erabilitako zenbatekoa; bi hauen faltan, eskuratzaileak ordaintutako

kontraprestazioaren zenbateko osoa, Balio Erantsiaren Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 78 artikuluaren arabera zehaztua. Dena den azken kasu honetan, ez dira oinarri zergagarriaren parte izango Zeharkako Kanariar Irletako Zerga Orokorraren kuota ordainduak, garraiabidearen saltzaileak zuzenean jasandakoak.

b) (24) Garraiobidea erabilia izanez gero, Zerga sortu den egunean merkatuan eduki duen balioa.

Garraiobidea atzerrian matrikulatuta egon bada eta Espainiako behin betiko lehen matrikulazioan erabilitzat hartu bada, merkatuko baliotik eskatu ahal izan diren zeharkako zergen kuoten hondar zenbatekoa kenduko da, bertan sartuta dagoen heinean. Aldiz, Espainiako behin betiko lehen matrikulazioan berria izan bada, hondar zenbatekoa ezin kendu izango da. Honen ondorioetarako, hondar zenbatekoa kalkulatzeko ondoren azalduko den ehunekoa aplikatu behar zaio garraiobide erabiliak Zergaren sortzapenean merkatuan eduki duen balioari: zeharkako zergen kuotek garraiobide berriaren salmenta prezioan izan duten ehunekoa, zergak zenbatuta.

Merkatuko balioa zehazteko, subjektu pasiboek Arabako Foru Aldundiak onartutako batez besteko salmenta prezioak erabil ditzakete, hain zuzen ere Zergaren sortzapen egunean indarrean egon direnak. Aurreko paragrafoan aipatutako murrizpena aplika daitekeenean, Arabako Foru Aldundiak prozedura bat ezarriko du batez besteko prezioan zenbat dagokion jasandako zeharkako zergen kuoten hondar zenbatekoari.

Subjektu pasibo batek aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatutako merkatuko balioa aitortzen badu, Zerga Administrazioak ezin egiaztatu izango du balio hori Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan ezarritako beste bideak erabilita.

**75. artikulua.- (22) Zerga tasak.**

**1.** (28) Aplikatu beharreko zerga tasak zehazteko epigrafe hauek aplikatuko dira:

1. epigrafea

a) Modu ofizialean 120 g/km CO2 baino gehiago emititzen ez duten ibilgailuak, "quad" motakoak eta 6, 7, 8 eta 9. epigrafeetako ibilgailuak izan ezik.

b) Barne errekuntzakoa ez den motor bakarra duten ibilgailuak, "quad" motakoak izan ezik.

2. epigrafea. Modu ofizialean 120 g/km CO2 baino gehiago eta 160 g/km baino gutxiago emititzen duten ibilgailuak, "quad" motakoak eta 9. epigrafeko ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea. Modu ofizialean 160 g/km CO2 baino gehiago eta 200 g/km baino gutxiago emititzen duten ibilgailuak, "quad" motakoak eta 9. epigrafeko ibilgailuak izan ezik.

4. epigrafea

a) Modu ofizialean 200 g/km CO2 edo gehiago emititzen duten ibilgailuak, "quad" motakoak eta 9. epigrafeko ibilgailuak izan ezik.

b) Beren $CO_2$ emisioen neurketa beharrezkoa duten ibilgailuak, haiek kreditatzen ez direnean.

c) N2 eta N3 kategorien barruan sartzen diren ibilgailuak, etxebizitza izateko egokituak.

d) "Quad" motako ibilgailuak. "Quad" tankerako ibilgailutzat zera hartzen da: lau gurpil edo gehiagoko ibilgailua, eskuleku gisako zuzentze sistema duena, gidaria hankalatraba eserita doana, eta errepidetik kanpoan erabiltzeko egokia den trakzio sistema batez horniturik dagoena.

e) Uretako motorrak. Uretako motortzat zera hartzen da: motor batek bultzatutako eta pertsona batek edo gehiagok kroskoaren ertzen gainean eta ez haren barruan eserita, zutik nahiz belauniko erabiltzeko proiektatutako ontzia.

5. epigrafea

a) 1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. eta 9. epigrafeetan sartzen ez diren ibilgailuak.

b) Aisialdirako edo uretako kiroletako ontziak, uretako motorrak izan ezik.

c) Hegazkinak, turismo hegazkinak eta aireontziak.

6. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartzen ez diren motozikletak, modu ofizialean 100 g/km $CO_2$ baino gehiago emititzen ez dutenak.

7. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartzen ez diren motozikletak, modu ofizialean 100 g/km $CO_2$ baino gehiago eta 120 g/km edo gutxiago emititzen dutenak.

8. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartzen ez diren motozikletak, modu ofizialean 120 g/km $CO_2$ baino gehiago eta 140 g/km baino gutxiago emititzen dutenak.

9. epigrafea

a) Epigrafe honetako c) letran sartzen ez diren motozikletak, modu ofizialean 140 g/km $CO_2$ edo gehiago emititzen dutenak.

b) Epigrafe honetako c) letran sartzen ez diren motozikletak, $CO_2$ emisio ofiziala zehaztu ez zaienak.

c) EEE potentzia 74 kW (100 CV) edo handiagoa izan eta gehienezko potentzia garbia/ibiltzeko prest dagoen ibilgailuaren masa erlazioa, kW/kg-tan adierazita, 0,66 edo handiagoa duten motozikletak, beren $CO_2$ emisio ofizialak edozein direla ere.

**2.** (24) Ondoko zerga tasak aplikatuko dira:

| | |
|---|---|
| 1. eta 6. epigrafeak | % 0,00 |
| 2. eta 7. epigrafeak | % 4,75 |
| 3. eta 8. epigrafeak | % 9,75 |

| | |
|---|---|
| 4. eta 9. epigrafeak | % 14,75 |
| 5. epigrafea | % 12,00 |

**3.** Aplikatu beharreko zerga tasa sortzapen unean indarrean dagoena izango da.

**4.** (30) Zergaren sortzapena Ceutan edo Melillan gertatzen bada eta garraiogailua behin betiko inportatzen bada penintsulara, Balear uharteetara edo Kanariar uharteetara, Zergaren likidaziorako aplikatu beharreko karga tasa kalkulatzeko aurreko 2. idatz zatiko a) edo b) paragrafoko tasa, kasuan kasukoa, ondoko koefizienteetako batez biderkatu behar da:

a) Behin betiko inportazioa zerga egitatearen ondoko lehen urtean gertatzen bada: 1,00.

b) Behin betiko inportazioa zerga egitatearen ondoko bigarren urtean gertatzen bada: 0,67.

c) Behin betiko inportazioa zerga egitatearen ondoko hirugarren edo laugarren urtean gertatzen bada: 0,42.

Idatz zati honetako kasuetan zerga oinarria garraiogailuaren aduanako balioa izango da.

**5.** (30) Garraiogailu batek Zerga jasaten badu Kanariar uharteetan eta gero, zerga egitatea geratu ondoko lehen urtean, behin betiko inportatzen bada penintsulara edo Balear uharteetara, titularrak Kanarietako Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko karga tasaren eta Arabako Lurralde Historikokoaren arteko diferentziaren emaitzako kuotak likidatu eta sartu behar ditu, zerga oinarria garraiogailuak inportazioa gertatu denean eduki duen balioa dela.

Idatz zati honetako aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu honetan: inportatu den garraiogailua dela eta Kanariar uharteetan Zerga eskatu bada, Arabako Lurralde Historikokoa baino txikiagoa ez den karga tasa aplikatuta.

**6.** Artikulu honetako 4. eta 5. paragrafoen araberako likidazioak eta autolikidazioak ezingo dira eskatu garraiobidearen titularraren bizitokia behin betiko inportazioa edo behin betiko sarrera gertatzen den tokira aldatzen bada.

Idatz-zati honetan xedatutakoa aplikatzeak honako baldintzak bete behar izatea dakar:

a) Interesdunak ohiko bizitegia eduki behar izan dute Ceuta eta Melillan edo Kanariar uharteetan lekualdaketaren aurreko elkarren segidako hamabi hilabeteetan gutxienez.

b) Garraiobideak Ceuta eta Melillan edo Kanariar uharteetan dauden zerga ohiko baldintzetan eskuratu behar izan dira, eta lurralde horietatik irtetean ezin izan dira izan kenketa edo itzulketaren onuradun.

c) Interesdunak sei hilabetez erabili behar izan ditu garraiobideak antzinako bizitokian, bizitoki hori utzi aurretik.

d) Atal honetan aipatutako garraiobideak inportatu edo sartu eta ondorengo hamabi hilabeteetan ezingo dira eskualdatu. Betekizun hori ez betetzeak kasuan kasuko likidazioa edo autolikidazioa ekarriko du, ez betetze hori gertatu zen uneari dagokionez.

**7.** CO2 isurketa ofizialak ibilgailuaren ekoizleak edo inportatzaileak jaulkitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, salbu eta isurketok ikuskapen teknikoko txartelan edo ibilgailu zehatzerako jaulkitako beste edozein agiri ofizialetan agertzen direnean.

**76. artikulua.- (40) Zergaren kuota.**

**1.** Zerga honi dagokion kuota zerga oinarriari 75. artikuluan zehaztutako karga tasak aplikatuz lortuko da.

**2.** Dena den, zerga kuota ezarriko da zerga aplikagarri den lurraldean garraiobideak erabiltzen diren hil edo hil zatiki bakoitzeko ezarriko da, honako kasuetan:

a) Batasuneko beste estatu batean matrikulatutako automobilak, Batasuneko beste estatu bateko pertsonek edo erakundeek Espainian egoiliarrak diren pertsona fisikoen eskueran jartzen dituztenak, ondokoak baldintzak betez gero:

 1. Automobila Espainian egoiliarra den pertsona fisikoaren eskueran jartzea harekiko lan harreman baten ondorioz gertatzea, soldatapean zein soldatarik gabe.

 2. Ibilgailua batez ere zergaren aplikazio lurraldean modu iraunkorrean erabiltzeko izatea.

b) Garraiobideak beste estatu kide batean matrikulatutakoak eta, aldi berean, Espainian egoiliarrak diren pertsona edo erakundeek beste estatu kide bateko hornitzaile bati hiru hilabete baino gehiagorako alokatutakoak izatea.

 Zehazki, zerga honi dagokion kuota 1. idatz zatiaren arabera zehaztutako zenbatekoa honako ehunekoekin biderkatzearen emaitza izango da:

 - Lehenengo 12 hilabeteak: ehuneko 3.

 - 13 hilabetetik 24ra: ehuneko 2.

 - 25 hilabetetik aurrera: ehuneko 1.

Idatz zati honetan ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga kuotaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan 1. idatz zatiaren arabera kalkulatutako zerga kuotaren zenbatekoa baino.

**77. artikulua.- (22) Likidazioa eta zerga ordainketa.**

**1.** (40) Subjektu pasiboak zergaren autolikidazioa eta ordainketa egin behar ditu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako lekuan, moduan, epeetan eta inprimakietan.

Zerga kuota 76. artikuluaren 2. idatz zatian ezarritakoari jarraituz zehaztu bada, eta zerga administrazioko organoek egoki iritziz gero, kasuan kasuko autolikidazioarekin batera

bermatuko da zerga kuota 76. artikuluaren 1. idatz zatiaren arabera zehaztu izanez gero ordaindu beharko zen zenbatekoaren gainerakoa, kreditu erakunde baten edo elkarrekiko bermeko sozietate baten abal solidarioaren bidez edo kauzio aseguruaren bidez.

Bermearen zenbatekoa garraiobidea zergaren aplikazio lurraldetik kanpo bidali dela egiaztatzen denean itzuliko da.

Garraiobidea aitortutakoa baino denbora luzeagoan erabili bada zergaren aplikazio lurraldean subjektu pasiboak erregularizatu gabe, zergaren kuota likidatuko da 76. artikuluaren 1. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz, baina aurretik sartutako zenbatekoa murriztuta.

**2.** Zerga Administrazioak eman behar dio onespena autolikidazioari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak agindutako moduan, organo eskudunaren aurrean behin betiko matrikulatu baino lehen.

Autolikidaziotik ateratzen den kuota txikiagoa denean Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartutako salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz aterako litzatekeen kuota baino, zerga Administrazioak, onespena eman baino lehen, zerga oinarri gisa jarritako zenbatekoa edo balioa egiaztatuko du Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Batez besteko prezioak izango dira interesatuak zerga Administrazioari oniritzia eskatzen dionean indarrean daudenak. Aitorpenean jasotako zenbatekoa edo balioa egiaztatu ahal izango da, era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak autolikidazioan aipatutako ibilgailurako onartutako salmentako batez besteko preziorik ez dagoenean.

Gehienez 60 egun izango dira aipatu balioa egiaztatzeko, ibilgailua zerga Administrazioaren eskura jartzen denetik aurrera. Behin aipatu epea igarota zenbatekoa edo balioa egiaztatu gabe, behin behineko onartu egingo da zergapekoak aitortutako balioa. Epea zenbatzeko, aplikaziozkoa izango da otsailaren 8ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak, 100. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoa. Behin-behineko onespena eman ahal izango da, aurretik zenbatekoa edo balioa egiaztatu gabe, autolikidazioa aurkeztean.

Nahiz eta behin-behineko onespena eman, harrezkero Administrazioak autolikidazioa egiaztatu ahal izango du.

**3.** Garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zerga ordaindu dela egiaztatu behar da edo, hala denean, zergapekoa ez dela zein salbuetsita dagoela.

**78. artikulua.- Arau-hauste eta zehapenak.**

Zerga honen arau-hausteak Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikazio orokorreko gainontzeko arauetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta zigortuko dira.

## (21) (45) III. TITULUA
## IKATZAREN ETA ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK

# I. KAPITULUA
# IKATZAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

**79. artikulua.- Eremu objektiboa.**

**1.** Zerga honen ondorioetarako, ikatz izango dira Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87 (EEE) Erregelamenduaren bidez ezarritako muga zergen eta estatistiken nomenklaturako (aurrerantzean "nomenklatura konbinatua") 2701, 2702, 2704, 2708, 2713 eta 2714 kodeetan bildutako gaiak.

**2.** Nomenklatura konbinatuaren egituran zerbait aldatuz gero, araugintzako dekretu honetako 18.2. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

**80. artikulua.- Aplikazioaren lurralde eremua.**

**1.** Ikatzaren gaineko Zerga Berezia araugintzako dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz eskatuko da Arabako Lurralde Historikoan.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoak ez du eragotziko nazioarteko hitzarmenetan eta itunetan ezarritakoa.

**81. artikulua.- Zerga gaia.**

**1.** Zergak ikatza kontsumotako jartzea kargatzen du.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako, ondoko eragiketak dira ikatza "kontsumotako jartzea”:

a) Ikatza Batasunaren barruan ekoiztu edo erauzi ondoren, edo inportatu edo eskuratu ondoren, lehen aldiz saltzea edo ematea araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako lurralde eremuan. Ildo honetatik, lehen salmenta edo ematetzat hartuko dira eskuratu ondoren ikatza beste batzuei saltzen dieten enpresarioek egiten dituztenak, baldin eta eskuratzean araugintzako dekretu honetako 83.1. artikuluan ezarritako salbuespena aplikatu bazaie.

b) Ikatzaren autokontsumoa. Honen ondorioetarako, autokontsumoa izango da Batasunaren barruko ikatzaren ekoizleek edo erauzleek, inportatzaileek, eskuratzaileek edo aurreko letran aipatutako enpresarioek ikatza erabiltzea eta kontsumitzea.

**3.** Ikatza kontsumotako jarri dela pentsatuko da subjektu pasiboak ez badu frogatzen zertan erabili den ekoiztu, inportatu edo eskuratutako ikatza.

**82. artikulua.- Zergaren kargapean ez daudenak.**

**1.** Ez daude Zergaren kargapean Batasunaren barruko ekoizleek edo erauzleek, inportatzaileek edo eskuratzaileak araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan

zehaztutako lurralde eremutik kanpora zuzenean bidalita egiten dituzten ikatz salmentak eta emateak.

**2.** Aurreko idatz zatian ezarritakoak ondoreak izan ditzan, ondokoak bete behar dira:

a) (28) Ikatza "Batasunaren lurraldera" (dekretu honetako 4. artikuluko 7. idatz zatian zehaztua) bidaltzen bada, hain zuzen ere dekretu honetako 80. artikuluan zehaztutakoa ez beste lurralde eremu batera, bidaltzen duen enpresaburuak frogatu behar du, eskatzen bazaio, enpresa jasotzailea bere estatuan behar bezala erregistratu dagoela, hau da, bertako arautegian ezarritakoaren arabera erregistratu dagoela, eta ikatza jaso duela ere bai. Kanarietako Autonomia Erkidegora ikatza bidaltzen bada, ondoko letran xedatutakoa aplikatuko da.

b) Ikatza Zergaren lurralde eremutik kanpo bidaltzen bada, hau da, aurreko letran adierazi ez den leku batera, bidaltzen duen enpresarioak esportazioa frogatu behar du aduana agiri egokiaren bidez, edo, bestela, ikatza Kanarietako Autonomia Erkidegora bidali dela.

**3.** Ikatzaren ekoizleek edo erauzleek ekoizpen edo erauzpen instalazioetan euren jarduerei lotuta egiten duten autokontsumoa ez dago Zergaren kargapean.

**83. artikulua.- Salbuespenak.**

**1.** Enpresarioek ikatza araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako lurralde eremuan berriz saltzeko asmoarekin egiten duten lehen salmenta edo ematea salbuetsita dago.

**2.** Enpresarioek ikatza eskuratu ondoren Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo egiten duten lehen salmenta edo ematea salbuetsita dago. Salbuespena aplikatu ahal izateko, araugintzako dekretu honetako 82.2. artikuluan ezarritako guztia bete behar da.

Hala ere, hala eskuratzen den ikatza araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako lurralde eremuaren barruan kontsumitzeko bada, lehen salmenta edo ematea ikatza destinoan kontsumitzen denean egintzat joko da.

**3.** Ikatza kontsumotako jartzeko eragiketak Zergaren kargatik salbuetsita daude ikatza ondoko erabileretarako izanez gero:

a) (35)

b) Erredukzio kimikoak eta prozesu elektrolitiko eta metalurgikoak.

c) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikoak dira Kontseiluaren 1990eko urriaren 9ko 3037/90 (EEE) Erregelamenduaren bidez ezarritako NACE nomenklaturako DI 26 kodean sailkatutakoak: gai mineral ez-metalikoen industriak.

d) Etxe eta egoitzetan erregai gisa erabiltzeko. Ikatza honexetarako erabiliko dela pentsatuko da saldu edo ematen zaion kontsumitzailea industriakoa ez bada.

e) Errakuntza ez dakarten erabilera guztiak.

**4.** (44) Alde batera utzi gabe 2. apartatuan ezarritakoa, artikulu honetan jasotzen diren salbuespenak aplikatzeko baldintza izango da arautegiz ezarritako baldintzak betetzea.

**84. artikulua.- Itzulketak.**

**1.** Ikatza araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako aplikazio eremutik kanpo bidaltzen duten enpresarioek Ikatzaren gaineko Zerga Bereziaren kuotak itzultzeko eskubide izango dute.

**2.** Itzulketa burutzeko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Ikatza bidali dela frogatu behar da araugintzako dekretu honetako 82.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Itzultzeko eskatzen den kuotak sartu egin direla frogatu behar da aitorpen-likidazioa aurkeztuta. Hala ere, ikatza Zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaltzen duen enpresarioa subjektu pasiboa edo ordaindu behar duen arduraduna bada, kuota sartu izana frogatzeko hura jasanarazita ageri den faktura aurkeztu behar da.

**3.** Jasandako kuotaren zenbatekoa itzuliko da. Hala ere, zenbatekoa zehaztea posiblez ez balitz, itzulketarako eskubidea lortzeko operazioa egin baino hiru hilabete arinago indarrean zegoen tipoa aplikatuko litzateke, eta horrela kuoten zenbatekoa zehaztuko litzateke.

**4.** Itzulketarako behin-behineko baimena eman daiteke. Behin-behineko itzulketak behin betiko bihurtuko dira Zerga Ikuskatzailetzak egiaztatutakoan, bai eta itzulketarako eskubidea sortu duen eragiketa egin denetik lau urte pasatutakoan ere.

**85. artikulua.- Subjektu pasiboak.**

**1.** Hauexek dira Zergaren subjektu pasiboak: Zergaren kargapean dauden salmenta edo emateak edo autokontsumo eragiketak egiten dituzten Batasunaren barruko ikatz ekoizle edo erauzleak, inportatzaileak eta eskuratzaileak eta ikatz birsaltzaileak.

**2.** Araugintzako dekretu honetako 83.2. artikuluko bigarren paragrafoan araututako kasuetan, ikatza eskuratu ondoren araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako aplikazio lurraldean kontsumitzeko xedematen duten enpresarioak izango dira subjektu pasiboak.

**86. artikulua.- Sortzapena.**

**1.** Zerga ikatza eskuratzaileen eskura jartzen denean sortuko da, edo autokontsumoa gertatzen denean.

**2.** Araugintzako dekretu honetako 81.3. artikuluan ezarritako kasuetan, Zerga ikatzaren xedea ez dela frogatu egiaztatzen denean sortuko da.

**3.** Araugintzako dekretu honetako 83.2. artikuluko bigarren paragrafoan araututako kasuetan, Zerga ikatza araugintzako dekretu honetako 4.0. artikuluan zehaztutako aplikazio lurraldean kontsumitzeko xedematen denean sortuko da.

**87. artikulua.- Zerga oinarria.**

**1.** Zerga oinarria kargapeko eragiketen xede den ikatzaren indar energetikoa da, gigajuliotan (GJ) emana.

**2.** Zerga oinarria zuzeneko zenbatespeneko araubidea aplikatuta zehaztuko da. Zerga oinarria zeharkako zenbatespenaren bidez zehaztu ahal izango da otsailaren 28ko Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako kasuetan, bertan ezarritakoa aplikatuta.

**88. artikulua.- (39) Zerga tasak.**

**1.** Ondoko epigrafe hauei jarraituz eskatuko da zerga:

1.1. epigrafea: Helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza, baldin eta energia elektrikoaren zuzeneko nahiz zeharkako sorkuntza edo baterako sorkuntzako prozesuetan ez bada erabiltzen: 0,15 euro gigajouleko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza esaten zaie industria lantegi eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren ikatz hornikuntzei, salbu eta energia termiko baliagarria sortzeko erabiltzen dena, energia horren azkeneko aprobetxamendua industria lantegi edo instalazioen izaera ez duten establezimendu edo lokaletan egiten bada. Halaber, helburu profesionalekin erabiltzeko den ikatza iritziko zaio nekazaritza lanetan erabiltzen den ikatzari.

1.2. epigrafea: beste erabilera batzuetarako ikatza: 0,65 euro gigajouleko.

**2.** Energia elektrikoa eta energia termiko baliagarria batera sortzeko instalazio batean erabiltzeko den ikatzaren hornikuntzan, instalazio hori behartuta baldin badago azaroaren 27ko 54/1997 Legea, Arlo Elektrikoarena, garatzen duen araudian azaltzen den baliokideko errendimendu elektrikoa betetzen duela egiaztatzera, artikulu honetako 1. idatz zatiko 1.1.eta 1.2. epigrafeetan araututako zerga tasak aplikatuko dira, alternadore borneetan neurtutako elektrizitate ekoizpenari eta energia termiko baliagarriari egotzi behar zaien ikatz ehunekoaren arabera, arauz ezarriko den prozedurari jarraituz.

**89. artikulua.- Zergaren jasanarazpena.**

**1.** Behar den kasuetan, subjektu pasiboek jasandako kuotak ikatza eskuratzen dutenei jasanarazi beharko dizkiete, eta hauek jasan egin beharko dituzte.

(39) Araugintzako dekretu honen 88. artikuluko 2. idatz zatian azaltzen den bezala egindako ikatz hornikuntzetan, sortutako kuoten zenbatekoa elektrizitatea eta energia termiko baliagarria batera sortzeko zentralen titularrek adierazitako behin-behineko ehuneko baten arabera jasanarazi duten subjektu pasiboek, erregularizatu beharko dute

jasanarazitako kuoten zenbatekoa ikatzaren behin betiko helburu ehunekoaren arabera, azken hau jakin eta gero, arauz ezarriko den prozeduraren bitartez.

**2.** Baldin eta, indarreko arautegiarekin bat etorriz, kargapeko eragiketa faktura edo antzeko agiri batean agertu behar bada, sortutako kuotak bertan jasanaraziko dira, beste kontzeptuetatik bereizita. Eragiketa ez badago kargapean, edo salbuetsita badago, agiri horretan aipatuko da, eta onuraren oinarrian dagoen araugintzako dekretu honetako manua aipatu behar da.

### 90. artikulua.- Kudeatzeko arauak.

**1.** Hiru hilean behin, subjektu pasiboek aldi horretan sortutako kuoten aitorpen-likidazioa aurkeztu behar dute, eta horrekin batera zerga zorra ordaindu. Epealdian kuotarik batere sortu ez bada, ez dute edukiko aurrekoa egin beharrik.

**2.** Halaber, subjektu pasiboek urtean Zergaren eremu objektiboko gaiekin egindako eragiketen laburpen aitorpena aurkeztu behar dute.

**3.** Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu aurreko idatz zatietan aipatutako aitorpenak aurkezteko ereduak, epeak, betekizunak eta baldintzak.

### 91. artikulua.- (39) Arau-hausteak eta zehapenak.

**1.** 88. artikuluko 1.1. epigrafean ezarritako zerga tasa aplikatuz egiten diren ikatz hornikuntzetan, zerga arloko arau-haustea da gezurrezko edo okerreko datuak jakinaraztea subjektu pasiboei, horrek bidezkoak direnak baino kuota txikiagoak jasanaraztea badakar berekin.

Zehapenaren oinarria, jasanarazi beharko ziren kuoten eta benetan jasanarazi direnen arteko aldea izango da.

Zehapena ehuneko 50eko isun proportzionala izango da.

**2.** Zerga honi dagozkion gainerako arau-hausteak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako Zergei buruzkoan, xedatutakoarekin bat etorriz kalifikatu eta zehatuko dira.

## II.KAPITULUA
## ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIA

### 92. artikulua.- (45) Izaera.

Elektrizitatearen gaineko zerga berezia elektrizitatearen kontsumoa kargatzen duen zeharkako zerga da. Hain zuzen ere, energia elektrikoa kontsumorako hornitzea kargatzen du fase bakarrean, bai eta norberak sortzen duen elektrizitatea kontsumitzea ere.

**93. artikulua.- (45) Eremu objektiboa.**

Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren eremu objektiboa honako kode hau daukan energia elektrikoa da: 1987ko uztailaren 23ko 2.658/87 (EEE) Erregelamenduaren bidez ezarritako muga zergen eta estatistiken nomenklaturako 2716 kodea.

**94. artikulua.- (45) Aplikazio eremua.**

1. Elektrizitatearen gaineko zerga berezia araugintzako dekretu honetan xedatzen denarekin bat etorriz eskatuko da Arabako Lurralde Historikoan.

2. Aurreko zenbakian xedatzen denak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduan txertatutako nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatzen dena, Espainiako Konstituzioak 96. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

**95. artikulua.- (45) Zerga gaia.**

1. Zergapean daude:

a) Pertsona edo entitate bati energia elektrikoa hornitzea berak kontsumitzeko; hauxe da energia elektrikoa hornitzea: sare elektrikoa erabiltzeko saripeko zerbitzua egitea, bai elektrizitatea ematea.

Zerga hau aplikatzeko, energia ibilgailuak kargatzeko erosten duten pertsona fisikoak zein juridikoak kontsumitzaileak izango dira beti.

b) Norberak sortzen duen energia elektrikoa kontsumitzea.

2. Araugintzako dekretu honetan ageri diren berezko substantibotasuneko kontzeptuak eta terminoak direla eta, sektore elektrikoaren Estatuko araudian xedatzen dena aplikatuko da, dekretuan bertan zehazten diren kasuetan izan ezik.

**96. artikulua.- (45) Zergapean ez daudenak.**

Ez dago zergaren kargapean norberak guztira 100 kilovat (kW) baino gehiago ez dituzten sorgailuen edo sorgailu multzoen bitartez sortzen duen elektrizitatea kontsumitzea.

**97. artikulua.- (45) Salbuespenak.**

Honako hauek salbuetsita daude (arautegian zehaztuko da nola):

1. Energia elektrikoa hornitzea harreman diplomatiko edo kontsularraren esparruan.

2. Energia elektrikoa hornitzea Espainiak onartzen dituen nazioarteko erakundeei eta erakunde horietako kideei, erakunde horiek eratzeko nazioarteko hitzarmenetan edo egoitzen akordioetan zehazten diren mugen barruan eta horietan finkatzen diren baldintzekin.

3. Energia elektrikoa hornitzea Espainia ez Iparraldeko Atlantikoaren Hitzarmenaren kide den beste estatu bateko indar armatuei edo horren zerbitzuko langile zibilei edo haien jantoki eta kantinetarako.

4. Energia elektrikoa hornitzea beste herrialde batzuekin edo nazioarteko erakundeekin egindako hitzarmenen esparruan, baldin eta hitzarmena balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespenerako onartzen edo baimentzen bada.

5. Energia elektrikoa kontsumitzea iturri berriztagarrietako energia elektrikoa sortzeko, elektrizitatea eta beroa sortzeko eta hondakinak energia sortzeko baliatzeko instalazioen titularrek, baldin eta instalazioaren potentzia 50 megawatt-etik (MW) gorakoa ez bada.

6. Erregai pilen bidez sortzen den energia elektrikoa kontsumitzea.

7. Elektrizitatea sortzeko instalazioetan energia elektrikoa kontsumitzea jarduera hori egiteko, eta energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioei energia elektrikoa hornitzea jarduera horiek egiteko.

8. (47) Ontzietankontsumitutako energia elektrikoa, ontzian bertan sortutakoa bada.

9. (47) Hornitutako energia elektrikoa, soberako ordu energiarekin konpentsatzen dena, konpentsatu beharreko soberakinak dituen autokontsumo modalitatean, energia elektrikoaren autokontsumoarenbaldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

10. (48) Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuei hornitutako energia elektrikoa, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko, betiere indar horiek Batasunaren jarduera bat gauzatzeko segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan egindako defentsa ahalegin bati lotuta badaude.

**98. artikulua.- (45) Sortzapena.**

Zergaren sortzapena une hauetan gertatuko da:

a) 95. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran arautzen den kasuan, fakturazioaldi bakoitzean hornitutako energia elektrikoaren prezioaren zatia eskatu ahal denean.

b) 95. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran arautzen den kasuan, energia kontsumitzen denean.

**99. artikulua.- (45) Zergadunak.**

1. Honako hauek dira zergadunak:

a) 95. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran arautzen den kasuan, abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, sektore elektrikoarenak, xedatzen duen gaikuntzarekin kontsumitzaileei energia elektrikoa hornitzen dietenak, artikulu honetako 3. idatz zatian ezartzen dena gorabehera.

b) 95. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran arautzen den kasuan, berek sortzen duen energia elektrikoa kontsumitzen dutenak.

2. Baldin eta irregulartasunen bat gertatzen bada xedearen araberako salbuespena edo murrizketa aplikatu zaion elektrizitatearen erabileraren edo xedearen justifikazioan, hornitzaileak zerga zorra ordaindu beharko du, bai eta ezartzen diren zehapenak ere, hornidura bulego kudeatzaileak baimendutako edo aipatutako zerga onura eduki dezakeen kontsumitzaile bati hornitu zaiola frogatu ezean.

3. Artikulu honetako hurrengo idatz zatian arautzen dena gorabehera, elektrizitate hornidura bat ez badago zergaren kargapean, salbuetsita badago edo kargari murrizketa aplikatzen bazaio, honako hau izango da zergaren karga zuzena jasan ez duen elektrizitate kopuruaren zergaduna: hornitzaileari erregularizazioaren datu zehatzak arauz ezarritako epealdian eta moduan ez jakinarazteagatik bidegabeko zerga onura jaso duen kontsumitzailea.

4. Kontsumitzaile bati energia elektrikoa hornidura gune bakar batean hornitzen bazaio eta hornitutako energiaren zati bat kargatik salbuetsita badago araugintzako dekretu honek 97.7 artikuluan ezartzen duenaren arabera, zergaduna kontsumitzailea da. Horrez gainera, artikulu honetako 1. idatz zatiko a) letran aipatzen direnak ere zergadunak dira beren kontsumorako erositako elektrizitateagatik.

**100. artikulua.- (45) Zerga oinarria.**

Hauxe izango da: balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazio lurraldean loturarik gabeko pertsonen artean egindako energia elektrikoaren kostu bidezko hornidura batek balio erantsiaren gaineko zergaren tributaziorako edukiko lukeen zerga oinarria (urtarrilaren 19ko 12/1993ko Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 78. eta 79. artikuluetan arautzen duenarekin bat etorriz), elektrizitatearen gaineko zergaren beraren kuotak kenduta.

**101. artikulua.- (45) Likidazio oinarria.**

1. Honako erabilera hauetako baterako den elektrizitatearen likidazio oinarria zerga oinarriari ehuneko 85eko murrizketa aplikatzearen emaitza izango da, arauz ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betez gero:

a) Erredukzio kimikoak eta prozesu elektrolitikoak.

b) Prozesu mineralogikoak. Prozesu mineralogikotzat joko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 20ko 1893/2006 (EE) Erregelamenduaren 23. banaketan sailkatutakoak. Aipatutako erregelamenduak, 2. berrikuspeneko jarduera ekonomikoen estatistikako nomenklatura (EEJN) ezarri eta Kontseiluaren 3037/90 (EEE) Erregelamendua eta estatistikako alderi espezifiko batzuei buruzko zenbait erregelamendu aldatzen ditu.

c) Prozesu metalurgikoak. Prozesu metalurgikotzat joko dira metala ekoitzi eta prestatzekoak, bai eta, metalezko produktuen ekoizpenaren barruan, forjatu, prentsa, trokelaketa eta luzaketa piezak, eraztun ijeztuak eta mineral hautsen produktuak ekoiztea,

eta gainazalen tratamendua eta galdaketa, beroketa, kontserbazio eta distentsio termotratamendua edo beste termotratamendu batzuk.

d) Elektrizitatearen kostua produktuaren ehuneko 50etik gorakoa den industria jarduerak.

Horretarako, produktu baten kostua honako hauen batura da: erositako ondasun eta zerbitzuen kostua, eskulanaren kostua eta kapital finkoaren kontsumoa. Kostua batez besteko unitateetan ematen da.

Elektrizitatearen kostua haren benetako erosketa balioa da, edo hura sortzeko kostua, enpresan bertan sortzen bada, zerga guztiak (BEZ kengarria ez beste guztiak) gehituta.

e) Nekazaritzakoureztatzeak.

f) Elektrizitate erosketen edo kontsumoen kostua produkzioaren balioaren ehuneko 5etik beherakoa den industria jarduerak.

Hori dela eta kontzeptu hauek zehazten dira:

- "Elektrizitate erosketak edo kontsumoa": erosi edo kontsumitutako energia elektrikoaren benetako kostua, zerga guztiak (BEZ kengarria ez beste guztiak) gehituta.

- «Produkzioaren balioa»: negozioen zenbatekoa, izakinen aldakuntza, aribideko produktuak eta amaitutako produktuak gehituta.

2. Aisialdirako ontzi pribatuak ez portuko beste ontzi batzuei hornitzen zaien energia elektrikoaren likidazio oinarria zerga oinarriari ehuneko 100eko murrizketa aplikatzearen emaitza izango da, arauz ezartzen diren baldintzak eta betekizunak betez gero.

Horretarako, «aisialdirako ontzi pribatuak» dira jabeek edo errentamendua edo beste zerbait dela bide erabiltzeko eskubidea daukaten pertsona fisikoek zein juridikoek merkataritza ez beste xede baterako (batez ere ez bidaiariak ez salgaiak garraiatzeko, ez kostu bidezko zerbitzuak egiteko) erabiltzen dituzten ontziak, eta agintaritza publikoek ezartzen dituzten beharrizanetarako erabiltzen ez dituztenak.

3. (47) Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga oinarriari ehuneko 100eko murrizketa egingo zaio, hala badagokio, eta murrizketa hori trenbideko garraioan hornitutako edo kontsumitutako energia elektrikoaren kantitateari aplikatuko zaio, betiere erregelamenduz ezarritako eskakizunak eta baldintzakbetetzen badira.

**102. artikulua.- (45) (50) Zerga tasa.**

1. Artikulu honetako 2. idatz zatian ezartzen dena gorabehera, zerga honen karga tasa ehuneko 5,11269632 izango da.

2. Idatz zatian ezartzen den zerga tasa aplikatzearen emaitzako kuota osoak ezin dira izan honako hauek baino txikiagoak:

a) (47) 0,5 euro megawatt-orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria erabileretarako, portuetan atrakatutako aisialdirako ontzi pribatuak ez diren ontzietarako edo trenbideko garraiorako erabiltzen bada.

b) 1 euro megawat-orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea beste erabilera batzuetarako bada.

Idatz zati honetan arautzen den baldintza betetzen ez bada, a) eta b) letretan adierazten diren zenbatekoak 1. idatz zatiko zerga tasaren ordez aplikatuko diren zerga tasatzat hartuko dira, eta aldian guztira hornitu edo kontsumitutako elektrizitate kopuru osoari (megawat-orduak, MWh) aplikatuko zaizkio.

3. Idatz zatian arautzen denari dagokionez, industrian erabiltzeko elektrizitatea da:

a) Goi tentsioan edo industria lantegi eta instalazioetara hornitzen dena.

b) Behe tentsioan hornitzen dena nekazaritzako ureztaketak egiteko.

4. Idatz zatian xedatzen dena ez da aplikatuko 101. artikuluko 1. idatz zatiko a), b), c) eta d) letretan arautzen diren kasuetan.

**103. artikulua.- (45) Kuota osoa.**

Kuota osoa kalkulatzeko, aurreko artikuluan ezartzen denaren araberako zerga tasa aplikatu behar zaio likidazio oinarriari.

**104. artikulua.- (45) Jasanarazpena.**

1. Zergadunek oso-osorik jasanarazi beharko diote zergaren zenbatekoa kargapeko eragiketa egiten dioten pertsonari. Horrek jasanarazpena onartu beharko du, araugintzako dekretu honetan xedatzen denarekin bat etorriz eginez gero, bien artean hizpatutakoa gorabehera.

Araugintzako dekretu honetako 101. artikuluan aipatzen diren murrizketen onuradunek adierazitako behin-behineko ehunekoaren arabera sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazten duten zergadunek eta zerga kargapean ez egoteko edo salbuetsita egoteko onura eduki dutenek emandako datuen arabera jasanarazten ez dutenek jasanarazitako edo jasanarazi beharreko kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute berariazko arautegian ezartzen den prozedura baten bitartez arautegian bertan ezartzen den moduan datu zehatzak jaso ondoren.

2. Sortutako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita. Eragiketa salbuetsita badago edo likidazio oinarriari murrizketa aplikatzen bazaio, fakturan aipatuko da, eta onuraren oinarrian zer xedapen dagoen adierazi behar da.

3. 95. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen diren kasuetan, sortutako kuotak ez dira jasanaraziko kontsumitzailea zergaduna denean, ez likidazioa ikuskapen akten ondorioa denean, ez oinarriak zeharka zenbatesten direnean.

**105. artikulua.- (45) Kudeatzeko arauak.**

1. Zerga honen zergadunek autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte eta, aldi berean, zerga zorra ordaindu beharko dute. Aurreko paragrafoko autolikidazioak aurkezteko prozedura eta epealdia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu.

2. Zerga honen autolikidazioak aurkeztu behar dituztenek, artikulu honetako 4. idatz zatian aipatzen diren ordezkariek eta araugintzako dekretu honetako 97. artikuluko 5., 6. eta 7. idatz zatietan arautzen diren salbuespenen onuradunek eta 101. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren murrizketen onuradunek lurralde erregistro egokian inskribatzeko eskatu beharko diote jarduera egiten duten establezimendua dagoen tokian edo zerga egoitza duten tokian zerga bereziak kudeatzen dituen bulegoari.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zerga honen zergapekoen erroldaren egitura ezarriko du, eta horiek lurralde erregistroan inskribatzeko prozedura eta epealdia ere bai.

3. Aurreko bi idatz zatietan arautzen dena gorabehera, beharrezkotzat jotzen diren aitorpen informatiboak aurkezteko eta beste betebehar formal batzuk betetzeko baldintzak eta betekizunak arautegi batean ezarriko dira.

4. Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema bateratuari buruzkoak, 258. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, egoitza Espainiako lurraldean ez duten zergadunek egoitza Espainian daukan pertsona fisikoa edo juridikoa izendatu behar dute beren ordezkaria izan dadin zerga honen inguruko betebeharretarako zerga administrazioaren aurrean, eta izendapena zerga gaia gertatu baino lehen edo gertatzen denean, beranduenik, egin behar dute, eta frogatu.

**106. artikulua.- (45). Arau hausteak eta zehapenak.**

1. Elektrizitate hornidura batean kargapean ez egoteko, salbuetsita egoteko edo murrizketa egiteko onura aplikatuz gero, zergen arloko arau hausteа izango da datu zehatzak ez jakinaraztea arauz ezartzen den epealdiaren barruan, baldin eta horren ondorioz bidezko kuota jasanarazten ez bada edo behar baino kuota txikiagoa jasanarazten bada.

Zehapenaren oinarria jasanarazi beharreko kuoten eta benetan jasanarazitakoen arteko diferentzia izango da.

Zehapena diru isun proportzionala izango da: ehuneko 15.

Horrelako kasuetan Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 192. artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.

Artikulu honetan arautzen den zehapena ez da aplikatuko honako kasu honetan: zehapena ezarri behar denean Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 195. artikuluan arautzen duen autolikidazioaren ondoriozko zerga zorra ez ordaintzeagatik gertatzen den arau hausteagatik.

2. Aurreko artikuluko 4. idatz zatian aipatzen den betebeharra ez betetzea zergen arloko arau haustea izango da, eta horren zehapena diru isun finkoa izango da: 1.000 euro.

3. Zerga honen inguruko gainerako arau hausteak Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatzen duenarekin bat etorriz kalifikatu eta zehatuko dira, aurreko artikuluan ezartzen dena eragotzi gabe.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.- (30)**

**1.** Araugintzako dekretu honetan aipatutako garraiogailuak, berriak zein erabiliak, behin betiko matrikulatu behar dira Espainiako egoiliar diren pertsonek edo erakundeek Espainiako lurraldean erabiltzeko direnean, edo Espainian dauden establezimenduen titularrek erabiltzeko.

**2.** Garraiogailuen matrikulazioari buruzko arautegian ezarritakoa gorabehera, aurreko idatz zatikoa ez da bete beharko baldin eta, araugintzako dekretu honetako 70. artikuluko 1. zenbakiko d) letran Zenbait Garraiogailuren gaineko Zerga Bereziaz ezarritako eskakizunari dagokionez, ondokoa gertatzen bada bertan ezarritako epealdian.

a) Zerga autolikidatzea eta sartzea

b) Zerga Administrazioari eskatzea aldez aurretik onartzeko egitatea ez dagoela kargapean edo kargatik salbuetsita dagoela, ezarritako kasuetan

c) Zerga Administrazioari Zergaren salbuespenari buruzko aitorpena aurkeztea

**3.** Garraiogailuen matrikulazioari buruzko arautegian ezarritakoa gorabehera, ondoko kasu honetan ere ez da bete beharko aurreko idatz zatikoa: Zergaren karga Zerga Administrazioak likidatu badu eta zergadunak likidazioaren emaitzako kopurua sartu badu.

**4.** Aurreko idatz zatietako betebeharra ez dela bete egiaztatuz gero, Zerga Administrazioaren organoek edo trafikoaren, bide segurtasunaren, nabigazioaren edo aire nabigazioaren gaineko eskumena daukan organoak bost eguneko epealdia emango dio zergapekoari betetzeko edo kreditu erakunde baten edo elkarrekiko bermeko sozietate baten abal solidarioa edo kauzio asegurua aurkezteko, Zenbait Garraiogailuren gaineko Zergaren ordainketa bermatzeko. Epealdi horretan behin betiko matrikulazioa egiten ez bada edo aipatutako abala edo ziurtagiria aurkezten ez bada, organoak garraiogailua ibilgetuko du harik eta beraren egoera (administratiboa eta zergetakoa) erregularizatu arte. Hala ere, zergapekoak ondoren abal solidarioa edo aseguru ziurtagiria aurkezten badu, aurrean aipatu den bezala, ibilgeketa bertan behera geratuko da.

**Bigarrena.-**

**1.** Zerga Berezien arloan errejimen komuneko lurraldean dagoen araudia Araban ere aplikagarri izango da errejimen orokorreko lurraldean dituen efektu eta indarraldi berarekin.

**2.** Aurreko atalean xedatutakoa hala bada ere, 1 zenbaki horretan aipatu araudia indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoaren edukinera egokitua edo moldatua ulertu beharko da.

**3.** Aurreko bi zenbakietan esandakoak ondorioak izango ditu, Araba Lurralde Historikoaren Erakunde eskudunek ondorio horiei buruzko xedapenik onartzen ez duen bitartean.

**Hirugarrena.- (45)**

101. artikuluko 2. idatz zatian ezartzen dena aplikatzeko ezinbestekoa izango da bateragarria izatea Batasunaren ordenamenduarekin.

**ALDI BATERAKO XEDAPENAK**

**Lehenengoa.-**

1999ko ekainaren 30a arte, ezingo da Fabrikazio Zerga Berezia galdatu, bidaiariek Estatu kide batetik bestera joatean zergatatik libre dagoen denda batean edo bidai intrakomunitarioa egiten duen hegazkin edo itsasuntzi batean saltzen diren produktu grabatuak eskuratzeagatik. Aukera hau izateko, ondasunak bidaiariek norberaren ekipaje modura garraiatu behar ditu eta hauen kopuruak ez dute gainditu behar hirugarren herrialde bateko bidaiarientzat finkatuta dauden zergagabeko inportazio kopuruak.

Tratamendu bera emango zaie Mantxako Kanalaren azpiko tunelaren sarrera diren bi terminaletako batean dagoen barrutiko salmenta-lekuetan erositako produktuei, baldin eta bidaiariak terminal bien arteko bidaia egiteko baliozko garraio-titulu bat badarama.

**Bigarrena.-**

(20) Erabilera industrial, komertzial, nekazaritzakoa, kliniko edo zientifikoa bakarrik duten ibilgailuak, Zerga Administrazioak 1993ko urtarrilaren 1 baino lehenago homologatutako serie-modelokoak badira, homologazio hori mantenduko dute honako Dekretu Arautzaile honen 70 artikuluaren 3 zenbakiko a) letraren 1 atalean ezarritakoaren xedeetarako.

**2.** (20)

**3.** (20)

**Hirugarrena.- (45)**

Lurralde erregistroan inskribatzea elektrizitatearen gaineko zerga berezian

Zerga honen autolikidazioak aurkeztu behar dituztenak eta beraren tributazioan salbuespenen edo murrizketen onura jasotzen dutenak lurralde erregistro egokian inskribatuta badaude elektrizitatearen gaineko zergan, ez daukate zertan eskatu zerga honetan inskribatzeko.

**XEDAPEN DEROGATZAILEA**

Larrialdi Fiskaleko honako Dekretu Arautzaile honetan xedatutakoa aurkatzen duten lerrun bereko edo bajuagoko xedapenak indar gabe geratzen dira. Eta bereziki honako hauek: 13/1999 Foru Dekretu Arautzailea, urtarrilaren 19koa, Garraiabide Jakin Batzuen Gaineko Zerga Berezia eraentzen duen araudia onartzen duena; eta Larrialdi Fiskaleko 11/1997 Dekretu Arautzailea, irailaren 16koa, Fabrikazio Zerga Bereziei lurralde komunean indarrean dauden arauak Foru Instituzioek dagozkion xedapenak onartu artean aplikatzeko erabakia jasotzen duena.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.-**

Larrialdi Fiskaleko honako Dekretu Arautzailea indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean.

**Bigarrena.-**

Foru Diputazioa baimentzen da Larrialdi Fiskaleko honako Dekretu Arautzailearen egikaritza eta garapenerako beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

**Hirugarrena.-**

Larrialdi Fiskaleko honako Dekretu Arautzaile hau Batzar Nagusietara eramango da, han indarrean dagoen arauek ezarritakoaren arabera baliozkotu edo baliogabetu dezaten.

**OHARRAK**

(1) 6/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 16koa.
(ALHAO, 143. zk., 99-12-10ekoa).

(2)

(3) 1/2001 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 12koa.
(ALHAO, 23. zk., 01-2-23koa).

(4)

(5)

(6) 4/2002 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 3koa.
(ALHAO, 146. zk., 02-12-27koa).

(7) 1/2003 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 28koa.
(ALHAO, 17. zk., 03-2-12koa).

(8)

(9) Ikusi martxoaren 17ko 8/2003 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarria.
(ALHAO, 36. zk., 03-3-28koa, gehigarria).

(10) 1/2004 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 17koa.
(ALHAO, 32. zk., 04-3-15ekoa).

(11)

(12)

(13) 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa.
(ALHAO, 30. zk., 05-3-11koa, gehigarria).

(14) 3/2005 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 27koa.
(ALHAO, 111. zk., 05-10-3koa).

(15) 1/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 31koa.
(ALHAO, 19. zk., 06-2-15ekoa, eta 22. zk., 06-2-22koa).

(16) 2/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 21ekoa.
(ALHAO, 38. zk., 06-3-31koa).

(17) 8/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 13koa.
(ALHAO, 146. zk., 06-12-27koa).

(18) 1/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 30. zk., 07-3-12koa).

(19)

(20) 3/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.
(ALHAO, 6. zk., 08-1-14koa).

(21) 4/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.
(ALHAO, 10. zk., 08-1-23koa).

(22) 1/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 5ekoa.
(ALHAO, 20. zk., 08-2-15ekoa).

(23) Ikusi otsailaren 5eko 1/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 3. artikulua.
(ALHAO, 20. zk., 08-2-15ekoa).

(24) 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 20koa.
(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa).

(25) Ikusi urtarrilaren 20ko 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 6. artikulua.
(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa).

(26) 4/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 16koa.
(ALHAO, 72. zk., 09-6-26koa).

(27) 1/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 26koa.
(ALHAO, 13. zk., 10-2-3koa).

(28) 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa.
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(29) 5/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 30ekoa.
(ALHAO, 3. zk., 11-1-7koa).

(30) 1/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 8koa.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa).

(31) 2/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 20koa.
(ALHAO, 114. zk., 11-9-28koa).

(32) 2/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 21ekoa.
(ALHAO, 25. zk., 12-2-29koa).

(33) 4/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 22koa.
(ALHAO, 62. zk., 12-5-30ekoa).

(34) Estatuko legeriak aldatu du, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera.

(35) 1/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 19koa.
(ALHAO, 41. zk., 13-4-10ekoa).

(36) 18/2013 Foru Araua, ekainaren 3koa.
(ALHAO, 69. zk., 13-6-17koa, gehigarria).

(37) 2/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 16koa.
(ALHAO, 84. zk., 13-7-24koa).

(38) Ikusi uztailaren 16ko 2/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko azken xedapenetako leheneko 2. idatz zatia.
(ALHAO, 84. zk., 13-7-24koa).

(39) 3/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa.
(ALHAO, 90. zk., 13-8-9koa).

(40) 1/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 4koa.
(ALHAO, 20. zk., 14-2-19koa).

(41) 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 24koa.
(ALHAO, 13. zk., 17-2-1ekoa).

(42) 5/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 96. zk., 17-08-23koa).

(43) 4/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 13koa.
(ALHAO, 134. zk., 18-11-21koa).

(44) 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 11koa.
(ALHAO, 108. zk., 18-9-19koa).

(45) 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa.
(ALHAO, 92. zk., 19-08-12koa).

(46) 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 24koa.
(ALHAO, 38. zk., 20-04-1ekoa).

(47) 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa.
(ALHAO, 28. zk., 21-3-10ekoa).

(48) 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 14koa.
(ALHAO, 22. zk., 23-2-22koa).

(49) 3/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa.
(ALHAO, 92. zk., 23-8-7koa).

(50) 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 25. zk., 24-2-28koa).

(51) 1/20245Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 17koa.
(ALHAO, 71. zk., 25-6-25ekoa).